



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA

Pertsona ardatz duen preskripzio eredu baten eragina bizitzaren amaieran ospitaleratuta dauden paziente geriatrikoetan

Alexander Ferro Uriguen
Leioa, 2021



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Pertsona ardatz duen preskripzio eredu baten eragina bizitzaren amaieran ospitaleratuta dauden paziente geriatrikoetan

Alexander Ferro Uriguen

Doktorego-Tesia

Leioa, 2021

Fisiologia Saila, UPV/EHU

Zuzendariak: Enrique Echevarría Orella dokt., Francisco Javier Gil Goicouría dokt.

Aitonari eskainia,

ESKER ONAK/ AGRADECIMIENTOS

Lehenik eta behin, nere eskerrik beroena Eli Genuarentzat, nere egungo lan ibilbidean zein ikerketa-proiektu honen hastapenetan pertsonarik garrantzitsuenaz izateagatik. Baita ere, nere gaitasunetan nik baino gehiago sinesteagatik, eta lanerako grina pizteagatik.

Bigarrenik, aipamen berezia Idoia Beobideri. Ikerketa honen ibilbidean hasieratik bukaerara arte lagundu, jarraitu eta ahal izan dituzun baliabide guztiak eskaintzeagatik. Horretaz gain, gure farmazia-zerbitzuko taldeburu zeran moduan, beti zintzo eta leial jokatzegatik.

También quisiera agradecer a mis directores de tesis, Enrique Echevarria y Javier Gil. Gracias Enrique por tu inestimable ayuda durante estos cinco años y por ofrecerme todo lo que estaba en tus manos. Para mi has sido un verdadero maestro. Gracias Javi, por ofrecer tu mirada y tu experiencia para poder sacar este trabajo adelante.

Mi más sincero agradecimiento hasta la recientemente Directora Médica del Hospital Ricardo Bermingham, Marta Álvarez de Arcaya, por creer en la figura del farmacéutico como parte del equipo clínico interdisciplinar y hacernos sentir importantes en la atención directa de las personas. No puedo olvidarme de las compañeras que más han trabajado en el día a día en este proyecto y que desde el inicio confiaron en la importancia del mismo. Gracias de corazón a Petra Peña, Andrea Díaz, Yadira Bardales y Arlovia Herasme del equipo de médicos y a Lourdes Artola, trabajadora social, todas ellas de la Unidad de Convalecencia y Unidad de Paliativos de nuestro Hospital.

Gracias también a todas las compañeras del servicio de farmacia, por hacerme crecer a vuestro lado. Gracias Blanca, Bea, Mari Jose, Glori, Mertxe, Silvia, Esther, Gema y Layse.

También quisiera agradecer a Itziar Vergara y Kalliopi Vrotsou del Instituto Biodonostia por participar como órgano asesor en el diseño inicial de esta tesis doctoral.

Azkenik, eskerrik asko nire sustengu diren lagun kuadrila eta familia osoari. Bereziki, nere anai-arreba Josu eta Miriami, beti ondoan izateagatik. Eta, nola ez, Aita eta Amari, bizitza ematetik gaur arte zuengatik jaso dudan guztiagatik.

Besarkada bat zuri, Uxue, gure bidaiaren atal honetan ere ezinbestekoa izateagatik. Eta beste bat zuretzat, Lur, zure lehen hitz, pauso eta irribarreekin lan honi amaiera emateagatik.

HITZAURREA

Esku artean duzun lan hau Matia Fundazioko Ricardo Bermingham Ospitalean burutu eta Euskal Herriko Unibertsitateko Fisiologia sailaren gidaritzapean egin den doktoretza-tesia da. Tesi hau euskaraz idatzia izan da, emaitzen bi atal eta eranskinak izan ezik, hauek gaztelaniaz idatziak izan direlarik.

PRÓLOGO

Este trabajo corresponde a una tesis doctoral realizada en el Hospital Ricardo Bermingham de la Fundación Matia de San Sebastián bajo la dirección del Departamento de Fisiología de la Universidad del País Vasco. Esta tesis ha sido redactada en euskara, salvo dos apartados de resultados y los anexos, que han sido redactados en castellano.

LABURDURAK

AEB:	Amerikar Estatu Batuak
ARS:	<i>Anthicholinergic Risk Scale</i>
BGBK:	Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa
BGK	Bihotz Gutxiegitasun Kongestiboa
DBI:	<i>Drug Burden Index</i>
DSPJ:	Dementziaren Sintoma Psikologikoak eta Jokabide-sintomak
EAE:	Euskal Autonomia Erkidegoa
IF-VIG:	Balorazio Integral Geriatrikoan Oinarritutako Haukortasun Indizea
IZB:	Istripu Zerebrobaskularra
MAI:	<i>Medication Appropriateness Index</i>
MOE:	Munduko Osasun Erakundea
MRCIe:	<i>Medication Regimen Complexity Index (version Española)</i>
NECPAL CCOMS- ICO®:	Arreta aringarria jasotzeko baheketa testa – MOEren zentro laguntzaile eta Kataluniako Instituto Onkologiaren bitartez.
OR:	<i>Odds Ratio</i>
PAP Eredua	Pertsona Ardatz duen Preskripzio eredua
PDP	Potentzialki Desegokiak diren Preskripzioak
PPI	Protoi-Ponparen Inhibitzailea (PPI)
START:	<i>Screening Tool to Alert doctors to the Right, Appropriate, indicated Treatment</i>
STOPP Frail:	<i>Screening Tool of Older Persons Prescriptions in Frail adults with limited life expectancy</i>
STOPP:	<i>Screening Tool to Alert doctors to the Right, Appropriate, indicated Treatment- STOPP- Screening Tool of Older Person's potentially inappropriate Prescriptions</i>

ABREVIATURAS

ACV:	Accidente Cerebrovascular
ARS:	<i>Anthicholinergic Risk Scale</i>
CAV:	Comunidad Autónoma Vasca
DBI:	<i>Drug Burden Index</i>
EEUU:	Estados Unidos de América
EPOC:	Enfermedad Pulmonar Obstructiva Crónica
IBP	Inhibidor de la Bomba de Protones
ICC	Insuficiencia Cardíaca Crónica
IF-VIG:	Índice de Fragilidad basado en la Valoración Integral Geriátrica
MAI:	<i>Medication Appropriateness Index</i>
Modelo PCP	Modelo de Prescripción Centrado en la Persona
MRCIe:	<i>Medication Regimen Complexity Index (version Española)</i>
NECPAL CCOMS-ICO®:	Test de Necesidades Paliativas – centro colaborador de la OMS –Insituto Catalán de Oncología
OMS:	Organización Mundial de la Salud
OR:	<i>Odds Ratio</i>
PPI	Prescripciones Potencialmente Inapropiadas
SPCD:	Síntomas Psicológicos y Conductuales de la Demencia
START:	<i>Screening Tool to Alert doctors to the Right, Appropriate, indicated Treatment</i>
STOPP Frail:	<i>Screening Tool of Older Persons Prescriptions in Frail adults with limited life expectancy</i>
STOPP:	<i>Screening Tool to Alert doctors to the Right, Appropriate, indicated Treatment- STOPP- Screening Tool of Older Person's potentially inappropriate Prescriptions</i>

Aurkibidea/ Índice

ESKER ONAK/ AGRADECIMIENTOS.....	v
HITZAURREA	vii
PRÓLOGO.....	vii
LABURDURAK.....	ix
ABREVIATURAS.....	xi
1. SARRERA.....	19
1.1. Biztanleriaren zahartzea eta kronikotasuna.....	19
1.2. Arreta aringarria.....	25
1.3. Hauskortasunaren kontzeptua eta bizitzaren amaieran duen erabilgarritasuna.....	31
1.4. Adineko pertsonen polimedikazioa.....	33
1.5. Polimedikazioa bizitzaren amaieran	41
1.6. Tratamendu farmakoterapeutikoaren egokitzapena bizitzaren amaieran.....	45
1.7. Ikerketaren zergatia.....	55
2. HELBURUAK	59
2.1. Helburu nagusia	59
2.2. Helburu zehatzak	59
3. METODOLOGIA.....	63
3.1. Ikerketa zentroaren agertokia.....	63
3.2. Ikerketaren ezaugarriak eta partaideen hautaketa	63
3.3. Interbentzioaren deskribapena eta datu-bilketa.....	64
3.4. Interbentzio ondoreneko jarraipena	67
3.5. Aztertutako aldagaiak	68
3.6. Azterketa estatistikoa	74
3.7. Alderdi etikoak.....	76
4. EMAITZAK	79
4.1. Bizitzaren amaieran ospitaleratutako paziente geriatricoen ezaugarri soziodemografikoen eta klinikoen deskribapena.	79
4.2. Ezaugarri farmakoterapeutikoen deskribapena eta bizitzaren amaieran hiperpolimedikazioa eta egokitzapen terapeutiko eskasa duten pazienteekin lotutako arrisku-faktoreen identifikazioa.	109
4.3. Evaluación del efecto de la aplicación de un modelo de Prescripción Centrado en la Persona sobre las principales variables de adecuación farmacoterapéutica.	135

4.4.	Análisis de la influencia del modelo de Prescripción Centrado en la Persona sobre las variables farmacoterapéuticas y las visitas a urgencias hospitalarias en el periodo posterior al alta hospitalaria en el grupo control e intervención.....	149
5.	EZTABAIDA	173
5.1.	Bizitzaren azken fasean ospitaleratutako paziente geriatrikoen ezaugarri soziodemografikoen eta klinikoen deskribapena.	173
5.2.	Bizitzaren amaieran hiperpolimedikazioa eta egokitzapen terapeutiko eskasa duten pazienteei loturiko ezaugarri farmakoterapeutikoak eta arrisku-faktoreen deskribapena.....	179
5.3.	PAP eredu bat aplikatzeak egokitzapen farmakoterapeutikoaren aldagai nagusietan dituen ondorioak.....	189
5.4.	PAP ereduak aldagai farmakoterapeutikoetan eta ospitaleko larrialdietara egindako bisitetan duen eragina, ospitaleko alta ondorenean	193
5.5.	PAP ereduaren aplikagarritasuna, erabilgarritasuna eta espero den inpaktua	199
6.	ONDORIOAK.....	203
7.	BIBLIOGRAFIA.....	207
1.	Eranskina. NECPAL CCOMS-ICO®.	227
2.	Eranskina. Escala Gijón de Valoración Sociofamiliar en el anciano.	229
3.	Eranskina. Índice de comorbilidad de Charlson.....	231
4.	Eranskina. Índice de Fragilidad basado en la Valoración Integral Geriátrica (IF-VIG).....	233
5.	Eranskina. Cuestionario de evaluación de síntomas de Edmonton, versión ESAS-r	235
6.	Eranskina. Medication Appropriateness Index (MAI)	237
7.	Eranskina. Screening Tool of Older Persons Prescriptions in Frail adults with limited life expectancy.Criterios STOPP Frail.	239
8.	Eranskina. Anticholinergic Risk Scale (ARS).....	241
9.	Eranskina. Drug Burden Index (DBI).....	243
10.	Eranskina. Medication Regimen Complexity Index, adaptada y traducida al español (MRCIe)	247
11.	Eranskina. Aprobacion del Estudio por el Comité Ético de Investigación Clínica de Gipuzkoa.....	251
12.	Eranskina. Hoja de Información al Paciente	253

SARRERA
INTRODUCCIÓN

1. SARRERA

1.1. Biztanleriaren zahartzea eta kronikotasuna

XX. mendearen erdialdera trantsizio-demografikoaren fenomenoak ematen da, batipat jaiotza-tasaren beherakadak, osasun-aurrerapenak eta aurrerapen sozial nabariak eraginda, honela, pertsonen biziraupena luzatuz eta haien bizi-kalitatea hobetuz. Gertakari horren ondorio zuzena biztanleriaren zahartzea izan da, populazioaren adin-egituraren aldaketa gisa definitzen dena, non adin-talde zaharrenek gora egin duten adin-txikieneko taldeen kaltetan(1).

Azken urteotan, mundu mailako bizi-itxaropenak gora egin du etengabe, horrela, 2019ko 72,6 urteko bizi-itxaropena, 2050erako 77,1 urterarte luzatzea espero da. Herrialdeen arteko bizitza-luzeraren diferentziaren hurbilketan aurrerapen handiak lortu badira ere, arrakala handiak daude oraindik. 2019an, gutxien aurreratutako herrialdeetan, jaiotza-unekoko bizi-itxaropena munduko batez bestekoa baino 7,4 urte txikiagoa zen, neurri handi batean, haurren eta amen hilkortasun-tasa altuengatik, gatazkengatik eta GIBaren epidemiaren etengabeko eraginagatik(2).

Oro har, munduko herrialde gehienetan gora egiten ari da adineko pertsonen kopurua eta proportzioa. 2019ko "Munduko biztanleriaren perspektibak" txostenaren datuen arabera, urte hartan bertan hamaika pertsonatik batek (% 9) 65 urte baino gehiago zituela adierazi zuten, aldiz, 2050erako seitek batek (% 16) adin muga hau pasatzea estimatu zuten. 2018an, historian lehen aldiz, 65 urteko edo gehiagoko pertsonek bost urtetik beherako haurren kopurua gainditu zuten mundu osoan. Horrez gain, 80 urte edo gehiagoko pertsonen kopurua hirukoiztu egingo dela kalkulatu da, 2019an 143 milioi izatetik 2050ean 426 milioi izatera(2).

Espainiar estatuko egoera demografikoari dagokionez, 2018an, gizon eta emakumeentzat jaiotza-unekoko bizi-itxaropena 80,5 eta 85,8 urtekoa zen, hurrenez hurren. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, gizonen bizi-itxaropena 80,8 urtekoa zen, eta emakumeena, berriz, 86,3 urtekoa. EAEko emakumeen kasua, Europar batasuneko bizi-itxaropenik handiena da, gainerako estatu kideekin alderatuz gero(3,4).

2018an, Espainian eta EAEn, 65 urtetik gorako pertsonen populazioaren % 19,2 eta % 22,3 irudikatzen zuten, aldiz, estatu mailan 2035. urterako egindako proiektzioen arabera, biztanleria geriatricoa % 26,5ekoa eta %30,2koa izango da, hurrenez hurren(3). Azpimarratzekoa da, halaber, hurrengo urteetarako aurreikusia den adinekoen zahartzearen fenomeno, edo, ezagunagoa den, "Zahartzearen zahartzea", honela, adinduetan adinduenen kopuruak gora egingo duelarik. Espainian, 2018an, 80 urtetik gorako pertsonak biztanleria osoaren % 6,2 ziren. Azken biztanleria-proiektzioen arabera, 2050erako 80 urtetik gorako pertsonak biztanleria osoaren % 11,6 izango dira, egungo proportzioa ia bikoiztuz(3).

Adinekoen zahartzeak eremu demografikotik haratago doazen ondorioak ditu, eta gaixotasun kronikoen agerpenarekin batera doa; azken honek, aldaketa handiak ekarri dituelarik gaixotasunen eredu epidemiologikoan(5). Munduko Osasun Erakundeak (MOE) gaixotasun kronikoak iraupen luzekoak, progresio motelekoak eta transmitiezinak bezela definitzen ditu (6), gaur egungo munduko heriotza-eragile nagusiak direlarik. Gaixotasun kronikoen ezaugarriak horiek izanik, sarri, eragindako pertsonen eta zaintzaileen bizi-kalitatea mugatzen dute, eta fase aurreratuagoetan mendekotasun-, hauskortasun- eta multimorbilitate-egoerak sortzen dituzte. Gaixotasun kroniko mota nagusiak, gaixotasun kardiobaskularrak (kardiopatia iskemikoa eta istripu zerebrobaskularrak –IZB–), minbizia, arnas gaixotasun kronikoak (biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa –BGBK– eta asma) eta diabetesa dira.

Gaixotasun kronikoek adin-talde guztiei eta eskualde eta herrialde guztiei eragiten diete. 2019. urtean, mundu osoan zendutako 55,4 milioien % 74 gaixotasun kronikoekin lotuta egon ziren, gaixotasun ez-transmitigarri gisa ere ezagutzen direnak(7). 10 heriotza-kausa nagusietatik 7 gaixotasun kronikoek eragindakoak izan ziren, hau da, heriotzen *top-tenaren* % 80.

Munduko heriotza-kausarik handiena kardiopatia iskemikoa da, munduko heriotza guztien % 16ren erantzule; ondoren, IZB eta BGBK daude, heriotza guztien % 11ren eta % 6ren erantzuleak, hurrenez hurren(7).

Beheko arnasbideetako infekzioek(7) munduko gaixotasun kutsagarriarik hilgarriena izaten jarraitzen dute, heriotzaren laugarren kausa nagusi gisa sailkatuta. Hala ere, heriotzen kopuruak nabarmen egin du behera: 2019an 2,6 milioi pertsona hil ziren, 2000n baino 460 000 gutxiago.

Jaiotza-ondoko egoera larriak bosgarren postuan daude(7) eta azken bi hamarkadetan kopuru absolutuetan beherakada handiena izan duten kategorietako bat izan da: gaixotasun horiek 2 milioi jaioberri eta haur txiki hil zituzten 2019an, 2000n baino 1,2 milioi gutxiago.


Trakeako, bronkioetako eta biriketako minbiziak eragindako heriotzak 2000ko 1,2 milioitik 2019ko 1,8 milioira igo dira, eta orain heriotza kausa nagusien artean seigarren lekuan daude(7). 2019an, Alzheimerren gaixotasuna eta beste dementzia mota batzuk zarpigarren heriotza-kausak nagusi gisa sailkatu ziren(7); kasu horretan, emakumeak era nabarmenago batean kaltetu zirelarik. Mundu mailan, Alzheimerrak eta beste dementzia mota batzuek eragindako heriotzen % 65 emakumeak dira. Diabetesa(7), 10 heriotza-kausak nagusien artean sartu da, 2000tik % 70eko igoera nabarmena izan ondoren. Diabetesa da, halaber, gizonen heriotzen gorakada handiena eragin duena, 2000tik % 80 igo baita.

2000. urtean, 10 heriotza-kausak nagusien artean zeuden beste gaixotasun batzuk jada ez daude zerrendan. Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromea (HIES) da horietako bat(7). HIESaren ondoriozko heriotzak % 51 murriztu dira azken 20 urteetan, 2000ko munduko zortzigarren heriotza-kausak nagusia izatetik, 2019an 19. izatera pasatu delarik.

Giltzurrunetako gaixotasunak munduko hamahirugarren heriotza-kausak nagusirik hamargarrenera igaro dira(7) eta hilkortasuna 2000ko 813.000 pertsonetatik 2019ko 1,3 milioira igo da.

Kalkuluek berretsi egin dute bizi-luzetasunaren goranzko joera: 2019an, 2000n baino 6 urte gehiago bizi izan ziren, bizi-itxaropena 67 urtetatik 73 urtetara igaro zelarik. Aldiz, batez beste, urte horietako 5 bakarrik bizi izan ziren osasun onean(7).

Ezbairik gabe, desgaitasuna gero eta handiagoa da. Neurri handi batean, heriotza gehien eragiten dituzten gaixotasunak bizitza osasungarriaren urte gehien galduarazten dituztenak dira. Kardiopatiek, diabetesak, IZBek, biriketako minbiziek eta buxadurazko neumopatia kronikoek, oro har, bizitza osasuntsuko 100 milioi urte gehiago galtzea eragin zuten 2019an, 2000rekin alderatuta(7).




1. Irudia. Heriotzen bilakaera Espainian (datuen iturria: INE).

Gure eremu hurbileko datuei erreparatuta, Espainian (**1. Irudia**), 2018. urtean 427.721 heriotza erregistratu ziren, eta gaixotasun nagusien arabera horrela sailkatu ziren: 120.859 (% 28,25) zirkulazio-sistemako gaixotasunengatik, 112.714 (% 26,35) minbizi-gaixotasunengatik, 53.687 (% 12,55) arnas-sistemako gaixotasunengatik, 26.279 (% 6,14) nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunengatik(8).

EAEn (**2. irudia**), 2018an 21.745 heriotza erregistratu ziren, banaketa honen arabera(9): 6.360 (% 29,2) minbizi-gaixotasunengatik, 5.776 (% 26,6) zirkulazio-sistemako gaixotasunengatik, 2.330 (% 10,2) arnas-sistemako gaixotasunengatik, 1.439 (% 6,6) nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunengatik.

EAEn (**2. Irudia**), Espainiako estatuan bezala (**1. Irudia**), heriotza-kopuruak gora egin du, heriotza-tasa gordinek bezala (heriotzak mila biztanleko)(9). 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren hazkundera aurreko aldietako hilkortasunaren murrizketaren emaitza da, eta aldi berean, adineko heriotzen egungo hazkunderaren arrazoia,

pixkanaka, hiltzeko probabilitate handiena duten adineko pertsonen kopurua handituz doalako etengabe.



2. Irudia. Heriotzen bilakaera Euskal Autonomi Erkidegoan (datuen iturria: INE, EUSTAT).

Orain azaldutakoak, gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pertsonen prebalentzia zein heriotza-tasa era esponentzian handitzea dakar, askotan mendekotasun-, hauskortasun- eta multimorbilitate-baldintzei lotuta, eta konplexutasun-, premia- eta eskaera-maila desberdinak azalduz(10,11).

Funtsezkoa da gaixotasun kronikoak hobeto kudeatzeko ahaleginetan inbertitzea, bai horien detekzioa, baheketa eta tratamendua ahalbidetzen lagunduko duena, zein zainketa aringarrietarako sarbidea ere begietsiko duena(12). Gaixotasun kronikoen aurka eragin handia duten funtsezko esku-hartzeak, lehen mailako arretaren ikuspegitik egin daitezkeela uste da, haien detekzio goiztiarra eta garaiz tratatzea indartzeko. Datuek, interbentzio horiek inbertsio ekonomiko bikaina direla erakusten dute, eta pazienteek garaiz jasotzen badituzte, tratamendu garestiagoen beharra murriztu ahal izango da (13).

1.2. Arreta aringarria


2014ko urtarrilean, MOEk ebazpen bat argitaratu zuen (EB I 34.R7), "Zainketa aringarriak indartzea asistentzia-prozesu osoan tratamendu integralaren zati gisa" txostenari buruzkoa(14), eta lehen aldiz sartu ziren zainketa aringarriak osasun-estaldura unibertsalaren definizioan. Dokumentu horretan bertan osasun-zerbitzuek sistema integratuak eskaini behar zituztela nabarmentzen zen, sarbide ekitatiboa bermatu eta pertsona ardatz zuen prestazioa gaixotasunaren eta beste arazo fisiko, psikosozial eta espiritual batzuen kontrol sintomatikoa azkar identifikatu, baloratu eta tratatzeko.

Biztanleriaren zahartzeak eta gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pazienteen biziraupenean lortutako aurrerapenek modu esponontzialean igo dute osasun-sisteman arreta aringarria behar duten pertsonen prebalentzia(10,11). Paziente horiek eta haien familiek behar eta arreta-eskaera handiak izaten dituzte; esaterako, erabakiak hartzerakoan krisi eta dilema etiko-kliniko ugariak, farmakoen eta baliabideen kontsumo handia eta bizitzako azken hilabeteetan osasun-arretaren kostu handia.

Gaur egun arte, osasun-sistemak hobeto diseinatuta egon dira gaixotasun akutuak sendatzeko, egoera kroniko aurreratuen ondorioak kudeatu eta ahalik eta gehien murrizteko baino. XXI. mendearen hasierara arte, zainketa aringarrien kontzeptua(15) egoera terminaleko arretaren sinonimoa zen, ziurrenik oso garai berantiarretan eskaintzen zirelako, eta gaixotasun onkologikoei oso lotuta zeudelako. Arreta aringarriaren egungo kontzeptua paziente mota guztietara hedatzen da, bai prozesu onkologikoak bai ez-onkologikoak jasaten dituztenetara, eta gaur egun bizi-pronostiko mugatua duten gaixotasun kroniko ebolutibo aurreratuaz hitz egiten da. Tratamendu sendagarriek eta aringarriek ez dute elkarrekiko baztertzailak izan beharrik, eta pixkanaka neurri aringarrien proportzio handiagoa aplikatzen zaie gaixotasunak aurrera egin ahala eta pazienteak tratamendu espezifikolari erantzuteari utzi ahala.

Oro har, gaixotasun kroniko progresiboa duten pertsonentzako hiru ibilbide nagusi identifikatzen dira, erritmo eta lehentasun desberdinak aurkezten dituztelarik. Honela, **3. Irudian** narriadura ibilbide nagusiak irudikatzen dira (16). Lehenengoa, gaixotasun onkologikoei loturikoa, etengabeko progresioa duen ibilbidea da, eta, oro har, amaierako fase argi batengatik bereizten da. Bigarren ibilbidea organo-gutxiegitasunarekin loturik dago (adibidez, bihotz-gutxiegitasuna, arnas gaixotasunak), eta era mailakatuan gaitasuna galtzen doan eanean, endekapen akutuaren eta berreskuratze partzialaren ondorioz nabarmentzen da, orohar, bat-bateko eta ustekabeko heriotza gehiago izaten dituelarik. Eta, azkenik, demenzia edota hauskortasun aurreratua duten pertsonak, narriadura progresibo eta luze batekin garatzen dira. Momentu jakin batean, gaixo talde honetan tarteko prozesuren bat gertatzen denean, hala nola, femurraren haustura bat edo arnas gaininfekzio bat, narriadura progresiboa bizkortu eta heriotza azkar bat eragin dezake. Beraz, minbizia, organo-gutxiegitasuna edota hauskortasun fisiko eta kognitibo aurreratuan kokatzen diren gaixo multzoei narriadura-patroi jakin bat jarraitzen dute, non egoera funtzionalak lotura zuzena izaten duen patologiaren bilakaera klinikoarekin. Egoera hori ez da gertatzen bat-bateko heriotzaren kasuan, ezin baita aurreikusi.

Bizita amaierako hiru narriadura-ibilbide nagusiak




3. Irudia. Gaixotasun kroniko aurreratua duten pertsonen narriadura-ibilbide nagusiak (Lynn eta Adamsonetik(16) egokituta).

1.2.1. Bizitzaren amaierako trantsizioak

Arreta aringarriaren esparru kontzeptualaren garapenean, Murray et al.(17) -ek lehen eta bigarren trantsizioko kontzeptuak definitzen dituzte (Ikus **4. Irudia**).

Lehen trantsizioa: etapa hau, sarri, hil baino hilabete edo urte batzuk lehenago gertatzen da, eta arreta aringarria behar duten pazienteak identifikatzeko prozesuaren hasiera izan daiteke, identifikazio goiztiarra errazten duten adierazle edo aldagai batzuk agertu eta ezagutu direlako. Identifikazio hori modu proaktiboan, goiztiarrean eta unibertsean egin beharra dago, eta, horretarako, baliagarriak dira biztanleria-baheketarako diseinatutako tresna espezifikoak, aurrerago ikusiko ditugun bezala. Baheketa horrek ikuspegi aringarri ez-dikotomiko eta progresibo bat irekitzen du, konbentzionalari gehitua, eta banakako balorazio multidimentsionalaren aurreko urratsa da.



4. Irudia. Trantsizio ebolutiboak gaixotasun kronikoan eta arreta aringarrian (Boyd eta Murray(18) -tik egokituta).

Bigarren trantsizioa: tratamendu sintomatikoa hertsiki lehenestea erabakitzen den inflexio-puntua da, eta bizitzaren amaierako ibilbide guztiek bat egiten dute bertan. Bigarren fase honetarako sarrera identifikatzeak balorazio kliniko egitea dakar, koadroa itzulezina dela ziurtatzeko. Ohean egotea, ahotik hartzeko zailtasunak izatea edo kontzientzia gutxitzea, pazienteak bigarren trantsizio horretan dagoela iradoki dezaketen adierazle klinikoak dira, besteak beste. Fase honetan, desegokitzeak jotzen da pertsonen bizitza luzatzen saiatzen diren tratamenduak aplikatzea, eta funtsezkoa izango da tratamendu sintomatikoa eta erosotasunekoak bermatzea.

1.2.2. Gaixotasun kroniko aurreratuak eta arreta aringarriaren beharra dituzten pazienteak identifikatzeko detekzio-tresnak

Zainketa aringarrien identifikazio goiztiarrak hainbat onura erakutsi ditu: tratamendu-lehentasunak eta arreta-helburuak argitzen laguntzen du, bizi-kalitatea eta sintomen kontrola hobetzen du, bizi-larritasuna murrizten du, arreta ez hain oldarkorra eskaintzen du, gastu ekonomiko txikiagoa suposatzen du eta sarri, biziraupena luzatzera eramaten du(19–22).

Arreta aringarriko neurriak ezartzeko oztoporik garrantzitsuena iragarpen-adierazle eza da. Baheketa-tresna horiek nolabaiteko ikuspegi pronostikoarekin erabil daitezke(23), beti ere kontuan hartuta pronostikoek dakarzkiten ziurgabetasun-mailekin, izan ere, bizitza-amaierako prozesuak faktore anitzekoak dira eta erabat indibidualak aldi berean.

Gaixotasun kroniko aurreratuaren larritasun-irizpide espezifikoetan oinarritutako pronostiko klasikoaren hurbilketak bere mugak ditu eta pronostikorako gaitasun txikia erakusten dute, batez ere multimorbiditatea duten paziente geriatrikoentzat(24). Beste faktore orokorrago batzuek fidagarritasun handiagoa erakutsi dute, bizitzaren amaierako pronostiko-adierazle gisa, hala nola: egoera funtzionala, nutrizionala eta kognitiboa, egoera emozionala, sindrome geriatrikoak (eldarnioa, disfagia, presio-ultzerak eta erorketak), sintomak (disnea eta antsietatea), gizarte-zaugarritasuna, polifarmazia edo osasun-baliabideen erabileraren errepikapena.

Horrela, zainketa aringarriak behar dituzten pazienteak identifikatzeko erabiltzen diren tresna espezifiko gehienek hainbat bloketan txertatu dituzte baldintza orokor horiek, eta honako ezaugarri hauek betetzen dituzte:

- **Ezusteko galdera (1. blokea):** irizpide kliniko intuitibo bat gehitzea du helburu, hurrengo hilabeteetan pertsona bat hiltzeak harrituko ote lukeen galdetuta (hautatutako tresnaren arabera aldatzen da). Ezusteko galdera pazienteen biziraupena baloratzeko tresna gisa ere erabili ohi da.
- **Irizpide orokorrak (2. blokea):** egoera funtzionala (adibidez, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueri dagokionean), ospitaleko baliabideen erabilera

errepikakorra (ospitaleratzeak edo egonaldi luzeak) eta pisu galtzea, aztertzen ditu besteak beste.

- **Irizpide espezifikoak (3. blokea):** gaixotasunaren narriadura-adierazle espezifikoen ebaluatzea egiten da.

Hauek dira literatura zientifikoan ezagutzen diren tresna nagusiak:

- *Prognostic Indicator Guidance Gold Standards Framework (PIG-GSF)*(25): Erresuma Batuan NHSko profesionalak egina.
- *Supportive and Palliative Care Indicators Tool (SPICT)*(26): Eskoziako Lothian eskualdeko NHSk eta Edinburgoko Unibertsitateak egina.
- *the RADbou indicators for Palliative Care needs (RADPAC)*(27): zainketa aringarrien eta lehen mailako arretaren zerbitzuei atxikitako Nimegako (Herbehereak) Radbou Unibertsitateko profesionalak egina. PIG-GSFn oinarrituta dago, eta minbizia, BGBK eta bihotz-gutxiegitasuna bezalako gaixotasun espezifikoetara mugatuta dago. Berezitasun gisa, bizitza amaierako pazientearen pertzepzioaren deskribapena egiten dute.

Gure osasun-ingurunean, 2011. urtean NECPAL CCOMS-ICO© harraminta garatu zen, Qualy Behatokia (MOEren Zainketa aringarrien Programa Publikoetarako Zentro Laguntzailea) eta *Institut Català d 'Oncologia*-ren eskutik(28) (ikus **1. Eranskina**), Erresuma Batuko PIG-GSFn oinarritua. Itzulpena, egokitze kulturala, birformulazioa eta esamolde egokien hautaketa egin zen, bai eta irizpide klinikoen egokitzapena ere.


NECPAL CCOMS-ICO© tresna 2012an erabili zen lehen aldiz Osona eskualdean(15) (Katalunia; 149.000 biztanle; % 21,4 pertsona 65 urtetik gorakoak; heriotza-tasa % 8,81ekoa). Bertan, prebalentzia-azterketa bat egin zen akutuen ospitale bateko, ospitale soziosanitario bateko, zaharren egoitzetako eta komunitateko pertsonen inguruan, eta 1.064 pertsona bildu zituzten guztira (biztanleria osoaren % 2,06). Aztertutako pertsonen % 70,5k (n= 750) ezusteko galdera positiboa izan zuten (populazio osoaren % 1,45), eta % 64,3k (n= 684) NECPAL harraminta positiboa. Emaiza hauek, populazioaren % 1,33k gaixotasun kroniko aurreratuak zituztela eta zainketa aringarrien beharra zutela ondorioztatzen

zuten. Oro har kalkulatu da, gure eremuan, biztanleria orokorraren % 1,5, ospitale akutuetan ospitaleratutako pazienteen % 26-40 eta zaharren egoitzetako egoiliarren % 60-70 NECPAL harraminta positiboa izango dutela.


Zahartzeari eragiten dioten aldaketak konplexuak eta dinamikoak dira, eta denborarekin pixkanaka ezarri diren kalteek erreserba fisiologikoak murrizten dituzte, gaixotasunen arriskua areagotuz eta gizabanakoaren berezko gaitasuna murriztuz, azkenik, heriotza ekartzen duelarik. Aldaketa horiek pertsonen bilakaeran linealak eta uniformeak ez badira ere, denbora-tarte aldakor batean pertsonak gaixotasun kroniko ezberdinak pairatuko dituzte. Multimorbilitate-egoera hoiek, patologia akutu zein kroniko anitzen koexistentzia gisa ulertuta, gaixotasun kroniko aurreratuen egoerara eboluzionatzen dute, bizitza amaierako fasearen preludiora igaroaz, eta hortaz, zainketa aringarrien premia izanaz. Beraz, gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pertsonak kontuan hartu beharreko biztanleria-segmentu bat da, datozen urteetan kuantitatiboki handituko dena, aurrez azaldutako biztanleria-aurreikuspenak direla eta.

1.3. Hauskortasunaren kontzeptua eta bizitzaren amaieran duen erabilgarritasuna Hauskortasuna dimentsio anitzeko entitate kliniko bat da, faktore estresagarrien aurreko kalteberatasun-egoera gisa definitzen dena. Hauskorra den pertsona orok konpensatzio-mekanismoak mugatuta dituen eanean, osasunari loturiko emaitza txarrak izateko arrisku handia du(29). Hauskortasun-neurriak praktika klinikoan integratzea funtsezkoa da pazienteak beren egoeraren arabera estratifikatzeko, eta, horrela, adinagatiko diskriminazioa edo *ageismoa*(30) saihesteko. Abordatze operatiboari buruzko eztabaidak gorabehera, bere prebalentzia handiaz jabetuta, adituen artean adostasuna dago kontzeptu berri hau ebaluatzeko beharrari buruz, izan ere, 65 urtetik gorako biztanleriaren % 10 hauskorra da(31).

Nagusiki, hauskortasuna definitzeko bi eredu proposatu dira (Ikus **5. Irudia**). Fried et al.(32)-ek proposaturiko **fenotipo hauskorra**, sindrome kliniko gisa definitzen da, eta gutxienez hauetariko hiru irizpide bete behar ditu: nekea, ahulezia, nahigabeko pisu galtzea, poliki ibiltzea edota jarduera fisiko gutxi egitera. Aldiz, Rockwood et al(33)-ek proposaturikoa, **hauskortasun-indize** batean oinarritzen da, eta banakako defiziten ondorio metatzaile gisa ulertzen da, non funtzionaltasuna, egoera kognitiboa, multimorbilitatea, sindrome geriatrikoak, polifarmazia eta elementu sozialak ebaluatzen diren. Azken hauen aburuz, beraz, zenbat eta defizit gehiago izan, orduan eta hauskortasun maila handiagoarekin bat dator. Ikuspegi horretatik, hauskortasuna etengabeko aldagaia da, eta ez da desgaitasunarekin edo mendekotasunarekin amaitzen, fenotipo hauskorrean bezala, baizik eta pixkanaka handitzen da heriotza iritsi arte. Azken batean, bi erduek erakutsi dute balio prediktiboa dutela osasuneko emaitza kaltegarri desberdinetarako, eta askotan gainjartzen dira hauskortasunaren identifikazioan, baina ez dira baliokidetzat hartu behar, eta hainbat egoeratan erabilgarriak izan daitezkeela proposatu da(34).



Fried et al. J Gerontol A Biol Sci Med Sci. 2001; 56: 146-156



Rockwood K. J Gerontol A Biol Sci Med Sci. 2007; 62: 722-7.

5. Irudia. Hauskortasun terminorako bi kontzeptu-esparru nagusi(Rodriguez Mañas et al (35)-etik egokitua).

Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten eta bizitzaren azken fasean identifikatzen diren pertsonak ordurako desgaitasun-baldintzak izaten dituzte, eta, horietan, fenotipo hauskorren ereduan oinarrituta, nekez lehengoratu ahal izango dira. Puntu honetan, hauskortasun-indize desberdinek hartzen dute interesa; izan ere, balorazio multidimentsional kuantifikatuaren bidez, pazientearen egoeraren diagnostikoa egin ahal izango da(36). Zeharka, pazienteak estratifikatzeko aukera bat izan daiteke, interbentzio prebentiboagoez balia daitezkeen pazienteak eta ikuspegi kontserbadoreagoa behar duten pazienteak bereizteko. Hainbat hauskortasun-indize pronostiko-tresna gisa ere erabili dira, baina ez da izatez tresna horien helburu nagusia(37).

1.4. Adineko pertsonen polimedikazioa

1.4.1. Definizioak eta Terminologia

Polimedikazioa, "Polypharmacy" termino anglosaxoiaren hitzez hitzeko itzulpenaz polifarmazia ere deitua, medikamentu asko aldi berean hartzea edo medikamentu gehiegi hartzea(38) bezela definitzen du MOEk. Definizio hori nahikoa zabala da, bai praktika klinikoan, bai ikerketan, kontzeptu ugari hartzeko moduan. Definizioan dagoen desadostasun horrek nahasmena sortzen du, eta zaila egiten du arazoaren irismena ebaluatzea, ondorioak neurtzea eta konponbideak bilatzea.

Polimedikazioa, oro har, irizpide kuantitatiboen arabera definitu da, eta erabilitako medikamentuen kopuruan muga bat ezartzen da(39,40). Kopururik hedatuena modu kronikoan erabilitako 5 medikamentu edo gehiagokoa da; kopuru horretatik aurrera, lotura independentea baitago medikamentuen erabilera desegokiarekin eta osasunean ondorio negatiboak izatearekin(41). Ildo horretan, termino berriak sartu dira(40), eta, beraz, ohikoa da sendagaien kopurua hiru geruzatan sailkatzea; *polimedikazio eza edo oligopolimedikazioa* (5 sendagai baino gutxiago erabiltzea), *polimedikazio moderatua edo baxua* (5 eta 9 sendagai artean erabiltzea) eta *hiperpolimedikazioa, gehiegizko polimedikazioa, altua edo larria* (10 sendagai edo gehiago erabiltzea). Lan batzuek, sendagaien kopuru jakin bat ezartzeaz gain, tratamenduaren gutxieneko iraupena zehazten dute polimedikazioa kontuan hartzeko, normalean 90 egunekoa edo gehiagokoa, modu konkomitantean emanda(42).

Era berean, egile batzuek polimedikazioa ikuspegi kualitatibotik definitzen dute, diagnostiko anitzen eta komorbilitate handiko testuinguru batean medikamentu anitzen erabilera beharrezkoa dela argudiatuz, agindutako medikamentua klinikoki egokia den ala ez definituz(43). Horrela, alde batetik, *polimedikazio egokia* definitzen da baldintza anitzak edota konplexuak dituen pertsona batentzako medikamentuak agintzen direnean, medikamentuen erabilera optimizatu denean eta ebidentzia onenaren arabera preskribatu direnean. Aldiz, *polimedikazio arazotsu edo desegokia* klinikoki beharrezkoak diren sendagaiak baino gehiago agintzeari egiten dio erreferentzia, eta honako egoera baten aurrean aurki gaitzke: 1) sendagai baten kalte-arriskuak aurreikusitako onura gaitzen duenean, dela bizi-itxaropenaren

irizpideengatik, dela aldi berean gertatzen den baldintza edo gaixotasun batengatik; 2) sendagaien arteko interakzio garrantzitsuak objektibatzen direnean; 3) agindutako sendagaien karga gaixoarentzat onartezina denean; 4) eskakizun handiek funtsezko sendagaien betetzea zailtzen dutenean, 5) sendagai batzuk beste sendagai batzuen albo-ondorioak tratatzeko agintzen direnean ("*kaskada terapeutikoa*" deritzon fenomeno) eta agindutako sendagai berrien ordeko konponbideak daudenean. Azkenik, *pseudopolimedikazio* terminoari egiten diogu erreferentzia, pazientearen historian benetan hartzen dituenak baino sendagai gehiago erregistratuta baldin badaude.


1.4.2. Adinekoen polimedikazioaren epidemiologia

Polimedikazioa gero eta ohikoagoa da praktika klinikoan, bereziki 65 urtetik gorakoen artean. Arazo hau ziurrenik hainbat faktorek eraginda sortu da, besteak beste, bizi-itxaropenaren handitzeak, multimorbilitatearen prebalentziak izan duen hazkundeak, eta tratamendu farmakologikoen eraginkortasunak. Orohar, praktika klinikorako gidalerroek hainbat osasun-baldintza prebenitzeko eta maneiatzeko sendagai bat baino gehiago erabiltzearen alde egiten dute(44).

Azken hamarkadetan, adineko helduen artean medikamentuen kontsumoan dauden joera sekularrak monitorizatu dira. AEBn, Europan eta Zeelanda Berrian egindako biztanleria-azterlan batzuek polimedikazioaren prebalentzia areagotu dela adierazi zuten (45). Adibide gisa, 75 urtetik gorako pertsonen artean egindako Suediako azterlan batean (46) polimedikazioaren prebalentziak gora egin zuela ikusi zuten, 1988ko % 27tik 2001eko % 54ra eta 2006ko % 65era. Antzera, AEBn 1999tik 2012ra bitartean instituzionalizatu gabeko pertsonengan egindako azterketa nazional adierazgarri batek(47) % 24tik % 39rako igoera azalarazi zuen.

Bestalde, Espainian estatu mailan egindako azterlan batean(48)(ikus **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**), 65 urtetik gorakoen artean polimedikazioaren prebalentzia 2005etik 2015era % 9,8tik % 28,2ra igo zela kalkulatu zen, eta igoera hori emakume zein 80 urtetik gorakoen kasuan nabarmenagoa izanik. Halaber, 65 urtetik gorakoen artean, hiperpolimedikazioaren prebalentzia % 0,5etik % 3,4ra igo zen, eta 80 urtetik gorakoen artean, berriz ere, handiagoa. Agerikoa da nazioartean

polimedikazioa areagotzen ari dela, herrialde garatuetan lehen mailako osasun publikoko arazo bihurtuz.



6. Irudia. Polimedikazioaren bilakaera ≥ 65 en artean BIFAPen (Lehen mailako arretako ikerketa farmakoepidemiologikoaren datu-basea) arabera.

1.4.3. Polimedikazioa eta osasun ondorio klinikoak

1.4.3.1. Medikamenduei loturiko arazoak

Polimedikazioa agertzearekin batera, medikamentuen erabilerarekin lotutako arazoak gertatzen dira, hala nola medikamentuen arteko interakzioak, medikamentu eta gaixotasunen arteko interakzioak, medikamentuen kontrako erreakzioak eta desegokiak izan daitezkeen preskripzioak. Hala, agindutako medikamentuen kopuruak gora egin ahala, medikamentuen arteko interakzioak jasateko arriskua modu esponentzian handitzen da⁽⁴⁹⁾. Zehazki, 5-9 medikamentu kontsumitzen dituzten pertsonen % 50eko probabilitatea dute gutxienez P-450 zitokromoaren metabolismoaren bidez medikamentuen arteko interakzio bat izateko; aldiz, arriskua

% 100era igotzen da paziente batek 20 medikamentu edo gehiago aldi berean hartzen baditu(50). Bestalde, ikusi da patologia bakoitzerako praktika klinikorako gidalerroak banan-banan erabiltzeak areagotu egiten dituela larriak izan daitezkeen medikamentu eta gaixotasunen arteko elkarrekintzak(51). Zehazki, AEBko adineko pertsona hauskorretan egindako ikerketa batean, aztertutako laginaren % 15k gutxienez medikamentuaren eta gaixotasunaren arteko elkarrekintza bat pairatu zuten(52).

Polimedikazioa, halaber, desagokiak izan daitezkeen preskripzioak erabiltzearekin eta zenbait gaitzetarako egokiak diren medikamentuen gutxiegitasunarekin ere erlazionatu da, hauek antzemateko irizpide esplizituak erabiliz(53,54)(adib.: Beers irizpideak(55,56), *Screening Tool to Alert doctors to the Right, Appropriate, indicated Treatment- START- Screening Tool of Older Person's potentially inappropriate Prescriptions-STOPP* Irizpideak(57,58)). Era berean, aditzera eman da medikamentuen kontrako erreakzioak adineko pertsonen ospitaleratzeen % 10en arrazoi nagusi direla, kasuen % 90ean gaixo polimedikatuak izanik(59).

Arrisku horiez gain, sendagaien kopuruak gora egiteak tratamenduarekiko atxikitze-maila okerragotu du(60). Polimedikazioak eta praktika klinikorako gidalerro anitzen erabilerak erregimen terapeutikoaren konplexutasuna areagotu du, eta honek tratamenduarekiko atxikitzea murriztea eraman duelarik, baita zenbaitetan hilkortasun handiagoarekin ere lotuz.

1.4.3.2. Medikamentuei loturiko aurkako gertaerak

Medikamentu asko erabiltzeak, medikamentuekin lotutako gertakari kaltegarri ugari eragin ditzake. Erorketak eta ondorengo hezur-hausturak ikerketa askotan polimedikazioarekin erlazionatu dira(61). Erregistro nazionaletan oinarritutako Suediako ikerketa baten arabera, medikamentuen kopurua igotzearekin batera erortzeko arriskua areagotu egiten zela ikusi zuten, dosi-erantzun efektu moduan(62). Japoniako adineko anbulategietan egindako zeharkako beste azterlan batek, erortzeko arriskuaren eta komorbilitateen zein medikamentuen artean zer lotura zegoen aztertu zuten; hala, medikamentuen kopuruak gora egin ahala, erorketen arrisku-indizeak

gora egiten zuen eta hanka baten gaineko bipedestazio-testak okerrera egiten zuen(63).

Bestalde Alemanian, zaharren egoitzetan bizi ziren pertsonetan egindako azterketa baten arabera(64) giltzurruneko gutxiegitasuna zuten gaixoek polimedikazioa izatea ohikoa izan zen. Beste populazio-azterketa(65) baten arabera iraupen luzeko polimedikazioa giltzurrun akats akutua izateko arriskua handitzearekin erlazionatu zen. Hala ere, AEBn egindako zeharkako azterlan batek ez zuen lotura independenterik aurkitu polimedikazioaren eta giltzurrunetako gaixotasun kronikoaren artean(66).

1.4.3.3. Funtzionaltasun fisikoaren narriadura eta desgaitasuna

Polimedikazioa funtzionaltasun fisikoaren xede-neurrien narriadurarekin erlazionatu da (martxaren abiadura, aulkitik altxatzea, prentsa-indarra) adineko pertsonen kasuan(67–69). Komunitatean bizi ziren adineko pertsonetan egindako ikerketa batean, polimedikazioa martxaren abiadura moteltzearekin lotu zen, baita multimorbilitate-faktoreak eta arrisku handiko medikamentuak kontuan hartu zirenean ere(69). Kohorte-azterketa britainiar batean(68), berriz ere, polimedikazioaren eta funtzionaltasun okerragoaren arteko lotura hori aurkitu zen, eta, zehazki, bi denbora-tartetan polimedikazioaren eraginpean egon ziren gaixoen artean narriadura funtzional bat izateko probabilitate handiagoa izan zen, denbora-tarte bakar batean egon zirenekin alderatuta. Oro har, desgaitasuna eta eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren neurriak polimedikazioarekin lotu izan dira. Zehaztu beharra dago funtzio fisikoaren eta polimedikazioaren arteko kausazko erlazioa ezartzeak dakarren zailtasuna, osasun-egoera orokorra bi aldagaiekin lotuta baitago(61).

1.4.3.4. Funtzio kognitiboaren narriadura

Polimedikazioa funtzio kognitiboaren narriadura eta dementziarekin lotu izan da. Azterlan horietako batzuek egoera kognitiboa denbora-tarte jakin batean aztertu zuten, eta beste batzuek aldiz, polimedikazioa egoera kognitiboaren gainbehera batekin lotzen zen aztertu zuten. Komunitatean bizi ziren adinekoekin egindako

zeharkako azterlan batean, polimedikazioa egoera kognitibo okerragoarekin lotu zen(70). Kasuen eta kontrolen beste azterlan batean, demenzia-kasuak eta demenziarik gabeko pertsonen kasuak parekatu zirenean, polimedikazioaren prebalentzia demenzia-diagnostikoa zutenetan nagusiki handiago izan zen(71). Asoziazio hau, baldintza klinikoen eta desegokiak izan zitezkeen preskripzioen kopuruaren arabera doitu ondoren ere mantendu zen. Aztertutako bi denbora-tartetan polimedikazioaren eraginpean egoteak, funtzio kognitibo okertze nabarmenago bat ondorioztatu zuen, polimedikazioaren eragin negatibo metatzailea iradoki zuelarik(68). Gainera, zenbait azterlanek polimedikazioa narriadura kognitibo azkarragoarekin lotu izan dute, Europako zaharren egoitzetan egindako zentro anitzeko ikerketa batean ikus daitekeen bezala(72). Polimedikazioaren eta egoera kognitiboaren testuinguruan, garrantzitsua da sendagai jakin batzuk modu espezifikoan aztertzea; adibidez, farmako psikotropoak eta propietate antikolinergikoak dituzten sendagaiak egoera kognitiboaren eragin negatiboekin erlazionatu ohi dira(73).

1.4.3.5. Hauskortasuna

Hauskortasunaren eta medikamentuen arteko erlazioa oso konplexua da, hauskortasunaren aurkezpenen eta medikamentuen jardueran inplikaturako prozesu fisiologiko, zelular eta molekularren ondorioz(74). Onargarria dirudi hauskortasun egoeran gertatzen diren aldaketa fisiologikoen eragina izatea medikamentuen farmakozinetikan eta farmakodinamian. Zahartzea sendagaien farmakozinetikan izandako aldaketekin lotu izan da tradizionalki, baina lotura horrek sendoagoa dirudi hauskortasunarekin, batez ere metabolismo- eta irazpen-prozesuetan(75). Adineko pertsonen, aldi berean, zenbait medikamenturekiko sentsibilitate handiagoa dutela dirudi, baina hauskortasun-rolaren eragina farmakodinamian edo medikamentuen eraginkortasunean ez da guztiz ezagutzen. Alterazio farmakodinamikoen adibide, gaixo hauskorretan zenbait medikamentu eragindako gehiegizko sedazioa eta, horrek eragin dezakeen erortze arriskuaren areagotzea(76). Badira kalteturiko beste mekanismo batzuk ere, hala nola azido azetilsalizilikoari adineko persona hauskorrek duten erantzuteko gaitasun urriagoa(77). Era berean, lotura bat aurkitu da sendagaien kopuruaren eta pisu-galeraren, oreka-faltaren, nutrizio-egoera desegokiaren eta

narriadura funtzionalaren artean, horiek guztiak hauskortasun-ezaugarri klinikoak direlarik(78).

Berriki egindako berrikuspen sistematikoek eta meta-analisiak hauskortasuna eta polimedikazioaren arteko lotura hertsia azalarazi dute(79) pertsona nagusien artean. Lotura horren norabidea ez dirudi argia denik, baina bi norabidekoa izan daitekeela iradokitzen da, polimedikazioak hauskortasun-arriskua areagotu bait dezake, eta hauskortasunak medikamentu ugari jasotzeko probabilitatea handitu. Farmakoterapiaren berrikuspenen bidez polimedikazioa hobeto kudeatzeak hauskortasun egoera prebenitu edo lehengoratu dezakeela azalarazi da, nahiz eta hipotesi hau konfirmatuko duen lan espezifikorik ez izan.

1.4.3.6. Ospitaleratze maiztasuna

Polimedikazioa sarritan lotu izan da ospitaleratzeekin; oro har adineko pertsonetan(80), zaharren egoitzetan instituzionalizatutako pertsonetan(81) eta demenzia diagnostikatutako pertsonetan(82). Asoziazio hau, edozein arrazoiengatik(83) edo planifikatu gabeko ospitaleratzeak(82) edo birosptaleratzeak(84) aztertu dituzten laginetan topatu da. Adibide on bat Koreako lan batean aurkitutakoa da. Bertan, datu administratiboak erabili zituzten polimedikazioaren 10 urteko jarraipena egin eta esposizio-denbora aldagaia aztertzeke. Ikerketak lotura independentea aurkitu zuen polimedikazio-esposizioaren eta edozein arrazoiengatik edo erorikoekin lotutako ospitaleratzeen artean(80). Beste azterlan batean ikusi zen planifikatu gabeko ospitaleratzeak izateko arriskua areagotu egiten zela erabilitako sendagaien kopuruaren arabera(85); hala ere, efektu horiek ez ziren hain nabarmenak izan baldintza kliniko gehiago zituzten pertsonentzat.

1.4.3.7. Hilkortasuna

Berriki egindako berrikuspen sistematiko eta meta-analisi batek, 47 artikulua jaso zituenak, polimedikazioaren eta hilkortasunaren arteko lotura aztertu zuen(86). Sartutako artikuluetarako zenbatespen taldekatuak aurkeztu ziren, sendagaien kopurua aldagai jarraitu gisa erabiliz, non erabilitako sendagai bakoitzeko 1,08ko *Odds Ratioa* (OR) aurkitu zuten. Gainera, polimedikazioa definitzeko hainbat

ebaketa-puntu erabiltzen zituzten artikuluetarako zenbatespen taldekatuak ere sartu zituzten, dosi-erantzun erlazio posible bat iradokiz, non mozketa-puntu altuago batek estimazio altuagoa eman zuen polimedikazioaren eta heriotzaren arteko loturarako. Hala ere, berrikuspen horretan ez zuten baztertu multimorbilitateak nahaste-faktore gisa izan zezakeen eginkizunaz, funtsean, polimedikazioaren eta hilkortasunaren arteko harremanean eragina izan zezakeena. Schöttker et al.(80) autoreek argitaratutako beste ikerketa batean, polimedikazioaren eta hilkortasunaren arteko lotura komorbilitatetik independentea izan ote zitekeen aztertu zuten. Kasu honetan, polimedikazioaren definizioa aldatu egin zen, eta baztertu egin ziren kontrako erreakzioak eta farmakoen arteko elkarrekintzak sortzeko joera nabarmenik ez zuten farmakoak. Lan horren emaitzek, hiperpolifarmazia hilkortasuna areagotzearekin lotuta egon zitekeela iradoki zuten, soilik, multimorbilitaterik ez zuten pertsonen kasuan.

1.5. Polimedikazioa bizitzaren amaieran

Aurrez deskribatu den bezala, adineko pertsonetan medikamentuak erabiltzeak arazo asko sortzen ditu zahartze-prozesuan gertatzen diren aldaketa fisiologikoen ondorioz. Gertaera hau paziente ahulenen kasuan da bereziki garrantzitsua, hala nola hauskortasun aurreratua, sindrome geriatrikoak, funtzionaltasunaren gainbehera, narriadura kognitiboa edo horren guztiaren elkarketa dutenak(87).

Izan ere, gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten paziente horietako asko bizitzaren amaierako fasean sartzen dira, eta zainketa aringarrien arreta integrala behar dute. Kasu horietan, polifarmazia, organo terminalaren gutxiegitasuna, komorbilitatea, nutrizio desegokia, kakexia eta gorputz-osaeraren aldaketak gehitu egiten dira, medikamentuekin lotutako hainbat arazo izateko arriskua handitzeko(88).

Sendagaien eraginkortasuna eta segurtasuna ebaluatzeko metodarik onena ausazkoak eta kontrolatuak diren entsegu klinikoetan ebaluatzea bada ere, bizi-pronostiko mugatua duten pertsonak azterketa horietatik kanpo geratzen dira sistematikoki(89). Horregatik, bizitzaren azken fasean dauden pertsonetan, gainontzeko pertsonetan lortu diren entseguetako emaitzak estrapolatuz gero, espero diren onurak baino arrisku handiagoko tratamenduak preskribatzea ekar dezake. Honela, medikuak azterlan deskribatzaileetan edo behaketa-azterketetan oinarritzen dira bizitzaren amaierako fasean farmakoterapiari buruzko erabakiak hartzeko(90). Oro har, gaixotasun terminalaren farmakoterapia ondo definituta eta ebidentzian oinarrituta dago, sintomen ikuspegi aringarri argiarekin; aitzitik, ez dago jarraibide argirik bizitzaren amaieran farmakoterapiak nolakoa izan behar duen zehazteko(91). Horregatik, O 'Mahony et al. (92)-k bizitzaren amaieran preskripzio-printzipio hauek adierazi zituzten:

- Orokorki, bizitza luzatzen duten medikamentuak ez dira egokiak.
- Lehen mailako prebentzioan erabiltzen diren medikamentuek, oro har, ez dute lekurik bizitzaren azken fasean dauden gaixoentzat, onura lortzeko denbora norberaren bizi-itxaropena baino handiagoa bait delako.

- Bigarren mailako prebentzioan erabiltzen diren medikamentuak arretaz aztertu behar dira, eta gaixoaren bizi-itxaropenaren barruan onura espero bada soilik agindu beharko lirateke.
- Oro har, bizitzaren amaieran dagoen paziente batek egunean 5 medikamentu baino gehiago kronikoki agintzea saihestu egin beharko litzateke. Egunean 6 medikamentu edo gehiago hartzeak kontrako erreakzioak izateko arriskua areagotzen du, baita tratamendua behar bezala ez betetzekoa ere.
- Helburu terapeutikoak definitzeak berebiziko garrantzia du, eta, oro har, farmakoterapia egokienera bideratzen du preskriptorea. Prozesu hori medikua eta pazientearen edota zaintzale nagusiaren artean eztabaidatu beharrekoa da.
- Bizitzaren amaieran dagoen adineko pertsonaren erregimen farmakologikoa optimizatzea prozesu dinamikoa da. Erregimen terapeutikoak hainbat aldaketa behar izan ditzake doikuntza eraginkorra lortu arte. Hainbat farmako amaitu behar direnean, banan-banan egitea gomendatzen da. Horrela, erretiratzearekin lotutako gertaera kaltegarriak errazago esleitu ahal izango dira, eta beharrezko jarrera zuzentzailea ezarri.
- Eguneko konprimitu eta dosi gutxiago kontsumitzeak helburu nagusi bat izan beharko luke erregimen terapeutikoaren berrikuspenean, adibidez; eguneko hartualdi bakarreko edo askapen sostengatua duten medikamentu aurkezpenak erabiliz.
- Garrantzitsua da pazientearen eta farmazialariaren artean harreman estua izatea, batez ere bizitzaren azken fasean dauden pertsonen agindutako sendagaien aurkezpenei dagokienez argibide zuzenak emateko. Farmazialariek pazienteekin eta/edo zaintzaileekin batera botiken erabilera kontu handiz berrikusten badute, terapia hobeto beteko da.

Hainbat azterlanek polimedikazioa bizitzako azken urtean dauden adineko pertsonetan nabarmen handitu dela erakutsi dute (93,94). Bizitza amaieran eta arreta aringarria behar duten pertsonen medikamentuen karga hori murrizteko, sarri onura eztabaidagarria dutenak, depreskripzioko interbentzioen onurari eta segurtasunari buruzko ebidentzia kliniko sendoa izatea beharrezkoa da(95). Era berean, depreskripzioaren arloko aurkikuntzak praktika klinikoko gidetan txertatu behar

direla iradoki da, medikamentu bat abiaraztearen onura-arriskuaren ebidentzia berria gida horietan txertatzen den bezala. Hala ere, bizitzaren azken fasean dauden pertsonak gaixotasun ibilbide eta sintoma edota lehentasun pertsonal desberdinetan taldekatuta daudenez, helburu asistentzialak nabarmen aldatzen dira pertsona batetik bestera. Praktika klinikorako etorkizuneko gidek erabaki pertsonalizatuak hartzea sustatu beharko dute, neurri bakarreko irizpide multzo baten arabera sendagaien etenaldi sistematikoa sustatu ordez.

1.6. Tratamendu farmakoterapeutikoaren egokitzapena bizitzaren amaieran

1.6.1. Definizioak eta terminologia

Medikazioaren berrikuspena honela definitzen da: paziente indibidual batentzat eginiko farmakoterapiaren ebaluazio sistematikoa da, non gomendio bat eginez edo zuzeneko aldaketa bat sartuz bere medikazioa optimizatzea helburu duena(96). 2003an, medikazioaren berrikuspenaren kontzeptuari lotuta, Australiako aldizkari batean agertu zen lehen aldiz depreskripzio terminoa (*deprescribing*, termino anglosaxoietik datorrena)(97). Hamarkada bat baino gehiago depreskripzioaren definizioa estandarizatu gabe egon ondoren, Reeve et al. (98)-ek berrikuspen sistematiko baten ondoren, sendagai desegoki bat erretiratzeko prozesu gisa definitzen dute, osasun-profesional batek gainbegiratua, polifarmazia kudeatzeko eta emaitzak hobetzeko helburuarekin. Depreskripzioa ez da medikazio desegokia kentzeko edo polimedikazioa murrizteko prozesu soiltzat hartzen, baizik eta sistematizatutako saiakera edo analisi arrazoitu batetik abiatuta, pertsona baten erregimen terapeutikoaren atzean ezkututzen diren paradoxak frogatzeko eta konpontzeko asmoz. Hala ere, autore batzuek kontzeptu zabalagoa erabiltzearen alde egiten dute, hala nola *tratamenduren optimizatzea edo egokitzapena*, non tratamendu farmakologiko osoaren helburuak, arazoak zein irtenbideak hobeto defini ditzaketela argudiatzen duten, soilik, medikamentuak kentzeari erreferentzia egitea baino(99). Gaineratzen dute, termino horiek modu positiboan adierazten direnez, profesionalek eta pazienteek errazago onartu ahalko litzuketela modu naturalean balioa ematea bilatzen duten esku-hartze gisa, depreskripzio terminoaren planteamendu negatiboaren aldean, horrek konnotazio ekonomizistak edo *ageistak* transmititu baititzake nahi gabe.

Medikamentuen egokitzapena erregimen terapeutikoan sendagaiak metatzen diren guztietan aplikatu beharko litzateke, eta baita aldaketa kliniko garrantzitsuen edo/eta pertsonak sendagaien aurrean duen pertzepzioa eta jarrera aldatzen duten bizi-egoeren aurrean ere(95). Horretarako, tratamendu farmakologiko bat hasten denean, pazienteari jarraipena egingo zaiola azaldu behar zaio, non eraginkorrak ez diren edo onartzen ez dituen tratamenduak aldatu edo eten egingo direla adieraziz. Horrela,

posible da pazientearen itxaropenak tratamenduaren hasieratik eztabaidatzea eta partekatzea.

Egokitzapen terapeutikoa eta depreskripzioa ez dira kontzeptu berriak. Azken urteotan hainbat gida eta tresna garatu dira onura kliniko zalantzagarrria duten sendagaiak identifikatu eta murrizteko, baina praktikan aplikazio mugatua izan dute. Depreskripzioaren oztopo nagusiak(95) honako hauek dira: inertzia (hautemandako hutsaltasuna edo sendagai bat eteteko kalte potentziala), preskriptorearen portaera (adibidez, beste preskriptore edo espezialista batzuek hasitako sendagaiak eteteari uko egitea) eta ezagutza- edo trebetasun-eskasia, bereziki prebentziorako sendagaiek multimorbilitatea duten adineko pertsonengan dituzten arriskuak eta onurak orekatzean. Oro har, bi modu daude desegokiak izan daitezkeen medikamentuen depreskripzioa burutzeko(100):

- “MOZKETA SELEKTIBOA” (irizpide esplizituen bidez): behin farmako edo talde terapeutiko bat persona kolektibo jakin batean erabiltzeko desegokia dela jakinda, paziente horiek guztiak banan-banan identifikatu, aztertu eta horren arabera artatu ahal izango dira. Horrelako esku-hartzeak baliagarriak izaten dira modu eraginkor batean beharrezkoak ez diren sendagaiak kentzeko, aldiz, ez dute pertsonaren testuinguru indibiduala eta soziofamiliarra kontutan hartzen. Bibliografian, desegokiak izan daitezkeen preskripzioen irizpide eta zerrenda ugari aurki ditzakegu; Beers Irizpideak(55), STOPP-START(57), PRISCUS(101), FORTA(102), ACOVE(103), IPET(104), CRIME(105), NORGEP(106), etab.
- “INAUSKETA” (irizpide implizituen bidez): metodo honen bitartez paziente jakin batengan bere erregimen terapeutikoa berraztertzen da, beharrezkoa ez dena etenez eta beharrezkoa dena banan-banan gehituz, pazientearen egoeraren eta bizi-itxaropenaren arabera. Beraz, depreskripzioaren kontzeptutik hurbilen dagoen taktika da. Erabakiak hartzea errazten duten algoritmoen erabileran oinarritu ohi da, premia-irizpideak (medikamentuaren indikazioa pazientearen behar klinikoekin eta osasun-arretaren helburuekin alderatuz) eta onura/arriskuaren balantzea kontuan hartzen dituelarik. Aldi berean, medikamentuak bere onurarako behar duen bizi-itxaropena eta

denbora ere kontuan hartzen da. Tresna ezagunenetako batzuk *Medication Appropriateness Index*(MAI)(107) edo *Good Palliative-Geriatric Practice Algorithm*(108) dira.

1.6.2. Bizitzaren amaierarako egokitzapen terapeutikorako tresnak

Egokitzapen terapeutikoa arreta medikuaren etapa guztietan inportantea bada ere, bereziki bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsona hauskorretan nabarmendu beharra dago. Thompson et al. (109)-ek egindako berrikuspen sistematiko batean, hiru tresna kategoria nagusi aztertu zituzten: 1) abordatze terapeutikorako eredu edo markoa, 2) medikamentu zerrenda osoaren depreskripzio-analisisa eta 3) Medikamentu espezifikoaren depreskripzio-gidak (ikus **1. Taula**).

Tresnen lehen kategorian, bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsonen medikazioari buruzko erabakiak hartzeko goi-mailako ereduak nabarmentzen dira. Tresna horiek kolektibo konkretu honetan medikamentuen erabilerari heltzeko modu bat deskribatzen dute. Adibidez, eruedetako batek, bizi itxaropena mugatuta daukaten pertsonetan medikamentuak erabiltzerako garaian kontuan hartu beharreko irizpide batzuk ezartzen zituen, hala nola; onura lortu arteko denbora, bizi-itxaropena, helburu terapeutikoak eta medikamentuek helburu hauek lortzeko benetako aukera(91). Antzera, beste ikertzaile talde batek pertsona ardatz duen preskripzio(PAP) eredu bat deskribatu zuen, bizitzaren amaieran dauden pertsonengan esku hartzeko(110,111). Eredu horrek balorazio geriatriko multidimentsionalaren oinarritzko printzipioetatik preskripzio farmakologikoa egokitzeko tresna berrietaraino jasotzen zuen, preskripzioa hauskortasun-maila desberdinak dituzten pazienteen beharretara egokitzeko gaitasuna erakutsiz.

Tresnen bigarren kategoriak bizitzaren amaieran desagokiak izan daitezkeen preskripzioak identifikatu eta lehenesten ditu. Tresna horiek medikamentu-talde batzuen onura/arriskua balantzea egiten dute, eta medikamentu batek pertsona bati arreta-helburua lortzen zenbat lagun diezaiokeen kontuan hartzen dute.

1. Taula. Bizitzaren amaierarako egokitzapen terapeutikorako tresnak.

Tresna	Intereseko biztanleria	Deskribapen laburra
Egokitzapen terapeutikorako esparru orokorra		
Holmes et al. (91)	Bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsonak	Bizi-itxaropen mugatua duten pertsonen medikamentuen despreskripzioan gidatzeko eredia
Molist et al.(112) <i>Pertsona Ardatz, duen Preskripzio (PAP) eredia</i>	Bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsonak	Farmakoterapia aztertzen duen eredia, medikamentuak kentzeko kontsiderazioak barne.
Medikamentu-zerrenda osoaren analisia		
Garfinkel et al.(108) <i>Geriatric Palliative algorithm</i>	Zaharren egoitzetan bizi eta gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonak	Medikamentu bat indikazioaren, segurtasunaren eta terapia alternatiboen arabera despreskriba daitekeen identifikatzeko algoritmoa
Lavan et al.(113) <i>STOPP Frail</i>	Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten eta bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsonak	Depreskripzioa burutzeko kontuan hartu behar diren medikamentuen irizpide eta osasun-baldintza espezifikoaren zerrenda; parametroak monitorizatzeko iradokizunak ematen ditu.
Rodriguez et al. (114) <i>Less-Chron</i>	Komorbilitate anitzeko adineko pertsonak, bereziki adineko pertsona hauskorrak.	Depreskripzioa burutzeko kontuan hartu behar diren medikamentuen irizpide eta osasun-baldintza espezifikoaren zerrenda; monitorizazio- eta jarraipen-gida bat ematen du.
Holmes et al.(115)	Dementia aurreratua duten pertsonak	Dementia aurreratua duten gaixoen depreskripzioa bideratzeko medikamentuen sailkapena; inoiz ez egokiak, gutxitan egokiak, batzuetan egokiak eta/edo beti egokiak.
McKean et al.(116)	Polimediakazioa duten adineko pertsonak, bereziki bizi-itxaropen mugatua duten pertsona hauskorrak	Erabakiak hartzen laguntzeko tresna, 5 urratseko depreskripzio-protokolo batean oinarritua
Pruskowski and Handler(117) <i>De-PHARM</i>	Bizi-itxaropen mugatua duten adinekoak, bereziki zaharren-egoitzetako erabiltzaileentzat	Depreskripzioa kontuan hartzeko medikamentuen zerrenda
Frank and Weir(118)	Adineko pertsonak, hauskorrei eta bizi-itxaropen mugatua dutenei buruzko berariazko lanketa dutenak	Medikamentuen zerrenda osoan depreskripzio-prozesua gidatzeko algoritmoa
Scott et al.(119)		10 urratseko eredia, medikamentuen zerrenda osoaren gaineko depreskripzio-prozesuari ekiteko.
Scott et al.(120)		5 urratseko eredia, medikamentuen zerrenda osoaren gaineko depreskripzio-prozesuari ekiteko.
Medikamentu espezifikoaren Depreskripzioa		
Palliative and Therapeutic Program (PATH) Guidelines(121–123) https://pathclinic.ca/	Adineko pertsona hauskorrak	Patologia espezifikoetarako gidak (hipertentsio arteriala, diabetes mellitusa), medikamentuak noiz despreskriba daitezkeen aholkatuz
Hipogluzemiatzaileen depreskripzioa(124) https://deprescribing.org/	Adineko pertsonak, oro har (persona hauskorrak eta/edo bizi-itxaropen mugatua dutenak berariaz eztabaidatzen dira)	Diabeteserako medikamentuen depreskripzioarako irizpideak eta gida
Azetilkolinesterasaren inhibitzaileen eta Memantinaren depreskripzioa(125) https://cdpc.sydney.edu.au/wp-content/uploads/2019/06/deprescribing-recommendations.pdf	Dementia duten adineko pertsonak (bizi-itxaropen mugatua dutenak, dementia aurreratua dutenak) modu espezifikoan eztabaidatzen dira	Dementziarako medikamentuen depreskripzioarako irizpideak eta gida.
Depreskripzioarako gida(126) https://www.primaryhealthtas.com.au/resources/deprescribing	Adineko pertsonak, oro har, baina adineko hauskorrak eta/edo bizi-itxaropen mugatua dutenak berariaz eztabaidatzen dira (ez ditu irizpide espezifikoak deskribatzen)	Medikamentuen gida espezifiko ugari aztertzen dituzte, (adib.: estatinak, bifosfonatoak), depreskripzio-jarraibide arrazionalak errazten dituztenak

Bigarren kategoriako tresnak baliagarriak dira zein medikamentu ken daitezkeen identifikatzeko, baina tresnen hirugarren kategoria izango da, banakako depreskripzioen xehetasunen berri emango duena.

Bizitzaren azken fasean dauden pertsonen medikazioa egokitzeko beste gai interesgarri bat pertsona horiek metatzen duten karga antikolinergikoaren gaineko ebaluazioa eta esku-hartzea da. Karga antikolinergikoa eta lasaigarria duten sendagaiak maiz erabiltzen dira bizitzaren amaieran dauden pertsonetan, bai komorbilitateak kontrolatzeko (adib.: gernu-inkontinentzia), bai azken etapa horretan ohikoak diren sintomak kontrolatzeko, hala nola mina, jariakinak eta antsietatea, besteak beste(127). Hala ere, sendagai horiek kontrako ondorioak eragin ditzakete maila periferikoan (idorreria, ikusmen lausoa, ahoko lehortasuna, gernu-erretentzioa, etab.) eta/edo maila zentrolean (narriadura kognitiboa eta funtzionala, zorabioa, sedazioa, eldarnioa), pertsona horien ongizatean eta bizi-kalitatean eraginez(128).

Azken urteotan hazi egin da pertsona batek bere farmakoterapiaren arabera jasotzen duen karga antikolinergikoa neurtzeko tresnen garapena(129) (ikus **2. Taula**). Oro har, eskala antikolinergikoak dira, eta potentzial antikolinergikoaren arabera sailkatzen diren sendagai-zerrenda gisa definitzen dira. Farmako bakoitzak bere aktibitate antikolinergikoaren arabera gero eta puntuazio handiagoa jasotzen du. Paziente baten karga eskalan sartutako farmako bakoitzaren puntuazioaren batura da, eta, emaitza horri esker, karga antikolinergikoarekin lotutako gertaera kaltegarriak izateko arrisku handiagoa edo txikiagoa zenbatetsi daiteke. Eskala horien diseinuan eta garapenean erabilitako metodologian antzematen diren desberdintasunak alderdi kritiko bat dira, horrela, tresna bakoitzean sartutako farmakoen arabera eta farmako bakoitzari ematen zaion potentzial antikolinergikoaren puntuazioaren arabera, emaitza ezberdinak emango baitira.

Arreta aringarria jasotzen zuten eta bizitzaren azken fasean zeuden pertsonekin egindako zenbait azterlanek agerian utzi zuten karga antikolinergiko handiko medikamentuen kontsumo handia zegoela, eta horien erabilera areagotu egiten zela heriotza hurbiltzen zen heinean(127,130). Bizitzaren amaieran arrisku antikolinergikoa aztertzea lagungarria izango da funtsezkoak ez diren

medikamentuak eteteko edo ondorio antikolinergiko txikiagoak dituzten medikamentuez ordezkatzeko.

2. Taula. Eskala antikolinergikoen ezaugarrien laburpena.

Eskala, Egilea, Urtea	Kalifikazio-sistema	Farmako antikolinergikoen kopurua
Duran, Duranet al.(131), 2013	0-2 puntu	100
Anthicholinergic Cognitive Burden Scale (ACBS), Boustani et al.(132), 2008	1-3 puntu	88
Anthicholinergic Drug Scale (ADS), Carnahan et al.(133), 2006	0-3 puntu	117
Anthicholinergic Risk Scale (ARS), Rudolph et al.(134), 2008	0-3 puntu	49
Clinician-Rated Anticholinergic Score (CRAS), Han et al.(135), 2008	0-3 puntu	60
Anthicholinergic Burden Classification (ABC), Ancelin et al.(136), 2006	0-3 puntu	27
Anthicholinergic Load Scale (ALS), Sittironnarit et al.(137), 2011	0-3 puntu	49
Anthicholinergic Activity Scale (AAS), Ehrt et al.(138), 2010	0-4 puntu	99
Drug Burden Index (DBI), Hilmer et al.(139), 2007		128

$$DBI = \frac{D}{D + \delta}$$

D: Eguneko dosia
 δ : Eguneko Dosi Minimoa
 0-1 puntu

1.6.3. Egokitzapen farmakoterapeutikorako ereduak osasun-emaitzetan dituzten efektuak.

Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten eta bizi-itxaropen mugatua duten adineko pertsonak sarri desegokiak izan daitezkeen preskripzioak eta polimedikazioa pairatzen dute. Gainera, ondo ezaguna da osasun-arloko emaitza kaltegarriekin duten lotura, hala nola; bizi-kalitatearen okertzearekin, medikamentuen kontrako erreakzioekin, erorketekin, ospitaleratzeekin, eta baita heriotzarekin ere(140–143). Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pertsonen detekzio goiztiarrak, farmakoterapia egokitzea erraztu dezakeela iradoki da, medikamentu hutsalak edo arazo gehien eragin ditzaketenak erretiratuz(111,112). Hala ere, ebidentziak adierazten duenez, bizitzaren amaieran dauden adineko pertsonak prebentziorako

medikamentuak kontsumitzen jarraitzen dute(93,94,144), sintomen kontrolari lehentasun handirik eman gabe.

Berriki egindako berrikuspen sistematiko bati esker, gaixotasun kroniko aurreratua dituzten eta/edo bizi-itxaropen mugatua duten pertsonen egokitzapen terapeutikoari buruzko azterlan nagusiak identifikatu ahal izan dira(145). Interbentzioaren eragina egokitasun farmakoterapeutikoari dagokionez neurtu zen nagusiki. Entsegu kliniko batek, aurre-ondoreneko azterketa aurre-esperimental batek eta aurre-ondoreneko behaketa-azterlan bik erabaki zuten egokitasuna. Entsegu klinikoak(146) STOPP irizpideak erabili zituen desegokiak izan zitezkeen preskripzioak neurtzeko, eta preskripzio horien % 35,7ko murrizketa nabarmendu zuten depreskripzioko interbentzioa egin eta 24 hilabetera, kontrol-taldean murrizketa % 13,5ekoa izan zen bitartean. Bestalde, aurre-ondoreneko azterketa aurre-esperimentalak(147) desegokiak izan zitezkeen preskripzioen % 73 erretiratu zutela erakutsi zuen, kasu honetan hiru analisi tresna erabilita (Beers irizpideak, STOPP irizpideak eta MAI irizpideak). Era berean, behaketa-azterketetako batek MAI tresnaren arabera indikaziorik gabeko medikamentuak % 34,9n murriztu zirela ikusi zuen, ospitaleratzean egindako esku-hartze baten ondoren(148). Beste behaketa-azterketak(149) subjektuen arrisku handiko medikamentuen % 17,2 erretiratu eta % 2,6an dosia doitu zela erakutsi zuen; hala ere, aurkitutako aldeak ez ziren esanguratsuak izan.

Era berean, berrikuspen sistematiko horretan bertan(145), medikamentuen erabilerari, osasuneko emaitzei eta kostuari lotutako bigarren mailako beste emaitza batzuk aztertu ziren:

- **Medikamentu kopurua eta/edo polimedikazioa:** berrikusitako zazpi azterlanetan medikamentuen kopuru aldaketa eta/edo polimedikazioa(110,146–151) ebaluatu ziren . Horietako bi entsegu kliniko ausazkoak eta kontrolatuak izan ziren(146,150), eta medikamentuen batez besteko kopurua nabarmen murriztu zen 12 hilabeteko jarraipenean interbentzio taldean ($8,8 \pm 3,4$ tik $7,3 \pm 2,7$ ra; $9,6 \pm 5,0$ tik $7,7 \pm 4,1$ era) kontrol-taldearekin alderatuta ($8,2 \pm 3,0$ tik $8,9 \pm 3,2$ ra; $9,5 \pm 3,6$ tik $9,6 \pm$

3,5era). Aurre-ondorengo behaketa-azterlan batek medikamentuen murrizketa nabarmena ekarri zuen, interbentzioaren aurretiko 7,3tik interbentzio osteko 4,8ra(110). Gainerako lau azterketek (147–149,151) beherakada (12,0tik 9,0ra; 9,6tik 9,3ra; 9,7tik 8,9ra, hurrenez hurren), edo igoera ($7,7 \pm 3,7$ tik $9,5 \pm 3,6$ ra) ekarri zuten medikamentuen kopuruan, kasu hauetan, analisi estatistikorik argitu gabe.

- **Farmakoen arteko elkarrekintzak:** aurre-ondoreneko azterketa auresperimentalak, polimedikazioak eta desegokiak izan zitezkeen preskripzioek 16 gaixotan eragin zituzten sintoma eta aurkako eraginak, interbentzioaren ostean murriztu zitezkeela erakutsi zuten(147).
- **Heriotza-tasa:** ausazko bi entsegu kliniko(150,152) eta azterlan kuasi-esperimental batek(108) heriotza-tasa eta biziraupenari buruzko datuak aztertu zituzten. Entsegu klinikoek aldaketak ekarri zituzten heriotza-tasan, eta ez zen alde nabarmenik aurkitu aldagai horretarako interbentzio taldearen eta kontrol-taldearen artean, ez 60 egunera (% 23,8 interbentzio taldea vs % 20,3 kontrol-taldea)(152), ez eta azterlanaren segimendua egin eta 12 hilabetera ere (% 26,0 interbentzio taldea vs % 40,0 kontrol-taldea) (150). Azterketa kuasi-esperimentalak heriotza-tasaren beherakada nabarmena ekarri zuen 12 hilabetera (% 21,0 interbentzio taldea vs % 45 kontrol-taldea) (108).
- **Bizi-kalitatea:** bizi-kalitatea ausazko eta kontrolatutako bi entsegu klinikotan neurtu zen; batean, dementzia-gaixotasunaren ibilbidea zen nagusi(150), eta, bestean aldiz, minbizia (152). Lehenengoan(150), ez zen alde esanguratsurik aurkitu interbentzio taldearen eta kontrol taldearen artean, ezta adinaren, sexuaren eta medikamentu kronikoen kopuruaren arabera doitu ondoren ere. Hala ere, beste azterlanak estatistikoki esanguratsua izan zen bizi-kalitatearen balioa handiagoa zela erakutsi zuten estatinarekin tratamendua eten zutenen artean, kontrol-taldearekin alderatuta baino(152).
- **Erorketak:** ausazko eta kontrolatutako bi entsegu klinikok(146,150), erorketa-kopuruan interbentzio ezberdinek izan zuten eragina aztertu zuten. Ikerketa batek interbentzio taldean 12 hilabeteko jarraipena egin ondoren

beherakada nabarmena izan zela adierazi zuen ($1,3 \pm 2,4$ tik $0,8 \pm 1,3$ ra), kontrol taldean nabarmendu ez zena ($1,4 \pm 2,5$ etik $1,3 \pm 2,4$ ra) (146). Erorketen eta prebalentziaren batez bestekoa ez zen oso desberdina izan taldeen artean azterlana hasi eta 12 zein 24 hilabeteetara. Hala ere, beherakada nabarmena izan zen erorketen batez besteko kopuruan, egoera basala 24 hilabeteko jarraipen-aldiarekin alderatu zutenean, bai interbentzio taldean ($1,4 \pm 2,5$ eta $0,9 \pm 1,4$), bai kontrol taldean ($1,4 \pm 2,6$ eta $0,7 \pm 1,4$) ere. Beste azterlanean, interbentzio taldearen eta kontrol taldearen arteko erorketen proportzioa ez zen nabarmen desberdina izan ($0,6$ vs $0,7$) 12 hilabeteko jarraipen-aldian (150).

- **Beste emaitza kliniko batzuk:** ausazko entsegu kliniko kontrolatu batek ez zuen alde nabarmenik aurkitu loaren kalitatean, heste-funtzioan, funtzio kognitiboan, funtzio fisikoan eta osasun-egoera orokorrean interbentzio taldearen eta kontrol-taldearen artean (150). Beste entsegu kliniko kontrolatu eta ausazkoak (152) ez zuen estatistikoki alde nabarmenik topatu 12 hilabeteetara ez interbentzio taldean ezta kontrol taldean ere, forma-egoera eta sintomen egoerari dagokienez.
- **Kostuarekin lotutako emaitzak:** *Kostu globala;* ausazko entsegu kliniko kontrolatu batek eragin handia izan zuen interbentzio taldearen eta kontrol-taldearen arteko kostuan, 12 eta 24 hilabetera (146). *Medikazioaren kostua:* aleatorizatutako beste entsegu kliniko kontrolatu batek 3,37\$ US aurreztu zituen eguneko, estatinarekin tratamendua depreskribatu eta gero (152). *Osasun-gastua:* AEBn egindako azterketa aurre-esperimental batek iradoki zuen interbentzioaren ondoren osasun-gastuan 4282,27 \$US gutxiagotu zitekeela pertsona bakoitzeko (147).

Azken batean, egindako hainbat azterlanen emaitzen berrikuspenek, bizitzaren amaieran depreskripzio interbentzioek pertsonen egokitzapen farmakoterapeutikoa hobetu egin dezaketela iradokitzen dute. Ezagutzen diren interbentzioak guztiz homogeneoak izan ez arren, farmakoterapiaren egokitzapenek heriotza-tasan hobekuntza potentziala eta osasun-gastuan aurrezpen ekonomikoa ekarri dutela egiaztatu dute, aldiz, bizi-kalitatean eta erorketetan izan duten eragina ez da guztiz

argi gelditu. Ikerketa-lerro hau irekita mantentzeak, depreskripzio eta tratamendu farmakologikoaren egokitzapen interbentzioek bizitzaren amaieran duten inpaktu kliniko kontrastatzeko balio ahal izango du, hala nola, funtzio fisiko, kognitibo eta psikosozialean zein osasun-baliabideen erabilera egokian ere.

1.7. Ikerketaren zergatia

Biztanleriaren zahartzearen fenomeno dela eta, etorkizuneko proiektioek hurrengo hamarkadetan arreta aringarria behar duten pertsonak nabarmen ugazituko direla adierazten dute, multimorbilitate eta kronikotasun aurreratuaren prozesuen ondorioz. Pertsona horien arreta gero eta konplexuagoa da, profil oso heterogeneoak dituzte eta askotariko premia, balore, lehentasun eta helburu terapeutikoak dituzte.

Zahartze eta kronikotasun fenomeno horiei lotuta, polimedikazioak eta egokitzapen terapeutiko eskasak lehen mailako osasun publikoko arazo bat sortu dute adineko pertsonetan, batez ere hauskortasun aurreratua duten eta bizitzaren amaieran dauden pertsonengan. Hori dela eta, beharrezkoa da pertsona ardatz duen arreta-eredu batera hurbiltzeko estrategia berriak ezartzea, era segregatuta funtzionatzen duten zerbitzu-medikoen arreta alde batera utzita, azken honek, gaur egungo medikuntza desegokitua, deskoordinatua eta eraginkortasun gutxikoa ekarri baituelako. Literatura zientifikoak bizitzaren amaieran tratamendu farmakologikoa egokitzeko eredu teoriko berriak iradokitzen baditu ere, ebidentziak bizitzako azken urtean farmakoterapiak gora egiten duela adierazten du, medikamentu hutsalen eta/edo potentzialki desegokiak direnekin batera.

Jarraian, Donostiako Matia Fundazioaren Ricardo Bermingham Ospitaleko Eriondo Geriatrikoko Unitatean egindako ikerketa-lan bat aurkezten da. Unitate honetan, batez ere, Euskadiko Osasun Sareko akutuen ospitale batetik lekualdatzen diren pazienteak artatzen dira, ospitaleratzea eragin zuen gaixotasunaren egonkortze klinikoa lortzeko.

Batzuetan, unitate honetan ospitaleratutako pertsonak gaixotasun kroniko aurreratuaren irizpideren bat betetzen dute, eta bizitzaren amaiera faseko arreta aringarri goiztiarra jaso dezaketen pertsona gisa identifikatzen dira. Bizi-pronostiko mugatua duten adineko pertsonen identifikazio hori funtsezko urratsa da bizitzaren amaierako zaintzetara egokitzeko, ikuspegi indibidualizatua eta paziente bakoitzaren neurrikoa egin ahal izateko. Horregatik, PAP eredu bat aplikatzea pertsona baten asistentzia-helburuetara egokitzen den tresna baliagarria izan daiteke, balorazio geriatriko integralaren balorazio multidimentsionalaren oinarrizko printzipioetatik hasi eta

potentzialki desegokiak diren preskripzioak detektatzeko tresna berrietaraino iristen baita. Honela, interes berezia izango dute despreskripzio eta/edo desintensifikazio terapeutikoko estrategiek, medikamentuen iatrogeniak eragin ditzakeen kalteak gutxitzeko asmotan. Azken batean, eredu berri honen aplikazioaren helburua, patologia bakoitzean zentratutako praktika klinikorako giden atxikimendu zorrotza alde batera utzirik, bizitzaren amaieran dauden pertsonen gaixotasunaren kontrol sintomatikoa eta bizi-kalitatearen hobekuntza bermatzea izango da.

Hurrengo azterlanak PAP eredu batek bizitzaren amaieran ospitaleratutako pertsonetan adierazle farmakoterapeutikoen hobekuntzan duen eraginkortasuna ebaluatuko du, eta honen bitartez, bere erabilera baliozkotu. Era berean, aukera emango du haren aplikazioak osasun-eremuetan hobetzen dituen ikusteko, artatutako pazienteen alta ondorenean ospitaleko larrialdi-zerbitzura egindako bisita berriak aztertuko baitira.

Azterlan honetatik lortutako emaitzei esker, ospitale eremuan arreta farmazeutikoa burutzeko protokolo klinikoak optimizatu ahal izango dira, eta etorkizunean, beste zenbait esparrutara ere zabaltzea espero da, hala nola, bizitzaren amaieran komunitatean edo zentro soziosanitarioetan bizi diren pertsonetan.

HELBURUAK

OBJETIVOS

2. HELBURUAK

2.1. Helburu nagusia

Pertsona ardatz duen preskripzio (PAP) eredu bat aplikatzeak bizitzaren amaierako fasean ospitaleratutako paziente geriatrikoen egokitzapen farmakoterapeutikoaren irizpide nagusietan duen eragina ebaluatzea.

2.2. Helburu zehatzak

Bizitzaren amaierako fasean ospitaleratutako paziente geriatrikoen ezaugarri soziodemografikoak eta klinikoak deskribatzea.

Ezaugarri farmakoterapeutikoak deskribatzea eta bizitzaren amaieran hiperpolimedikazioa eta egokitzapen terapeutiko eskasa duten pazienteei lotutako arrisku-faktoreak identifikatzea.

PAP eredu bat aplikatzeak egokitasun farmakoterapeutikoaren aldagai nagusietan duen eragina ebaluatzea, hala nola; medikamentu kronikoen kopuruan, *Medication Appropriateness Index*-ean (MAI), *STOPP Frail* irizpideetan, *Anthicholinergic Risk Scale*-ean (ARS), *Drug Burden Index*-ean (DBI), farmakoen arteko elkarrekintza kopuruan, eta *Medication Regimen Complexity Index*-ean (MRCIe).

PAP ereduak, ospitaleko alta eman ondorengo aldian, aldagai farmakoterapeutikoetan eta ospitaleko larrialdietara egindako bisitetan duen eragina aztertzea, bai kontrol zein interbentzio taldeetan.

METODOLOGIA
METODOLOGÍA

3. METODOLOGIA

3.1. Ikerketa zentroaren agertokia

Donostiako Matia Fundazioko Ricardo Bermingham Ospitalea egonaldi ertaineko ospitalea da, 105 ohetarako gaitasuna duena. Kirurgikoak ez diren patologiak artatzen ditu, batez ere kronikoak, hala nola; patologia neurologikoak eta traumatologikoak errehabilitatzeko programetan, sintoma psikologikoak eta/edo jokabide-sintomak egonkortzeko programetan eta eriondo zein zaintza aringarrien unitateetan.

Ospitaleko Farmazia Zerbitzuak, ospitaleratutako pazienteei eta Matia Fundazioko zentro soziosanitarioetan instituzionalizatuta dauden pertsoneri arreta farmazeutikoa ematea du helburu. Zerbitzu honek, artatutako biztanlerian medikamentuak modu seguru eta arrazionalen erabiltzearen alde aktiboki lan egiten du, eta zentro ezberdinetan ingresatutako pazienteen konplexutasun terapeutikoa aztertzeari lotuta, gehienak polimedikatuak, interbentzio ezberdinak planteatzen ditu. Aldi berean, etengabeko formakuntza-plan bat eskaintzen die geriatriako mediku espezialistei eta egoitza-zentroetako medikuei, dela kasu klinikoen saio praktikoen formatuan, non pertsona ardatz duen egokitzapen farmakoterapeutikoa planteatzen den, dela terapia farmakologikoarekin lotutako gaiei buruzko saio bibliografikoen bidez.

Proiektu honen bitartez bizitzaren amaierako fasean gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pertsoneri lotutako arreta farmazeutikoaren arloan ikertu nahi da, eta terapia farmakologikoa paziente horien benetako asistentzia-helburuetara egokitzeko protokoloak garatzeko beharrean datza, bai eta polimedikazioaren ondorioak eta medikamentuen erabilera desegokia sakonago ezagutzeko premian ere.

3.2. Ikerketaren ezaugarriak eta partaideen hautaketa

Interbentzio ikerketa prospektiboa, kontrolatua eta ausazkoa.

Erreklutamendu-fasea 2018ko otsailean hasi eta 2020ko otsailean amaitu zen. 114 paziente erregistratu ziren, 57 kontrol-taldekoak eta beste horrenbeste interbentzio-taldekoak.

3.2.1. Sartze-irizpideak

- Ricardo Bermingham Ospitaleko Eriondo Geriatrikoko Unitatean ospitaleratuko pazienteak izatea, eta NECPAL CCOMS-ICO©(28) tresnaren arabera zainketa aringarriak behar zituzten 65 urtetik gorako pazienteak izatea. Paziente horiek Euskadiko Osasun Sareko ospitaleren batetik edo lehen mailako arretako ospitaleratze planifikaturen batetik ingresatu zuten.

3.2.2. Baztertze-irizpideak

- Gaixotasun kroniko onkologiko aurreratuak zituzten pazienteak.
- Eriondoko Geriatria Unitatean berehalako terminalitate-egoeran zeuden pazienteak.
- 72 orduetik beherako egonaldia zuten pazienteak.

3.2.3. Ausazkotzea

Laginaren ausazkotze estratifikatua egin zen, eta interbentzio-taldeko eta kontrol-taldeko subjektuak Eriondo Unitateko bi mediku geriatriari esleitu zitzaizkien. Pazientea ospitaleratzten zen ospitaleko ohearen arabera, mediku bati edo besteari esleitzen zitzaion. Indibidualki mediku bakoitzarentzat, erreklutamendu-hurrenkera hertsia jarraituz, txandakatu egin zen kontrol-taldeko edo interbentzio-taldeko kide izatea. Interbentzio-taldeak PAP erdua jaso zuen, eta kontrol-taldeak aldiz, ohiko arreta farmazeutikoa.

3.3. Interbentzioaren deskribapena eta datu-bilketa

Ricardo Bermingham Ospitalean ospitaleratu ondorengo lehen 72 orduetan pazientearen edo legezko ordezkariaren baimen informatua jaso zen subjektu bakoitzaren ikerketa hasi aurretik. Azterlanean parte hartzea onartu zutenetan, pazientearen oinarrizko ezaugarriak, ezaugarri soziodemografikoak eta klinikoak erregistratu ziren, R. Bermingham Ospitaleko Historia Kliniko Informatizatutik (HKI) eta *Osabide Integra*, Osasun Saileko HKI bateratutik abiatuta. Era berean, paziente bakoitzarentzat Osakidetzaren preskripzio elektronikoko *Presbide*

moduluko Tratamendu Aktiboko Orriaren (TAO) arabera aztertutako aldagai farmakoterapeutikoei buruzko informazioa erregistratu zen.

Azterlanean parte hartu zuten farmazialari eta mediku geriatrek, NECPAL CCOMS-ICO© tresnaren bidez bizitzaren amaierako fasean identifikatutako pazienteengan, tratamendu farmakologikoa egokitzeko interbentzio bat diseinatu zuten, ondoren zehazten den PAP eredu batean oinarrituta.

3.3.1. Interbentzioaren deskribapena

- **Ospitaleratze momentuko medikazioaren kontziliazioa.** Farmazialariak, ospitaleratzean, preskripzio elektronikoari zegokion TAOko medikamentuen zerrenda osoa ebaluatu zuen, eta pazienteak ospitale batetik lekualdatzen bazen, ospitaleko altaren txostenean agindutako tratamendua. R. Bermingham ospitalean ingesatzerakoan agindutako medikazioarekin alderatu zen, eta desadostasunik egonez gero, medikuari jakinarazi zizkion, konpon zitzan.
- **Pazienteari egindako elkarrizketa pertsonala** (edo zaintzaile nagusiari, gaitasun kognitiboa mugatua izan ezker). Farmazialariak pazienteari eta/edo zaintzaile nagusiari galdeketa sistematizatu baten bitartez onako informazio jaso zuen; TAOan agindutako medikamentu bakoitzaren atxikitze maila, mediku-preskripziorik behar ez zuen medikamentuen eta/edo sendabelarren kontsumoa, medikamentuei loturiko alergia edo intolerantziak, medikamentuak hartzeko autonomia eta dosifikazio-sistema pertsonalizatuaren (SPD) erabilpena. Era berean, *Edmonton Symptom Assessment System* (ESASr)(153) galdetegiaren bitartez, ospitaleratu aurreko oinarritzko egoerarekiko sintoma nagusien kontrol-maila ezagutu zen. Galdetegia betetzea ezinezkoa zen pazienteetan, zaintzaile nagusiak bete zuen.
- **Diagnostikoan zentratutako balorazioa.** R. Bermingham Ospitaleko eta Osabide Integrako HKIn jasotako diagnostikoak identifikatu ziren, eta horiei loturiko medikamenturen bat preskribatuta zegoen aztertu zen, pertsonaren bizi-egoeraren arabera praktika klinikoko gidaren aplikagarritasuna ebaluatuz. Lotutako osasun-arazorik ez zuen medikamenturen aurkituko balitz, plan

terapeutiko indibidualizatuaren proposamenean despreskripzio-estrategia bat planteatzeko adierazgarria izango litzateke.

- **Farmakoan zentratutako balorazioa.** Balorazio honen bitartez polimedikazioa aztertu zen, bai irizpide kuantitatiboen arabera, medikamentu kronikoen kontsumo kopurua kontuan hartuta, bai irizpide kualitatiboen arabera, ondoren zehazten diren irizpideen bidez. Tratamendu farmakologikoaren azterketa egituratu bat egin zen MAI(107) indizearen bidez, medikazioak pazientearen bizi-egoeran zuen eragina optimizatzen. Era berean, STOPP *Frail*(113) irizpide esplizituz baliatuz, bizi-itxaropen mugatua zuten adineko hauskorretan desegokiak izan zitezkeen preskripzioak detektatu ziren. Halaber, *Anticholinergic Risk Scale* (ARS)(134) eta *Drug Burden Index* (DBI)(139) tresnen bidez, farmakoterapiaren karga antikolinergikoa eta karga antikolinergiko-lasaigarria aztertu ziren, hurrenez hurren. Farmakoen arteko interakzioak ere aztertu ziren, BotPlus datu-basearen arabera(154). Azkenik, *Medication Regimen Complexity Index* (MRCIe) indizearen espainiar bertsioaren bidez(155), erregimen terapeutikoen konplexutasuna ebaluatu zen.
- **Plan Terapeutiko Indibidualizatuaren proposamena Mediku Geriatrari.** Farmazialariak plan terapeutiko indibidualizatu berri bat planteatu zion mediku geriatra arduradunari, detektatutako irizpide desegokiak azpimarratuz (MAI, STOPP *Frail*, ARS, DBI, farmakoen arteko interakzioak), eta preskripzio medikoaren konplexutasun terapeutikoari (MRCIe) ere so eginez. Kasu bakoitza eztabaidatu eta arreta-helburuekin bat zetorren plan terapeutiko berri bat erabaki zen.
- **Plan Terapeutiko Indibidualizatuaren adostasuna.** Plan farmakoterapeutiko indibidualizatu aldaketarik egin aurretik, paziente eta/edo zaintzaile nagusiarekin komunikatu eta adostu zen.
- **Medikamentuen egokitzapenaren/depreskripzioaren arrazoia, prozesua eta emaitzak dokumentatzea** (adib.: kendutako medikamentuak, dosi murrizteak, medikamentuak erretiratzean huts egindako saiakerak).

Farmazialariak Bermingham Ospitaleko Historia Klinikoaren ebolutiboan plan terapeutiko indibidualizatu berriaren proposamena dokumentatu zuen.

- **Ospitaleko alta txostena eta TAOren eguneratzea.** Mediku geriatrak ospitaleko alta-txostenean bai hasitako, aldatutako eta erretiratutako medikamentuak zein medikamentua kentzeko egindako saiakerak zehaztu zituen. Era berean, pazientearen preskripzio elektronikoaren TAO eguneratu zuen, eta kopia bat eman zion pazienteari eta/edo zaintzaile nagusiari ospitaleko alta hartzean.

3.3.2. Kontrol-taldean jardutea

Kontrol taldeko pazienteek, ikerketa hasi aurretik R. Bermingham Ospitalean egin ohi zen arreta farmazeutikoa jaso zuten. Ospitaleratzean medikazioa kontziliatzea eta preskribatutako tratamenduak baliozkotzea bezalako zereginak jasotzen zituen. Indikazioari, dosiei, bikoiztasunei, medikamentuak emateko moduari, tratamenduen iraupenari eta aldez aurreko alergia historia zuten sendagaien preskripzioei loturiko desadostasunak identifikatu eta zuzentzen ziren. Kontrol-taldean, interbentzio taldearentzako azterketa-aldagai berberak jaso ziren.

3.4. Interbentzio ondoreneko jarraipena

Ospitaleko alta egunean, berriro ere datu farmakoterapeutikoak erregistratu ziren, preskripzio elektronikoaren TAOren arabera; sendagai kronikoen kopurua eta egokitasun eta konplexutasun terapeutikoaren indizeak (MAI, STOPP Frail irizpideak, ARS, DBI, farmakoen arteko interakzio kopurua eta MRCIe) jaso ziren.

Era berean, Osabide Integra HKIren eta Presbideko TAOren bidez, pazienteari ospitalean alta eman eta hilabete, 3 hilabetetara, 6 hilabetetara eta 12 hilabetetara medikamentu kronikoen kopuruari buruzko datuak, STOPP Frail irizpideak, ARS, DBI, farmakoen arteko interakzioak eta MRCIe irizpideak, berriz erregistratu ziren. Jarraipen-aldi honetan ez zen MAI indizea baloratu, tresna hauek aplikatzeko beharrezkoa baitzen paziente eta/edo zaintzaile nagusiari buruzko informazioa lehen eskutik izatea. Aldi horietan bertan, ospitaleko-larrialdietara egindako bisiten

kopurua aztertu zen, bai eta R. Bermingham ospitalean alta eman ondoren ospitale-larrialdietara lehen bisita egin arteko denbora ere.

Azterketa, erreklutatutako pazienteei ospitaleko alta eman eta 12 hilabetera amaitu zen.

3.5. Aztertutako aldagaiak

3.5.1. Aldagai independenteak

- **Demografikoak eta sozialak**

- **Adina:** urtetan.
- **Sexua:** gizona, emakumea.
- **Egoera zibila:** ezkongabea, ezkondua, banandua, dibortziatua, alarguna.
- **Bizikidetzak:** bakarrik, ezkontidea edo bikotekidea, seme-alabak, ezkontidea eta seme-alabak, beste senide bat, zaintzailea, adinekoen egoitza, beste batzuk.
- **Banakako Osasun Txartelaren (TSI) arabera errenta:** TSI 001-gutxieneko errentak, TSI 002/01- <18.000€ errentak, TSI 002/02-100.000€< errentak \geq 18.000€, TSI 005/03- \geq 100.000€ errentak.
- **Gijon Balorazio Soziodinamikoaren Eskala(156)(Ikus 2. Eranskina),** adinekoen gizarte-arriskua detektatzeko erabilia. 3 tarte ezarri ziren: 5-9 puntu balorazio normala edo arrisku sozial txikia, 10-15 puntu erdi-mailako arrisku soziala, 15 puntu arrisku sozial handia edo arazo soziala.
- **Jatorrizko zentroa:** Donostiako Ospitale Unibertsitarioa, Zumarragako Ospitalea, Mendaroko Ospitalea, Arabako Unibertsitate Ospitalea, Adinekoen egoitza, Lehen mailako arreta.
- **Jatorrizko zerbitzua:** bideratze-zerbitzu medikoa erregistratu zen.

- **Aldagai klinikoak**

- NECPAL CCOMS-ICO©(28) tresna (Ikus 1. Eranskina). Gaixotasun kroniko aurreratua duten pertsonak eta osasun- eta gizarte-zerbitzuetan arreta aringarria behar duten pertsonak identifikatzeko tresna da. NECPAL CCOMS-ICO tresnak lau adierazle-kategoria ditu: 1. blokea) ezusteko galdera (harrizko al zinateke pazienteak hurrengo 12 hilabeteetan

hilko balitz?), 2. blokea) zainketa aringarrien aukeraketa/eskaria edo beharra aztertzea, 3. blokea) laztasun eta progresioaren adierazle kliniko orokorrak, 4. blokea) patologien laztasun eta progresioaren adierazle kliniko espezifikoak. Ezusteko galdera positiboa ("ez" erantzuna) eta, gutxienez, ezarritako irizpideen arabera beste bloke positibo bat (2, 3 edo 4) zuen edozein pertsona, paziente NECPAL (+) gisa hartu zen. Identifikazio hori pazientearen arduradun zen mediku geriatrak egin zuen. NECPAL CCOMS-ICO© tresnan oinarrituta eta gaixotasun aurreratuaren eboluzio-patroiaren arabera, bizitzaren amaieran hainbat ibilbide definitu ziren;

1. ibilbidea: Hauskortasun eta/edo Dementzia eta/edo Gaixotasun Neurologiko Aurreratuak. NECPAL CCOMS-ICO© tresnaren honako irizpide hauek betetzen zituzten: 2. Bloke (+) eta/edo 3. Bloke (+) eta/edo Gaixotasun neurologiko aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+) eta/edo Dementzia aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+)

2. ibilbidea: Gutxiegitasun Organikoaren Gaixotasun Aurreratua (arnas-aparatukoa, bihotzekoa, gibelkoa, giltzurrunekoa). NECPAL CCOMS-ICO© tresnaren honako irizpide hauek betetzen zituzten: Arnas-aparatuko gaixotasun aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+) eta/edo Bihotzeko gaixotasun aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+) eta/edo Gibelesko gaixotasun aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+) eta/edo Giltzurruneko gaixotasun aurreratua neurtzen zuen 4. Bloke (+).

Ibilbidea 3: Mistoa. 1. Ibilbideko eta 2. Ibilbideko irizpideren bat betetzen zuten.

- **Azken urtean izandako ospitaleratzeen kopurua.**
- **Aurretiazko Ospitaleko Egonaldia.** Ospitaleko alta data - Ospitaleratze data.
- **Charlsonen komorbilitate-indizea(157)** (Ikus **3. Eranskina**). Pazientearen HKIan erregistratutako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapeneko (GNS) diagnostiko-kodeen arabera, pazienteen

komorbilitateak sailkatzeko metodo hau erabili zen. Komorbilitate-kategoria bakoitzak pisu espezifiko bat zuen (1etik 6ra), hilkortasun-arriskuaz doitua edo baliabideen erabileran oinarrituta, eta pisu guztien baturak komorbilitate-puntuazio bakarra eman zion paziente bakoitzari. Hiru tarte ezarri ziren: 0-1 puntu komorbilitaterik eza, 2 puntu komorbilitate baxua, ≥ 3 puntu komorbilitate altua.

- **Charlsonen komorbilitate-indizea, adinaren arabera doitua**(158) (Ikus **3. Eranskina**) (158). Metodo honen bidez ere komorbilitateak sailkatu ziren, eta gaixotasun bakoitzerako jatorrizko indizearen pisu berdina kontuan hartu zen. Puntu bat gehitu zen 50 urtetik aurrerako hamarkada bakoitzeko; 50-59 urte bitartekoek puntu 1; 60-69 urte bitartekoek 2 puntu; 70-79 urte bitartekoek 3 puntu; 80-89 urte bitartekoek 4 puntu; 90-99 urte bitartekoek 5 puntu.
- **Barthel Indizea**(159), tresna honen bidez pertsona batek eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera nagusiak egiteko zuen gaitasuna neurtu zen. 5 tarte ezarri ziren; 80-100 puntu Independentea, 56-79 puntu dependentzia arina, 36-55 puntu erdi-mailako dependentzia, 20-35 puntu dependentzia larria, 0-19 puntu dependentzia osoa.
- **Balorazio Integral Geriatrikoan Oinarritutako Hauskortasun Indizea(IF-VIG)**(160)(Ikus **4. Eranskina**). Defizitak metatzeko eremuan oinarrituta, IF-VIGari esker, aldagai jarraitu batekin (hauskortasun ezatik hauskortasun-egoera aurreratura kuantifikatzen duena), pertsonen hauskortasun-maila eta, beraz, adin biologikoa neurtzeko aukera izan zen. IF-VIG kalkulua pazientearen aurretiko egoera basalaren arabera egin zen, ospitaleratzea eragin zuen prozesu klinikoa hasi baino hilabete lehenagokoa. Horrela, azken emaitzan pazienteen ospitaleratzea eragin zuten tarteko prozesuen interferentzia saihestu zen. 3 tarte ezarri ziren; hauskortasun arina 0,2-0,35 puntu, 0,36-0,50 puntu erdi-mailako hauskortasuna, $>0,50$ puntu hauskortasun aurreratua edo larria. Era berean, IF-VIGaren zenbait itemetarako aldagai berriak sortu ziren, honako hauek jaso zirelarik:
- **Dirua erabiltzeko dependentzia:** ez, bai.

- **Telefonia erabiltzeko dependentzia:** ez, bai.
- **Medikazioaren kontrolaren dependentzia:** ez, bai.
- **Malnutrizioa:** ez, bai. Azken 6 hilabeteetan pisuaren % ≥ 5 galdu zuen aztertu zen.
- **Egoera kognitiboa:** narriadura kognitibo eza *Global Deterioration Scale*(GDS)-ren(161) arabera 0-1 puntu, narriadura kognitibo arina edo erdi mailakoa GDS 2-5 puntu, narriadura kognitibo larria edo oso larria GDS ≥ 6 puntu.
- **Sindrome depresiboa:** ez, bai. Azterketaren unean depresioaren aurkako medikazioa behar ote zuen aztertu zen.
- **Insomnia/Antsieta:** ez, bai. Analisiaren unean insomnia edo antsieta tratatzeko ohiko tratamendu gisa benzodiazepinak edo beste psikofarmako batzuk behar zituen aztertu zen.
- **Gizarte-kalteberatasuna:** ez, bai. Gizarte-kalteberatasunaren pertzepziorik ba ote zegoen aztertu zen.
- **Eldarnioa:** ez, bai. Azken 6 hilabeteetan eldarnioa eta/edo portaera arazoak medio neuroleptikoen beharra izan zuten aztertu zen.
- **Erortzeak:** ez, bai. Azken 6 hilabeteetan ≥ 2 eroriko edo ospitaleratzea eragin zuen erorketaren bat izan zuten aztertu zen.
- **Presio Ultzerak:** ez, bai. Edozein mailako ultzerarik zeukan aztertu zen.
- **Disfagia:** ez, bai. Azken 6 hilabeteetan jatean edo edatean eztarria sarri trabatu izana eta/edo bronkoaspirazio bidezko arnas infekzioen bat izan ote zuen aztertu zen.
- **Mina:** ez, bai. Mina kontrolatzeko ≥ 2 analgesiko konbentzional eta/edo opiaceo nagusi bat behar izan zuen aztertu zen.
- **Disnea:** ez, bai. Disnea basalak etxetik irtetea eragozten zuen eta/edo opiaceoak behar izan zituen aztertu zen.
- **Minbizia edozein fasetan:** ez, bai. Ez ziren kontuan hartu gaiztotu-aurreko adenoma iletsuak, displasia epitelialak, ezta sendatutako gaixotasun onkologikoak ere.
- **Arnas gaixotasuna edozein fasetan:** ez, bai. Gaixotasun buxatzailea (bronkitis kronikoa, biriketako enfisema, asma kronikoa), biriketako edo

biriketarik kanpoko hertsigarria (biriketako fibrosia, zifosi larria) eta mistoa.

- **Bihotzeko gaixotasun kronikoa edozein fasetan:** ez, bai. Gutxiegitasun kardiakoa, kardiopatia iskemikoa edo arritmia kardiakoa.
4.4. Análisis de la influencia del modelo de Prescripción Centrado en la Persona sobre las variables farmacoterapéuticas y las visitas a urgencias hospitalarias en el periodo posterior al alta hospitalaria en el grupo control e intervención.

4.4.1. Análisis del paso de tiempo sobre las variables de adecuación farmacoterapéutica en los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Tabla 59. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre el número de medicamentos crónicos los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre el nº de medicamentos crónicos	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Efecto del Paso del tiempo	0,820	5,914	2,000	54,000	0,005**
Efecto del Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,940	1,730	2,000	54,000	0,187




Figura 17. Efecto del paso del tiempo sobre el número de medicamentos crónicos tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 60. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre los Criterios STOPP Frail los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre el nº de Criterios STOPP Frail	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Paso del tiempo	0,995	0,302	1,000	55,000	0,585
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,956	2,506	1,000	55,000	0,119


**Figura 18.** Efecto del paso del tiempo sobre el número de Criterios STOPP Frail tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 61. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre la escala ARS los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre la escala del ARS	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Paso del tiempo	0,964	1,014	2,000	54,000	0,370
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,998	0,067	2,000	54,000	0,935




Figura 19. Efecto del paso del tiempo sobre la escala ARS tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 62. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre el DBI los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre la escala del DBI	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Paso del tiempo	0,822	5,858	2,000	54,000	0,005**
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,927	2,134	2,000	54,000	0,128




Figura 20. Efecto del paso del tiempo sobre el índice DBI tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 63. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre las interacciones fármaco-fármaco totales los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks						
Efecto sobre las interacciones fármaco-fármaco totales	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p	
Paso del tiempo	0,975	0,638	2,000	50,000	0,533	
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,918	2,242	2,000	50,000	0,117	




Figura 21. Efecto del paso del tiempo sobre el número de interacciones fármaco-fármaco totales tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 64. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre las interacciones fármaco-fármaco graves los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks						
Efecto sobre las interacciones fármaco-fármaco graves	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p	
Paso del tiempo	0,978	0,577	2,000	51,000	0,565	
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,978	0,577	2,000	51,000	0,565	


**Figura 22.** Efecto del paso del tiempo sobre el número de interacciones fármaco-fármaco graves tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 65. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre las interacciones fármaco-fármaco moderados los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks						
Efecto sobre las interacciones fármaco-fármaco moderadas	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p	
Paso del tiempo	0,941	1,601	2,000	51,000	0,212	
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,908	2,579	2,000	51,000	0,086	




Figura 23. Efecto del paso del tiempo sobre el número de interacciones fármaco-fármaco moderadas tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 66. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre las interacciones fármaco-fármaco leves los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre las interacciones fármaco-fármaco leves	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Paso del tiempo	0,996	0,100	2,000	51,000	0,905
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,973	0,709	2,000	51,000	0,497


**Figura 24.** Efecto del paso del tiempo sobre el número de interacciones fármaco-fármaco leves tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

Tabla 67. Análisis del efecto del paso del tiempo sobre el MRCIe los primeros tres meses tras el alta hospitalaria.

Pruebas multivariante: Lambda de Wilks					
Efecto sobre el MRCI	Valor	F	GI de hipótesis	GI de error	p
Paso del tiempo	0,778	7,683	2,000	54,000	0,001
Paso del tiempo + Grupo (Control vs Intervención)	0,929	2,071	2,000	54,000	0,136




Figura 25. Efecto del paso del tiempo sobre el MRCIe tras la aplicación del modelo de Prescripción Centrado en la Persona.

4.4.2. Análisis de la influencia del modelo PCP sobre las visitas a urgencias hospitalarias

Tabla 68. Análisis de la influencia del modelo de prescripción centrada en la persona sobre las visitas a urgencias hospitalarias tras el alta hospitalaria.

Visita a Urgencias Hospitalarias (n= 80)	Grupo Control (n=41)	Grupo Intervención (n=39)	p (Chi ²)	OR ⁱ (IC ⁱⁱ 95%)
1er mes post-alta hospitalaria	6 (14,6%)	1 (2,6%)	0,056	3,64 (0,59-22,67)
3er mes post-alta hospitalaria	9 (22,0%)	9 (23,1%)	0,904	0,97 (0,57-1,64)
6º mes post-alta hospitalaria	11 (26,8%)	11 (28,2%)	0,890	0,97 (0,59-1,58)
12º mes post-alta hospitalaria	16 (39,0%)	14 (35,9%)	0,773	1,07 (0,67-1,72)

i: odds ratio. ii: intervalo de confianza.

Tabla 69. Análisis de la influencia del modelo de prescripción centrada en la persona sobre las visitas a urgencias hospitalarias a los 3 meses tras el alta hospitalaria mediante árboles de decisión.

Resumen del modelo		
Especificaciones	Método de crecimiento	CRT
	Variable dependiente	Visita a la Urgencia Hospitalaria a los 3 meses
	VARIABLES INDEPENDIENTES	Grupo de Intervención, Edad, Sexo, Índice de Charlson, IF-VIG ⁱ , Hospitalización el Último año, Vivir Solo, Riesgo Social ⁱⁱ , Dependencia Grave ⁱⁱⁱ , Trayectoria de la Enfermedad al final de la vida ^{iv}
	Validación	Ninguna
	Máxima profundidad del árbol	3
	Mínimo de casos de un nodo filial	10
	Mínimo de casos en un nodo parental	5
	Resultados	VARIABLES INDEPENDIENTES INCLUIDAS
	Número de nodos	9
	Número de nodos terminales	5
	Profundidad	3

i: Índice Frágil basado en la Valoración Integral Geriátrica. *ii:* ≥ 15 puntos según la escala de valoración sociofamiliar de Gijón. *iii:* < 40 puntos en el Índice de Barthel. *iv:* 1) Fragilidad/Demencias/Enfermedad Neurológica Avanzada, 2) Insuficiencia Orgánica: respiratoria, cardíaca, hepática y renal, 3) Mixta.




Figura 26. Árbol de decisión para el análisis de los principales factores asociados a las visitas de urgencias hospitalarias a los 3 meses tras el alta hospitalaria.

Interpretación de la **Figura 26**: En el periodo de 3 meses tras el alta hospitalaria el 22,5% de los pacientes visitaron las urgencias hospitalarias. La variable que más influyó sobre este porcentaje de pacientes fue la edad, con un punto de corte de 92,5 años (43,8% vs 17,2%). En el caso de los pacientes de mayor edad, el índice de fragilidad fue la variable más influyente, con un punto de corte de 0,48 (83,3% vs 20,0%). En el caso de los pacientes $\leq 92,5$ años, nuevamente el índice de fragilidad fue la variable más influyente, esta vez, con un punto de corte de 0,46 (21,2% vs 0,0%). En los pacientes más frágiles (IF-VIG $> 0,46$), el hecho de pertenecer al grupo de personas con mayor riesgo social (categorizado por tener una puntuación ≥ 15 puntos en la valoración sociofamiliar de Gijón) fue un factor influyente para visitar la urgencia hospitalaria (40,0% vs 16,7%).

Tabla 70. Análisis de la influencia del modelo de prescripción centrada en la persona sobre las visitas a urgencias hospitalarias a los 6 meses tras el alta hospitalaria mediante árboles de decisión.

Resumen del modelo		
Especificaciones	Método de crecimiento	CRT
	Variable dependiente	Visita a Urgencias a los 6 meses
	VARIABLES INDEPENDIENTES	Grupo de Intervención, Edad, Sexo, Índice de Charlson, IF-VIG ⁱ , Hospitalización el Último año, Vivir Solo, Riesgo Social ⁱⁱ , Dependencia Grave ⁱⁱⁱ , Trayectoria de la Enfermedad al final de la vida
	Validación	Ninguna
	Máxima profundidad del árbol	3
	Mínimo de casos de un nodo filial	10
	Mínimo de casos en un nodo parental	5
	Resultados	VARIABLES INDEPENDIENTES INCLUIDAS
	Número de nodos	7
	Número de nodos terminales	4
	Profundidad	3

i: Índice Frágil basado en la Valoración Integral Geriátrica. *ii:* ≥ 15 puntos según la escala de valoración sociofamiliar de Gijón. *iii:* < 40 puntos en el Índice de Barthel. *iv:* 1) Fragilidad/Demencias/Enfermedad Neurológica Avanzada, 2) Insuficiencia Orgánica: respiratoria, cardíaca, hepática y renal, 3) Mixta.




Figura 27. Árbol de decisión para el análisis de los principales factores asociados a las visitas de urgencias hospitalarias a los 6 meses tras el alta hospitalaria.

Interpretación de la **Figura 27**: En el periodo de 6 meses tras el alta hospitalaria el 27,5% de los pacientes visitaron las urgencias hospitalarias. La variable que más influyó sobre este porcentaje de pacientes fue el índice de fragilidad, con un punto de corte de 0,46 (32,8% vs 13,6%). Por encima de este punto de corte, la variable que más influyó fue la edad, con un punto de corte de 92,5 años (83,3 vs 26,9%). En el caso de los pacientes $\leq 92,5$ años, la principal variable de influencia fue el riesgo social (83,3% vs 26,9%), categorizado por tener una puntuación ≥ 15 puntos en la valoración sociofamiliar de Gijón.

Tabla 71. Análisis de la influencia del modelo de prescripción centrada en la persona sobre las visitas a urgencias hospitalarias a los 12 meses tras el alta hospitalaria mediante árboles de decisión.

Resumen del modelo		
Especificaciones	Método de crecimiento	CRT
	Variable dependiente	Visita a Urgencias a los 12 meses
	VARIABLES INDEPENDIENTES	Grupo de Intervención, Edad, Sexo, Índice de Charlson, IF-VIG ⁱ , Hospitalización el Último año, Vivir Solo, Riesgo Social ⁱⁱ , Dependencia Grave ⁱⁱⁱ , Trayectoria de la Enfermedad al final de la vida ^{iv}
	Validación	Ninguna
	Máxima profundidad del árbol	3
	Mínimo de casos de un nodo filial	10
	Mínimo de casos en un nodo parental	5
	Resultados	VARIABLES INDEPENDIENTES INCLUIDAS
	Número de nodos	7
	Número de nodos terminales	4
	Profundidad	2

i: Índice Frágil basado en la Valoración Integral Geriátrica. *ii:* ≥ 15 puntos según la escala de valoración sociofamiliar de Gijón. *iii:* < 40 puntos en el Índice de Barthel. *iv:* 1) Fragilidad/Demencias/Enfermedad Neurológica Avanzada, 2) Insuficiencia Orgánica: respiratoria, cardíaca, hepática y renal, 3) Mixta.

4.4.3. Análisis de la influencia del modelo PCP sobre el tiempo hasta la primera visita a urgencias hospitalarias tras el alta hospitalaria.

Tabla 72. Análisis del tiempo hasta la primera visita a urgencias hospitalarias a 365 días tras el alta hospitalaria mediante Kaplan-Meyer.

Resumen del procesamiento de los casos				
Grupo	Nº total	Nº de eventos ⁱ	Censurados ⁱⁱ	
			nº	%
Control	41	16	25	61
Intervención	39	14	25	64,1
Global	80	30	50	62,5
Medias hasta la primera visita a urgencias hospitalarias a 365 días tras el alta hospitalaria				
Grupo	Media	Error típico	IC ⁱⁱⁱ del 95%	
Control	260,93	22,68	216,47 - 305,39	
Intervención	238,39	26,38	186,69 - 290,09	
Global	251,43	17,19	217,75 - 285,12	
Comparaciones globales	Chi-Cuadrado	g ^{iv}	p	
Log Rank (Mantel-Cox)	0,269	1	0,604	

i: se define el evento como la primera visita a urgencias hospitalarias en el periodo estudiado. *ii:* aquellos pacientes que en el periodo estudiado no hayan sufrido el evento. *iii:* intervalo de confianza. *iv:* grados de libertad.




Figura 29. Representación de curvas de supervivencia para el análisis del tiempo hasta la primera visita a urgencias hospitalarias a 365 días tras el alta hospitalaria.

Tabla 73. Análisis de los factores asociados al tiempo hasta la primera visita a urgencias hospitalarias a 365 días tras el alta hospitalaria mediante Regresión de Cox.

Resumen del proceso de casos		n	%				
Casos disponibles en el análisis	Evento ⁱ	30	37,0				
	Censurado ⁱⁱ	50	61,7				
	Total	80	98,8				
Casos excluidos	Casos con valores perdidos	1	1,2				
	Casos con tiempo negativo	0	0,0				
	Casos censurados ⁱⁱ antes del evento ⁱ más temprano en un estrato	0	0,0				
	Total	1	1,2				
Total		81	100				
Prueba omnibus sobre coeficientes del modelo	-2 log de verosimilitud	Global (puntuación)			Cambio desde el bloque anterior		
		Chi ²	gl ⁱⁱⁱ	Sig.	Chi ²	gl ⁱⁱⁱ	Sig.
Paso 17	214,939	17,582	6	0,007	16,345	6	0,012
Variables en la ecuación en el Paso 17	B ^{iv}	Error Típico	Wald	gl ⁱⁱⁱ	Sig.	Exp(B) ^v	IC ^{vi} del 95% para Exp (B)
Edad	0,079	0,033	5,784	1	0,016*	1,08	1,01-1,15
Vivir Solo	1,027	0,529	3,773	1	0,052	2,793	0,991-7,871
Renta ≥ 18.000	0,709	0,401	3,129	1	0,077	2,032	0,926-4,458
IF-VIG $\geq 0,50$	0,909	0,427	4,536	1	0,033*	2,482	1,075-5,732
Dolor	1,229	0,459	7,165	1	0,007**	3,419	1,390-8,411
Delirium	-0,821	0,452	3,303	1	0,069	0,440	0,182-1,066

i: se define el evento como la primera visita a urgencias hospitalarias en el periodo estudiado. ii: aquellos pacientes que en el periodo estudiado no hayan sufrido el evento. iii: grados de libertad. iv: coeficiente exponenciales de hazard ratio. v: se interpreta como una hazard ratio. vi: intervalo de confianza.




Figura 30. Representación de las curvas de supervivencia para el análisis del tiempo hasta la primera visita a la urgencia hospitalaria a 365 días tras el alta hospitalaria en función del Índice de Fragilidad basado en la Valoración Geriátrica Integral (IF-VIG).

EZTABAIDA

DISCUSIÓN

5. EZTABAIDA

5.1. Bizitzaren azken fasean ospitaleratutako paziente geriatrikoen ezaugarri soziodemografikoen eta klinikoen deskribapena.

Azterlan honetan, Euskadiko Osasun Sareko Egonaldi Ertaineko Ospitale bateko Eriondo Unitate Geriatriko batean ospitaleratu zuten 114 pazienteren azterketa xehatua egin da. Paziente horiek bizitza amaierako fasean eta arreta aringarriaren premian identifikatu ziren NECPAL CCOMS-ICO©(162) tresnaren bidez. Bizitza amaiera faseko pertsonen identifikazio goiztiar horri esker, helburu terapeutikoak eta asistentzialak pertsonaren bizi-egoeraren arabera birbideratu ahal izan ziren. Jatorri onkologikoko gaixotasun kroniko aurreratuak zituzten pertsonak ez ziren Eriondo Unitate honetan ospitaleratu, eta, beraz, azterketatik kanpo geratu ziren sistematikoki.

Aztertutako biztanleriaren profil soziodemografikoa oso adinekoa izan zen, 87,7 urteko batez besteko adinarekin, % 57,9 emakumeak izan zirelarik. Adin hori, 2018rako (azterlanaren hasiera-urtea) espero zen jaiotza-uneke bizi-itxaropena baino handiagoa izan zen, 83,2 urtekoa Espainiar Estatuan eta 83,6 urtekoa EAEn(8); beraz, adina azterlanean sartutako pazienteen bilakaeraren eta ezaugarrien adierazle intuitibo argia izan da.

Egoera zibilarri dagokionez, aztertutako pertsonen % 51,8 alargunak ziren eta % 36 berriz ezkonduak. Datu horiek Estatuko eta EAeko erregistroen antzekoak izan ziren(8); non 85 urtetik gorako pertsonen % 62,7 eta % 55,8 alargunak ziren, eta % 30,5 eta % 32,6 ezkonduak zeuden, hurrenez hurren. Suedian argitaratutako eta antzeko paziente profila zuten lanari erreparatuz gero, egoera zibila ez zen gehiegi aldatzen: % 49,8 alargunak ziren, % 30 ezkonduak eta % 20,2 ezkongabeak edo dibortziatuak(94).

Aztertutako pertsonen bizikidetzaren moduei dagokienez, % 29,8 ezkontidearekin bizi ziren, % 24,6 seme-alabekin eta % 20,2 bakarrik. % 6,1 soilik bizi zen instituzionalizatuta zaharren egoitza batean. Datu horiek zertxobait desberdinak dira 2018ko datu nazionalekin alderatuta; izan ere, 85 urtetik gorako pertsonen % 35,9

bakarrik bizi zen, % 28,8 ezkontidearekin eta % 15,0 seme-alabekin. Alde horiek gure azterlanaren laginak bizitza amaiera faseko irizpideak betetzen zituelako azaltzen da. Hala ere, hirugarren adinean bakarrik bizitzeko probabilitateak gora egiten duela aipatzea garrantzitsua da (% 17,47 65-69 urte bitartean; % 21,0 75-79 urte bitartean, eta % 35,9,>85 urte gorakoak), eta gizartearentzat etorkizun hurbilean gizarte zein osasun arloan babesgabetasun egoerei nola aurre egiten jakitea erronka garrantzitsua izango da (8).

Era berean, Gijongo balorazio soziofamiliarren eskalaren bidez, pertsonen % 66,7 gizarte-arriskuan identifikatu zen, eta % 20,2 gauzatutako gizarte-arazo batekin. Gizarte arazo bat zuten kasuen erdiak, bakarrik bizi ziren pertsonak izan ziren, honela, pertsona horiek bizitzaren amaieran zaintza sozial eta sanitario duinak lortzeko bereziki ahulduta gelditzen zirelarik. Halaber, gizarte-arazo bat zuten pertsonen % 65,2k ospitaleratze-gertakariren bat izan zuen azken urtean, eta gizarte-egoera hobe zuten pazienteekin estatistikoki esanguratsuak ziren aldeak aurkitu ziren. *Veterans Health Administration* erakundeko adineko pertsonen kohorte zabal batean egindako azterlan bati erreparaturaz gero(163), ezegonkortasun sozialeko zenbait faktore ospitaleratze gehiago izateko arrisku-faktoreak zirela identifikatu zituzten.

Era berean, gizarte-arazo bat zuten pertsonen artean hiperpolifarmazia zuten pazienteen proportzioa txikiagoa zela azpimarratu behar da. Hala ere, emaitza hori ezin da era positiboan baloratu, pertsona horiek arreta medikua zein farmazeutikoa jasotzeko zituzten zailtasunei lotuta egon bait zitekeen. Ildo horretatik jarraituz, datu kontrajarriak aurkitzen dira, gizarte-egoera deprimitu bat medikamentuen gehiegizko erabilerarekin lotu izan baita maiz, hala nola; egoera ekonomiko eskasa, hezkuntza-maila baxua, bakardadea eta landa-eremuetan bizitzea bezala(164). Pertsonen osasunean gertatzen diren aldaketak ez dira soilik faktore intrintsekoek eragindakoak; aitzitik, gizarte-kalteberatasuna bezalako faktore estrintsekoak ezgaitasunarekin, kontrako erreakzioekin eta heriotza-tasarekin lotu izan dira(165–168). Ondorioz, halabeharrezkoa da gizarte-arriskuan dauden pertsonen beharrezko prestazioak identifikatzea eta eskaintzea.

Azterlanean sartutako pazienteak Akutuen Ospitale bateko zerbitzu mediku batetik trasladatu ohi ziren, batez beste 9 eguneko egonaldiarekin, nahiz eta batzuetan lehen mailako arretako medikuaren bidez etxetik zuzenean edo adinekoen egoitza batetik ospitaleratu zituzten. R. Bermingham Ospitaleko Eriondo Unitatera trasladatutako pazienteak patologia kronikoaren deskonpentsazioa egonkortzeko helburuarekin ospitaleratzen zituzten.

Eriondo Unitate honetan eta tarteko arretako ospitale bateko edozein azpiakutu-unitatetan sartzen diren pertsonak baldintza kroniko ugari eta konplexutasun kliniko handia dituzten pertsonak dira. Honela, ezin da gaixotasunean eta praktika klinikorako gidetan oinarritutako erabaki-hartze eskusibo bat planifikatu, eta ikuspegi indibidualizatuagoa eta pazientearen neurrira egindakoa hobeto egokituko da(169,170). Azterlan honen burutzeari esker, bizitza amaierako fasean zeuden pertsonen identifikazio goiztiarra egin ahal izan zen, NECPAL CCOMS-ICO© tresna erabiliz.

NECPAL CCOMS-ICO© tresnaren arabera, pertsonak eta/edo senideek hala erabakita, % 71,9k neurri aringarriak eskatu zituzten, eta pertsonen % 98,2k laztasun-eta progresio-adierazle orokorrak aurkeztu zituzten. Gaixotasun kroniko espezifikoko handiena Dementia Aurreratua izan zen (% 35,1), ondoren Bihotz-Gutxiegitasun Kroniko Aurreratua (% 26,3) eta Arnas Gaixotasun Kroniko Aurreratua (% 14,9). Era berean, Lunney et al. (171)-en eredu jarraituta, gaixotasun aurreratuak hainbat ibilbidetan taldekatu ziren, narriadura funtzionalaren arabera. Pertsonen % 62,3k demenzia, beste gaixotasun neurologiko batzuk eta/edo hauskortasun aurreratua zuten pazienteen taldearen ibilbidea jarraitu zuten, eta % 31,6k organo gutxiegitasun aurreratua zuten pazienteena. Gomez Batiste et al(172).-en azterlana kontuan hartzen badugu, non tarteko-arretako ospitale bateko gaixotasun aurreratuaren ibilbideak aztertu zituzten, hauskortasun aurreratuaren eta/edo demenziaren eta beste gaixotasun neurologiko aurreratu batzuen ibilbidea izan zen nabarmenena berriro ere, ospitaleratutako pertsonen % 40,5, eta ondoren organo gutxiegitasun aurreratuaren ibilbidea, kasu honetan % 36,5. Azterketa konparatibo honetan, ibilbideen banaketa zertxobait desberdina da gurearekin alderatuta, lan honetan ez baitziren baztertu gaixotasun onkologiko aurreratuaren ibilbidea jarraitzen zuten pazienteak. Erkidego-

mailan eta estatu-mailan arreta aringarriko baheketa-tresnak ezarri behar direla azpimarratu behar da, 2040. urterako proiektatutako beharrak areagotu egingo baitira, eta haien eskaria % 20-25 handituko baita, batez ere ibilbide onkologikoen eta dementzien kasuan(10,11).

Ospitale barneko hilkortasuna zehazteko egindako azterketan, bihotzeko gaixotasun kroniko aurreratuaren eta/edo gaixotasun neurologikoaren ibilbidea (IZB mota) zuten pertsonak, ospitaleratzean hiltzeko arrisku handiagoarekin lotu ziren. Bi ibilbide horien kasuan, heriotza-tasa oso handia izan zen, eta horrek paziente-profil horrentzat bizitzaren amaieran arreta aringarria emateko baheketa-tresnak beranduegi iristen direla adieraz lezake.

Bizitza amaierako fasean dauden pertsonak, askotan patologia aurreraturen bat dutelako nabarmentzeaz gain, komorbilitate-egoerak izaten dituzte. Paziente horiek, oro har, egoera ahulagoan daude, eta horrek harreman estua ematen die osasun-sistemarekin, laguntza eta osasun baliabideen eskaera handiarekin(173,174). Horrela, gure azterlanean, biztanleriaren hiru laurdenek komorbilitate handia zuten Charlsonen Indizearen arabera, eta honako diagnostiko hauek nabarmendu ziren: dementzia, bihotz-gutxiegitasun kongestiboa (BGK), erdi-mailako giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa, gaixotasun zerebroaskularra eta BGBK. Beste ezaugarrietako bat ospitaleratzeko maiztasun handia izan zen; honela, erreklutatutako pazienteen % 59,6k ospitaleratze-gertakariren bat izan zuen azterketa egin aurreko urtean, eta pazienteen % 26,3k bi ospitaleratze edo gehiago izan zituen.

Azterlanean ospitaleratutako pertsonen hauskortasun-egoerari dagokionez, % 54,4k IF-VIG>0,5 puntu izan zituen, hauskortasun aurreratu gisa definituta, eta 0,51 puntukoa izan zen batez besteko. IF-VIG baliozkotzea ahalbidetu zuen azterketak(160) hauskortasun aurreratuaren eta 12 hilabeterako hilkortasunaren arteko korrelazio oso ona erakutsi zuen, eta iragartzeko ahalmen handia lortu zuen. Halaber, IF-VIGaren defiziten metaketa-eredu berean oinarrituta, berrikuspen sistematiko eta meta-analisi batean hainbat hauskortasun indize aztertu zituzten, eta berriz ere aldagai horren eta hilkortasunaren artean lotura handia zegoela erakutsi zuten(175). Gure kasuan, IF-VIG tresna baliagarria izan zen paziente bakoitzaren

ospitaleratzean egoera-diagnostikoa egiteko. IF-VIG puntuazio txikiagoa zuten pazienteei orohar interbentzio sendatzaile eta prebentiboagoa eskaintzen zitzairen, aldiz, jarrera kontserbadoreagoa planteatuz eta kontrol sintomatikoa lehenetsiz IF-VIG puntuazio altuena zuten pazienteetan.

Era berean, IF-VIGari esker, balorazio geriatriko integral batean landutako arlo bakoitza aztertu ahal izan zen, eta honela, ospitaleratu aurreko egoera basalaren (gutxienez ospitaleratzea eragin zuen prozesu klinikoa hasi baino hilabete lehenago) berri eman zen. Erreserba kognitiboaren esparruari dagokionez, pertsonen % 72k narriadura kognitiboren bat izan zuen, eta % 36k narriadura kognitibo larria edo oso larria. Bestalde, nabarmentzekoa da pertsona horien funtzionaltasun galera; non pertsona horien % 82,5ek, nolabaiteko mendekotasuna izan zuen eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat egiteko, laginaren ia heren batek edozein zeregin egiteko mendekotasuna zuelarik. Amblás et al. (24)-en lanean bezala, narriadura kognitiboa eta funtzionala handiagoa izan zen bizitzaren amaieran gaixotasun neurologiko eta/edo hauskortasun aurreratuko ibilbidea zuten pertsonentzat.

Aldagai klinikoen deskribapenarekin amaitzeko, Edmontonen Eskalaren bidez pazienteen ospitaleratu aurreko oinarrizko egoerari buruzko kontrol sintomatikoaren maila jakin zen. 0-10eko puntuaziotik ≥ 4 puntu zituzten sintomak intentsitate moderatu-larritzat jo ziren(176). Okerren kontrolatutako sintomak nekea eta logura izan ziren, 0tik 10era bitarteko puntuaziotik 6 puntuko medianarekin, eta ondoren, gogorik eza eta loezina 5 puntuko medianarekin. Item guztien baturak 32,79 puntuko batez besteko balio metatua eman zuen. Aztertutako laginean narriadura kognitiboaren prebalentzia handia zela eta tresna horrek bere mugak izan zituen eta soilik pazienteen % 20,2k erantzun ahal izan zuen lehen pertsonan. Bizitza amaierako fasean zeuden pazienteak ere barne hartzen zituen argitaratutako lan batean, Edmonton eskalan metatutako batez besteko balioa 27,0 puntukoa izan zen(177), gure azterlanean lortutako puntuazioa baino pixka bat txikiagoa. Alde hori gure azterlanean zaintzaile nagusiek galdetegi gehienei erantzuteagatik eta azken emaitza gainestimatu ahal izanagatik erlazionatu zen. Pazienteak edota haren zaintzaile nagusiak betetako Edmonton galdetegi baten arteko konkordantzia maila

ezagutzeko beharra dago, kasu guztietan sintomen kontrol maila fidagarritasunez ezagutzeko asmoz.

Azken batean, bizitzaren azken fasean ospitaleratutako pazientearen profila pertsona hauskorra eta oso adinekoa da, gizarte-babesgabetasunerako arrisku handia duena, narriadura kognitibo eta funtzional handia eta komorbilitate handia duena,aldi berean sendagai asko kontsumitzen dituena, eta batez ere nekeari, logurari eta gogogabetasunari lotutako sintomak modu irregularrean kontrolatzen dituena. Bizitzaren amaierako fasean gaixotasunaren bi ibilbide argi identifikatu dira: hauskortasun aurreratua eta/edo dementziak eta beste gaixotasun neurologiko batzuk dituzten pazienteen taldea eta gutxiegitasun organikoko gaixotasun aurreratua duten pazienteen taldea. Haien artean argi eta garbi ezberdintasunak bereizten dira bai komorbilitatean, mendekotasun funtzionalean eta kognitiboan eta baita farmakoterapiaren patroietan ere. Bihotzeko gaixotasun kroniko aurreratuaren eta /edo gaixotasun neurologikoaren (IZB mota) ibilbidea izan duten pertsonen ospitale barruko heriotza-tasa oso handia izan da. Honela, gaixotasun aurreratu hauentzat bizitza amaieran arreta aringarria jasotzeko baheketa-tresnak beranduegi iristen direla iradoki da.

5.2. Bizitzaren amaieran hiperpolimedikazioa eta egokitzen terapeutiko eskasa duten pazienteei loturiko ezaugarri farmakoterapeutikoak eta arrisku-faktoreen deskribapena

5.2.1. Polimedikazioa

Laginaren ezaugarri farmakoterapeutikoak aztertzean, batez beste 8,6 medikamentu kroniko hartzen zituztela egiaztatu zen, honela, datu hauetatik bizitzaren amaieran dauden paziente profila baterako medikamentu asko erabiltzen direla ondoriozta daiteke. Pazienteen % 89,5ek 5 medikamentu edo gehiago hartu zituzten, kopuru honetatik abiatuta paziente bat polimedikatutzat jotzen dugularik. Era berean, % 35,1ek 10 medikamentu edo gehiago hartu zituzten, kasu horietan hiperpolimedikatutako paziente gisa definituz.

Adineko pertsonen artean polimedikazioaren prebalentzia handia aski ezaguna da, eta azken urteotan goranzko joera izan du, batez ere adineko pertsonen dagokienez. Hala, Irlandan egindako azterlan batean, azken 15 urteetako (1997-2012) polimedikazioaren joera aztertu zuten, eta adineko pertsona polimedikatuetan prebalentzia % 17,8tik % 60,4ra igo zela nabarmendu zuten, eta % 1,5etik % 21,9ra hiperpolimedikatuetan(178). Eskozian egindako beste ikerketa batean, 60-69 urte bitarteko pertsonen % 28,6k eta % 7,4k 4-10 medikamentu eta 10 medikamentu baino gehiago kontsumitzen zituztela ikusi zuten, hurrenez hurren. Datu hori % 51,8 eta % 18,6raino igotzen zen 80 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan(179).

Biztanleria-ikerketetan aurkitzen dugun polimedikazioaren eta hiperpolimedikazioaren prebalentzia gure laginean behatutakoa baino txikiagoa da; hala ere, bizitza amaierako fasean dauden adineko pertsonekin egindako azterketei erreparatu gero, datu horiek antz handiagoa dute. Horrela, ospitale-eremuan egindako eta fase aurreratuan zeuden gaixotasun kroniko ez-neoplasikoak zituzten pazienteen preskripzio farmakologikoaren profila aztertu zuten ikerketa batean, bataz beste 8,0 medikamentu kroniko kontsumitzen zituztela ebatzi zuten, eta polimedikazioaren eta hiperpolimedikazioaren prebalentzia % 86,2koa eta % 31,3koa

izan zen, hurrenez hurren(180). Suedian 2007tik 2013ra bitartean egindako atzera begirako beste azterlan batean, non data horietan hil ziren 545.212 adineko pertsona ebaluatu ziren, bizitzako azken urtean 10 medikamentu edo gehiagorekiko esposizioa % 30,3tik % 47,2ra igo zela ikusi zen, eta medikamentuen batez besteko kopurua 7,6tik 9,6ra(93) igo zela.

Halaber, gure azterlanean preskripzio farmakologikoa modu kualitatiboan ere aztertu zen. Gehien preskribatutako talde terapeutikoa psikoleptikoena (farmako antipsikotikoak, antsiolitikoak eta hipnotikoak) izan zen, non pazieeteen % 64,0k talde honetako medikamenturen kontsumitu zuen. Psikoanaleptikoak aldiz, non antidepressiboak eta dementziaren aurkako botikak aurkitzen diren, gaixoen % 51,7n preskribatuta egon ziren. Aurretik aipatutako Suediako azterlanari dagokionez(93), psikoleptikoak eta psikoanaleptikoak heriotza gertatu baino 12 hilabete lehenago pertsonen % 39,5n eta % 27,4n preskribatuta egon ziren, hurrenez hurren. Gainera, prebalentzia maila horiek % 51,2ra eta % 32,6ra igo ziren bizitzako azken hilabetean. Psikofarmakoen ohiko preskripzio honek, bizitza amaierako fasean afektibitate- eta jokabide-nahasmenduak dituzten pazienteen prebalentzia handiari erantzuten dio, bai eta dementziaren sintoma psikologikoen eta jokabide-sintomen (DSPJ) ohiko deskonpentsazioari ere. Gure azterlanean psikofarmakoen erabilera handiagoa izan da, batez ere paziente onkologikoak baztertu zirelako eta dementzia-ibilbidea jarraitzen zuten pazienteen prebalentzia handiagoa izan zelako.

Gure ikerketaren farmakoterapiaren deskribapen kualitatiboarekin jarraituz, honako erabilera-maiztasun hauek nabarmendu ziren: farmako antitronbotikoak (% 62,3), farmako diuretikoak (% 58,8), babesle gastrikoak/antiazidoak (% 50,9), errenina-angiotensina sistemaren antagonistak (% 39,5), antidiabetikoak (% 34,2) eta hipolipemiatzaileak (% 27,2). 6 talde terapeutiko horiek gure laginean gehien erabiltzen ziren 10 talde terapeutikoen barruan zeuden, eta erabilera-maiztasunak ez ziren nolana hikoak, are gehiago askotan onura terapeutiko eztabaidagarriarekin epe luzerako tratamendu prebentibo gisa erabiltzen zirenean.

Polimedikazioari lotutako arazoak direla eta (ondorio kaltegarrien arrisku handiagoa, farmako-farmako interakzioak, tratamenduarekiko atxikimendu eskasa,

ospitaleratzeen areagotzea, hilkortasunaren areagotzea eta kostuen gehikuntza), adostasun orokorra dago bizitza amaierako fasean oligofarmaziak izan ditzazkeen onuretan, prebentzio-neurrietan baino gaixotasunaren kontrol sintomatikoan arreta jarritz(45,88,92,181). Horrela, lehen mailako eta bigarren mailako prebentziorako erabilitako medikamentuek balioa galtzen doaz bizitzaren amaiera gerturatu ahala, onura terapeutikoa lortzeko denbora bizi-itxaropena bera baino txikiagoa izan ezean.

Bestalde, polimedikazioaren distribuzioa ez zen orekatua izan bizitzaren amaierako ibilbide desberdinetarako; horrela, gaixotasun organiko aurreratua zuten pertsonen % 97,8 eta % 47,2 polimedikatuak eta hiperpolimedikatuak izan ziren hurrenez hurren, batez beste 10,0 medikamentu kroniko kontsumituz. Azken datu hauek nabarmen handiagoak izan ziren gaixotasun neurologiko eta/edo hauskortasun aurreratuko ibilbidea zutenekin alderatuta baino. Oro har, gaixotasun organiko aurreratuak dituzten pazienteek bihotz-gutxiegitasunaren eta/edo bilakaera luzeko BGBKren diagnostikoak izan ohi dituzte, eta medikamentu asko metatzen dituzte praktika klinikorako gidalerroak zorrotz betez gero.

Hauskortasun-egoerari eta polimedikazioari dagokienez, hauskortasun-egoera aurreratua zuten pertsonen medikamentu gehiago kontsumitu zituzten, pazieeteen % 41,0 hiperpolimedikatuak zelarik. Hauskortasunaren eta polimedikazioaren arteko lotura sakonki aztertu da azken hamarkadan, bi berrikuspen sistematiko eta meta-analisik erakusten duten bezala(79,182). Ebidentziak argia dirudi, izan ere, adineko hauskorrek arrisku handiagoa dute polimedikazioa eta desegokiak izan daitezkeen preskripzioak jasateko, erortzeko arriskua areagotzen duten sendagai lasaigarri gehiago izateko eta, azken batean, medikamentuekin lotutako gertaera kaltegarriak jasateko. Zentzu honetan, orain arte argitaratutako lanek Frieden irizpideak(32) erabili ohi dituzte hauskortasuna definitzeko, ikerketa honetan aldiz IF-VIG erabili da. Azken honek, zehazki, Rockwooden defizit-metaketa-ereduari jarraitzen dio(33). Argi dagoena da, aldi berean bizi-pronostiko mugatua adierazten duen IF-VIG aurreratua izateak eta hiperpolimedikazioa izateak adierazle garbia izan beharko lukeela PAP eredu bat planteatu eta farmakoterapia pertsonaren bizi-helburuetara egokitzeko, patologia bakoitzean banaka zentratutako praktika klinikoko giden aplikazio zorrotzaren kaltetan.

Gure azterlanean ikus daitekeenez, hiperpolimedikazioarekin lotzen den beste markatzaile klinikoetako bat ospitaleratze-maiztasun handia da, non azterketa hasi aurreko urtean 2 aldiz edo gehiagotan ospitaleratu zuten % 42,5 hiperpolimedikatuak izan ziren. Hala, UK-ko ospitale batean(183) 75 urtetik gorako pazienteei egindako kasuen eta kontrolen ikerketa batean, hiperpolimedikazioa urtebetean 3 ospitaleratze edo gehiago izateko arrisku-faktore gisa identifikatu zuten, ezaugarri hori berriz ospitaleratu zituzten pazienteen kasuen % 73k bete zutelarik. Italiako adineko pertsonentzako 31 egoitzatan egindako luzetarako beste behaketa-azterlan batean, berriz ere, polimedikatuak aukera handiagoa izan zuten ospitalera itzultzeko(81). Harreman hori noranzko bikoia izan daitekeela uste da; izan ere, hiperpolimedikazio-egoerek gertaera kaltegarriak eta, ondorioz, ospitaleratze berriak eragin ditzakete, eta ospitaleratze hutsak berriz, preskripzio berriak hastea eragin dezakelarik.

Beraz, medikamentu kronikoen batez besteko kopurua eta polimedikazioaren eta hiperpolimedikazioaren presentzia oso ohikoa da bizitza amaierako fasean dauden adineko pertsonen artean, eta nabarmentzekoa da gaixotasun organiko aurreratuaren ibilbidea eta hauskortasun aurreratua duten pertsonen artean medikamentuen erabilera handiagoa dela. Psikofarmakoak, patologia kardiobaskularra kontrolatzeko medikamentuak eta urdail-babesleak/antiazidoak dira gehien erabiltzen diren talde terapeutikoak, eta askotan ez dira gaixotasunaren kontrol sintomatikorako preskribatuko, baizik eta epe luzeko tratamendu prebentiboetarako, hauexek planteatzen duten onura eztabaidagarriekin.

5.2.2. Potentzialki desegokiak diren preskripzioak

Potentzialki desegokiak diren preskripzioak (PDP) MAI indizea eta STOPP Frail irizpideen bidez ebaluatu ziren. MAI indizearen erabilerarekin, aztertutako pazienteen % 97,4n baldintza desegokiren bat aurkitu zen preskripzio medikoan. Zifra horiek bat datoz adineko pertsonen artean egindako azterlan batzuekin, non pazienteen % 94,3k(184) eta % 98,7k(185) MAI irizpideren bat bete zuten. Hala ere, aldeak daude pazientearen MAI indize globalari dagokionez: gure azterlanaren batez bestekoa 19,2koa izan zen, eta aurrez aipatutako azken bi lanetan aldiz 9,6koa eta 15,8koa. Akutuen unitate geriatriko batean gaixotasun kroniko aurreratuak zituzten

pazienteetan egindako beste ikerketa batean, pazienteen % 97,4ean MAI irizpideren bat aurkitu zuten, pazientearen MAI globalaren mediana 23 izanik(186). Hala, azterlan horren % 73,2k eta % 77,9k gutxienez sendagai ez-egoki edo ez-eraginkor bat izan zuten, hurrenez hurren. Datu horiek gure azterlanean aurkitutakoen antzekoak dira: % 64,0 preskripzio ez-egokiak eta % 73,8 preskripzio ez-eraginkorrak izan zirelarik. Irizpide horiek oinarri hartuta, esan dezakegu gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten adinekoek egokitzapen farmakoterapeutiko okerragoa dutela oro har biztanleria geriatrikoarekin alderatuta, maiz desagokiak eta/edo eraginkortasunik gabeko medikamentuak aurkitzen direlako pertsonaren bizi-testuinguru honetan.

Bestalde, MAI indizearen eta hauskortasun-egoera desberdinen arteko lotura bat identifikatu zen, non hauskortasun aurreratuagoa zutenek egokitasun farmakoterapeutiko maila okerragoa erakutsi zuten. Irlandako ospitale bateko populazio geriatrikoan egindako azterlan batean, hauskortasun-indize baten eta PDPen arteko korrelazioa aurkitu zuten lehen aldiz, kasu honetan STOPP irizpide esplizituak neurtuta. $IF \geq 0,16$ zutenek arrisku nabarmen handiagoa izan zuten PDPk izateko, $IF < 0,16$ zutenekin alderatuta baino(187).

Hauskortasunaz gain, depresioa bezelako beste sindrome geriatriko bat, egokitzapen terapeutiko okerragoa izateko arrisku-faktore bezela identifikatu zen, datu horiek bat datozelarik lotura hori aztertzen duten hainbat azterlanekin. Hala, Istanbulen lehen mailako arretaren eremuan adineko pertsonekin egindako azterlan batean, PDPekin lotutako sindrome geriatrikoak aztertu zituzten, depresioa nabarmenduz, beste faktore batzuen artean, hala nola malnutrizioa, azken urteko erorketen presentzia eta dementzia(188). Tokion egindako antzeko ezaugarriei buruzko beste ikerketa batean, berriz ere depresioa PDPen presentzia handiagoarekin lotu zen(189).

PDPei dagokienez, STOPP Frail irizpideen arabera, egoera desagokiren bat zuten pazienteen ehunekoak ere handia izan zen. Irizpide horiek lehen aldiz 2017an argitaratu zirenez, gutxi dira horri buruzko datuak ematen dituzten azterlanak. Hala, Sevilla et al.(190)-ek akutuen ospitaleko unitate geriatriko batean egindako azterlan batean, gutxienez STOPP Frail Irizpide baten presentzia % 67,2an hauteman zuten.

Datu hori Belgikako adinekoen egoitzetan egindako COME-ON(191) azterlanean aurkitutakoaren antzekoa da, bertan % 64,1eko presentzia hauteman baitzuten. Pazienteak hartu edo toleratu ezin dituen medikamentuei erreferentzia egiten dien A1 irizpidea izan zen gure azterlanean nagusi, pazienteen % 37,1k gutxienez horrelako irizpide bat izan zuelarik. Sevilla et al.-en lanean, prebalentzia zertxobait handiagoa izan zen, % 43,8ra iritsi baitzen. Gure azterlanean irizpide mota horren prebalentzia handia pazienteari edo familiari ospitaleratzean egindako elkarrizketa pertsonalari egon zen lotuta, terapiaren betetze-maila zuzenean egiaztatu ahal izan baitzen. Honetaz gain, informazio hori errezeta elektronikoko bidez medikamentuak dispensatzeko sistema informatikoarekin kontrastatu ahal izan zen. Irizpide hori ezin izan da aztertu STOPP Frail Irizpideak aztertzen dituzten lan guztietan, beharrezkoa baita erregistro klinikoaren bidez lortu ezin diren medikamentuen erabilera ezagutzea. Bestalde, A2 irizpidea, indikazio argirik gabeko medikamentuen existentziari buruzkoa, pazienteen % 27,2rengan identifikatu zen, sarri indikazio iraungia duten edo artatutako biztanleriarentzat kontraindikaturak dauden medikamentuen tasa altuari lotuta.

E1 irizpidea, protoi-ponparen inhibitzaileen (PPI) erabilera desegokiari buruzkoa, STOPP Frail-en irizpide espezifikoaren artean prebalenteena izan zen (% 26,3). Era berean, E1 irizpideak antzeko ezaugarriak betetzen zituzten beste ikerketa batzuetan ere aztertu ziren, aurkitutako portzentajetan orekarik nabarmendu gabe (% 34,8, % 18, % 4,3)(190–192). Ehuneko alde hori irizpideak interpretatzeko modu ezberdinekin loturik egon liteke, horrela, zenbait autorek gastrolesiboak izan zitezkeen farmakoak (Antiinflamatorio ez esteroideoak (AIEE), antiagregatzaileak, antikoagulatzaileak, kortikoideak, serotonina birkaptazioaren inhibitzaileak (ISRS)) eragindako ultzera gastroduodenala prebenitzeko PPIk preskribatzen zirenean ez zituzten haintzat hartzen irizpide hauek. Gure kasuan, erreklutatutako pazienteek ez zuten E1 irizpidea bete, baldin eta aldi berean AIEE bat edo azido azetilsaliziliko bat dosi antiagregatzailean kontsumitzen bazuten. Horrela, azterlan honetan frogatzen den bezala, PPIen preskripzio desegokiak arazo izaten jarraitzen du, kasuen % 60n modu desegokian preskribatuta baitzeuden. Datu horiek eta Estatuko eta nazioarteko azterlanetan aurkitutakoak antzekoak dira, 50-70 arteko ehunekoekin(193,194).

PPIak, beren arriskuak dituzten farmakoak dira, eta horien erabilera haustura osteoporotikoekin, infekzio enterikoekin, pneumoniekin, hipomagnesemiarekin edo burdin eta B12 bitaminaren eskasiaren areagotzearekin lotu dira(195–197).

Bigarren STOPP Frail irizpide espezifiko nagusia B1 irizpidea izan zen, kasu honetan hipolipidemiazaileekin lotutakoa, eta % 26,3ko prebalentzia erregistratu zen. Era berean, goian aipatutako Paque et al., Fournier et al. eta Sevilla et al.-en lanetan ere irizpide hori % 16,3, % 11,4 eta % 9,8ko ehunekoekin identifikatu zuten(190–192). Hipolipidemiazaileen artean, estatinen taldea nabarmentzen da batez ere, adinekoentzat asko erabiltzen den talde terapeutikoa baita, bai lehen mailako prebentzioan, bai bigarren mailako prebentzioan ere. Ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik, 75 urtetik gorakoetan estatinak lehen mailako prebentzioan erabiltzeari egindako gomendioak, 75 urtetik beherakoetan eskuragarri dauden segurtasun- eta eraginkortasun-datuaren estrapolazio bat izan ohi dira, eta datu horiek onuragarriak izan daitezke, denbora luzez preskribatu behar dira (3-5 urte) (198). Bestalde, estatinek heriotza-tasari eta gertakari kardiobaskularren kopuruari dagokienez bigarren mailako prebentzioan dituzten onurak 65 urtetik gorako pazienteengan frogatu dira, 5 urteko jarraipenean 16 eta 43ko NNTa(*Number Needed to Treat*-Tratatzeke behar den zenbakia) izanik, hurrenez hurren. Aldiz, datu horiek ez dira berretsi 80 urtetik gorako pazienteengan(199). Farmako horiek ez daude arriskuetatik salbuetsita, eta medikamentuen arteko elkarrekintzek eta/edo erabilitako dosiek eraginda, kontrako erreakzioak ager daitezke, desgaitasuna (adibidez; mialgiak, nekea, narriadura kognitiboa) sortuz eta azken batean, bizitzaren amaieran pertsona horien bizi-kalitatea okertuz(200). Horregatik guztiagatik, sendagai horien onura-arrisku balantzea kaltegarria dela iradoki da.

Gainerako STOPP Frail irizpideen agerpena % 10etik behera dago, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiagokoa denik. D1 eta D2 irizpideak antipsikotikoen taldeari eta memantinari buruzkoak dira, hurrenez hurren, eta DSPJ kontrolatzeko erabili ohi dira. Gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten eta farmako horiek kronikoki kontsumitzen dituzten pertsonen kasuan, ohikoa da ospitaleko egonaldia lotutako eldarnio egoerak izatea edota portaeraren nahasmenduak larriagotzea(201), zaildu egiten duelarik irizpide horiek aplikatzea. Hala ere, kasu jakin batzuetan

ospitaleratzea farmako horien desintentsifikazio terapeutikoko estrategiak aplikatzeko une egokitzat jotzen ez bada ere, ospitaleko altako txosten medikoan argi geratu beharko litzake behin pertsonaren egonkortasun psikokonduktuala lortu ondoren irizpide horiek aplikatu behar izatea.

5.2.3. Karga antikolinergikoa eta lasaigarria

Aztertutako pazienteen % 50,9an ARS eskalako medikamenturen bat egon zen preskribatuta, DBI indizea jarraituta berriz, % 86a. Bi eskalen arteko desadostasun horren arrazoa ARSak karga antikolinergikoa duten medikamentuak soilik kontuan hartzen dituelako da, eta DBIak, aldiz, karga antikolinergikoa eta/edo lasaigarria dutenak. Argi dirudi gaixotasunaren fase aurreratueta dauden adineko pertsonak ezaugarri horiek betetzen dituzten medikamentu asko kontsumitzen dituztela, eta ekintza-mekanismo horrekin lotutako gertakari kaltegarriak sor ditzaketela, hala nola idorria, gernu-erretentzioa, ahoko eta begietako lehortasuna, sedazioa, nahasmena, eldarnioa, fotofobia, erorketak eta funtzio kognitiboaren narriadura.

Karga antikolinergikoa duten medikamentuen erabilerrari buruzko gure emaitzak argitaratutako hainbat lanekin alderatzen baditugu, ARS eskalaren arabera, datu desberdinak aurkituko ditugu. Hala, karga antikolinergikoa eskala horren bidez aztertzen duten ikerketetan, batez ere adineko pertsonen kasuan, % 20-75(202-205) arteko erabilera-maiztasuna jaso da. Jarduera antikolinergikoa zuten farmako preskribatuenak batez ere antipsikotikoen eta antidepresiboen taldekoak izan ziren, Kumpula et al.(204)-ek egindako ikerketan zehazten den bezala. Bertan, risperidona (% 18,3), mirtazapina (% 8,4) eta olanzapina (% 8,4) bezalako farmakoak nabarmentzen ziren.

DBI eskalaren ezaugarrietako bat karga antikolinergikoa kalkulatzeko garaian duen sentsibilitatea da, medikamentuaren eguneko dosiaren eta gutxieneko dosi eraginkorraren(139) arabera haztatzen baita, eta, horrez gain, sendagai lasaigarriak ere kontuan hartzen dira, aurrez aipatu den bezala. Gure ikerketan erregistratu den karga antikolinergikoa eta lasaigarria komunitatean bizi diren adineko pertsonen artean egindako azterlanekin alderatzen badugu, maiztasun baxuagoak aurkitu dira, % 26-54 bitartekoak (206,207). Aldiz, gaixotasun kroniko aurreratuak zituzten

pertsonetan egindako azterlan batean pazienteen % 82,1era igotzen zen DBI ezaugarriak betetzen zituen medikamenturen baten erabilera, 1,16ko medianarekin, beraz, gure azterlanean identifikatutakoaren oso antzekoa(208). Dementia-diagnostikoa eta narriadura funtzional eta kognitibo handia zuten adinekoen egoitzetan egindako zentro anitzeko beste ikerketa batean, erabilera % 83,7koa izan zen, 1,02ko batez bestekoarekin(209).

80 urtetik gorako pertsonengan berriki egindako berrikuspen sistematiko baten arabera, DBI tresna karga antikolinegikoa eta lasaigarria zehazteko egokiena dela ondorioztatzen dute(128). Horrez gain, narriadura kognitiboarekin eta funtzionaltasunarekin erlazionatu dute, eta baita, erorketen maiztasuna handitzearekin ere. Hala ere, ospitaleratzeekin eta edozein heriotza-kausarekin duen lotura ez da ondo ezarri(206,207,210,211).

5.2.4. Farmakoen arteko interakzioak

Farmakoen arteko elkarrekintzak edo interakzioak Farmazialarien Elkargoen Kontseilu Nagusiaren Bot Plusweb plataformaren bidez aztertu ziren(154). Horrela, pazienteen % 87,7k gutxienez medikamentuen arteko interakzio bat izan zuen, batez beste 3,7 interakzio/pertsonako identifikatu zirelarik. Interakzioak larritasun-mailaren arabera sailkatuz gero, % 19,3k, % 72,8k eta % 71,1ek interakzio farmako larria, erdi-mailakoa edo arina izan zuten, hurrenez hurren. Organo gutxiegitasun aurreratuaren ibilbidea jarraitzen zuten pertsonen prebalentzia handiagoa erakutsi zuten farmakoen arteko elkarrekintzak jasateko, batez ere polimedikazio handiagoa zutelako. Multimorbilitatea zuten adineko pertsonen botiken arteko interakzioak aztertu zituzten berrikuspen-artikulu batean, gutxienez interakzioren bat izateko prebalentzia % 25,1 eta % 100 artekoa zela ikusi zuten eta 100 pazienteko interakzio kopurua, berriz, 30-388,3 artekoa. Halaber, medikamentuen eta farmakoen arteko elkarrekintzak sarritan lotu izan dira medikamentuen kontrako ondorioekin, honela, Marengoni et al. (212)-en azterlanean zehazten den bezala, interakzio horiek kontrako erreakzioek eragindako ospitaleratzeen % 40 azaldu zuten.

Gure azterlanean, ohiko tratamenduan edozein larritasuneko interakzio gehien zituzten pertsonen ospitaleratzean hiltzeko arrisku handiagoa izan zuten; beraz,

aldagai hori polimedikazioa bera baino hilkortasun-iragarle hobea dela esan genezake. Aurkikuntza hori esanguratsua bada ere, ikerketa gehiago behar dira, bai modu kualitatiboan larrienak izan daitezkeen elkarrekintzak identifikatzeko, baita heriotza-gertaerarekiko duten kausalitatea ezagutzeko.

5.2.5. Konplexutasun terapeutikoa

Tratamendu farmakologikoaren konplexutasuna, sarritan atxikidura eskasarekin lotu da(213), horrela, gure azterlanean *Medication Regimen Complexity Index* tresnaren bidez ebaluatua izan zen (MRCIe) (155). Gure ikerketan lortutako MRCIearen batez besteko balioa 29,8 puntukoa izan zen, eta pazienteen % 25k (kuartil altuena) $\geq 36,5$ puntuko MRCIe izan zuen. Hainbat lanek MRCIe indizea adineko pertsonengan aztertu izan dute(214,215), eta ≥ 35 puntuko eten-puntutik abiatuta konplexutasun handiko erregimen farmakoterapeutiko bezela definitu dute. Hala, berriki egindako berrikuspen sistematiko eta meta-analisi batean, MRCI indize altua ospitaleratze gehiagorekin, berriro ospitaleratzearekin eta medikazioarekiko atxikidura eskasarekin(216) lotu da. Medikamentuen erabileraren konplexutasun handia dela eta, bizitza amaierako fasean dauden pertsonen tratamenduaren segurtasuna arriskuan jartzen da, kasu askotan medikamentuak prestatzeko eta hartzeko mendekotasuna baitute. Bizitza amaieran dauden pertsonen gizarte-babesgabetasunaren eta tratamenduaren konplexutasun handiaren konbinazioa porrot terapeutikora baino ez da bideratuko, medikamentuen erabilera desegokia dela eta. Konplexutasuna dela-eta, terapeutika betetzeko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatu eta sinplifikazio terapeutikorako estrategiak planteatzeak, pertsonaren bizi-itxaropenarekin bat datozen tratamendu farmakologikoa izatera hurbilduko du (217). Horrela, osasun-hezkuntzako neurriak eta paziente eta/edo zaintzailea ahalduntzeko estrategiak planteatzeko beharrak identifikatu dira, baita behar izanez gero gizarte euskarri eta baliabide handiagoak eskaintzearekin ere.

5.3. PAP eredu bat aplikatzeak egokitzapen farmakoterapeutikoaren aldagai nagusietan dituen ondorioak.

Azterlan honen deskribapen-zatian ikusi ahal izan dugunez, bizitza amaierako fasean gaixotasun kroniko aurreratuaren egoera gehiegizko polimedikazioarekin lotu da, bai eta desegokiak izan daitezkeen preskripzioen kopuru handi batekin ere, medikazioarekin lotutako kontrako gertaera larriak izateko arriskua areagotuz.

Ebidentzia zientifikoaren arabera, ospitaleko egonaldi batean, medikuntza-taldeak oro har, uko egiten dio farmakoterapia depreskribatzeko edo desintensifikatzeko aukerari, askotan ondorio negatiboen beldur (sintomen berragertzea, narriadura klinikoa, auzia eta/edo lan-karga handitzea) (218,219). Hala eta guztiz ere, Thillainadesan et al. (220)-ek egindako berrikuspen sistematikoan adierazten duten bezala, pazientearen segurtasuna eta ongizatea arriskuan jarri gabe, PDPk adineko pertsona hauskorren artean depreskribatzea garrantzizko jarduera izan behar dela argitzen dute.

Azterlan honetan aurkeztutako PAP ereduak, metodo implizituak (ebaluazio soziala, klinikoa, funtzionala, kognitiboa eta pertsonaren bizi-itxaropenarena kontuan hartzen zituena), eta método esplizituak (potentzialki desegokiak ziren preskripzioen zerrendez lagunduta) jarraituta farmakoterapia aztertzeke eta egokitzeko aukera eman zuen.

Polifarmazia eta hiperpolifarmazia medikazioarekin lotutako gertaera kaltegarriak izateko iragarle sendoak diren aldetik, ikerketaren helburu nagusietako bat medikamentu kronikoen guztizko kopurua murriztea izan zen, sendagaien iatrogeniaren kalteak gutxitzeko. Horrela, azterlan honetan deskribatutako PAP ereduak aplikatu ondoren, interbentzio taldean 1,74 sendagai kroniko murriztea lortu zen, kontrol-taldea ia aldaketarik antzeman gabe. Ildo beretik, 10 medikamentu edo gehiago modu kronikoan hartu zituzten pazienteen tasa nabarmen jaitsi zen interbentzio taldean, ospitaleratze momentuko % 42,1etik alta momentuko % 12,8ra. Ondorio hori ordea ez zen kontrol-taldean egiaztatu. Interbentzio hau, dementzia aurreratua zuten ospitaleratutako pazienteekin egindako aurre-ondorengo azterketa ez

esperimental batekin alderatzen badugu, 2,45 medikamentu gutxitu zituzten batez beste(110). Bestalde, Frankenthal et al. (146) eta Potter et al. (150)-ek adinekoen egoitzetan egokitzapen farmakoterapeutikorako egindako lanek 1,5 eta 2,3ko murrizketa lortu zuten ikerketa hasi eta 12 hilabetera, hurrenez hurren. Ikus dezakegun bezala, egoitza-eremuan egindako egokitzapen farmakoterapeutikoak epe luzeagorako helburua izan ohi dute; bestalde, ospitaleratutako pazienteetan egindako optimizazioek ospitaleko batez besteko egonaldiarekin lotutako interbentzio aldia estimatzen zaie, eta horrek benetan interesgarri egiten ditu.

Bestalde, PAP erdua aplikatu ondoren, paziente baten MAI indizearen batukariaren ospitaleratze eta altaren arteko diferentzia 17 puntukoa izan zen, kontrol-taldean aurkitutakoa baino nabarmen handiagoa. MAI indizearen erabilera hainbat Ospitaletako Unitate Geriatrikotan ere aztertua izan da, egokitzapen farmakoterapeutikorako tresna eraginkorra izanik. Hala, adineko pertsonen polimedikazioaren egokitzapena hobetzeko interbentzioa aztertzen zuen Cochrane(221) berrikuspen sistematiko batean, interbentzio taldearentzat MAI indizean batez besteko aldaketa bat zegoela ikusi zuten kontrol-taldearekin alderatuta, zehazki, 6,78koa (12,34tik 1,22ra). Hala ere, ez dago argi zer neurritan dakarren MAI puntuazioa murrizteak klinikoki esanguratsua izan daitekeen aldaketa, hain zuzen, medikazioarekin lotutako kontrako gertaerak izateko arriskuan. Olsson et al. (143) autoreek egindako kohorte-azterlan batean, ospitaleko alta momentuan, 75 urtetik gorako pertsona polimedikatuen tratamenduen egokitzapen maila neurtu zuten, non MAI indize altuagoa (=okerragoa) bizi-kalitate eskasagoarekin lotu zen, EQ-5D galdetegiaren arabera. Etorrizunera begira, interesgarria litzateke interbentzio ikerketa berriak diseinatzea, MAI indizearen murrizketak bizitza amaierako fasean dauden pertsonen bizi-kalitatean nola eragiten duen jakiteko.

Era berean, 2017an bizitzaren amaieran PDPak detektatzeko STOPP Frail(222) irizpideak argitaratu zirenez, gure lanaren bitartez hauen erabilera testatzeko aukera izan zen. Bereziki, interbentzio taldearentzat, berauen aplikazioa oso eraginkorra izan zen, alta momentuan irizpide hauen presentzia ia desagertu arte, ondorioz, nabarmendu beharra dago unitate geriatrikoetan irizpide berri hauek izan duten onargarritasuna. MAI indizea eta beste metodo inplizitu batzuk ez bezala, STOPP

Frail irizpideen bertutea zehaztasuna, erabilera-azkartasuna eta fidagarritasuna dira, bai ebaluatzaile desberdinen artean, bai diziiplina desberdinen artean ere. Orain arte, bere erabilgarritasuna frogatu ahal izan duen ikerketa bakar bat ezagutzen da, zehazki, STOPP Frail Irizpideak idatzi zituen ikertzaile-taldetik datorrena. Ikerketa honen bitartez, ohiko arreta farmazeutikoari STOPP Frail(222) irizpideen erabilera gehitu ondoren, 2,6 medikamentu kronikoren murrizketa antzeman zuten. Kasu horretan, terapiaren sinplifikazioa gure azterlanean baino nabarmenagoa izan zen, ziurrenik sartze-irizpide bezela paziente polimedikatuak soilik kontuan hartu zituztelako, eta paziente horiek hortaz, ikerketa hasieran medikamentu gehiago kontsumituko zituztelako.

PAP ereduak, halaber, bizitzaren azken fasean ospitaleratutako pertsonen karga antikolinergikoa eta lasaigarria murrizteko beharra jasotzen zuen. Behin ereduak aplikatuta, ARS eskalako batez besteko balioak eta DBI indizea nabarmen murriztea lortu zen ospitaleratzearen eta ospitaleko alta ematearen artean. Gure jakintzaren arabera, era kontrolatuan eta aleatorizatuan ezagutzen den bigarren azterketa da, zehazki, tratamenduen berrikuspenen bidez karga antikolinergikoaren eta lasaigarriaren aldaketa neurtzen duena. Komunitate arloan Van der Meer et al. (223) autoreek argitaratutako azterlanean, tratamenduen berrikuspenak DBI indizea 0,5 puntu murrizteko(ezaugarri antikolinergikoak eta/edo lasaigarriak dituen medikamentu bat kentzearen baliokidea) ez zirela eraginkorrak izan ondorioztatu zuten, non kopuru horretatik aurrera efektua klinikoki esanguratsua zela konkretatzen zuten. Gure azterlanari dagokionez, ospitaleratzearen eta altaren arteko DBI murrizketa ere apala izan zen, baina arrakastatzat jo zen, soilik, ospitaleratze baten ondorengo karga hori handiagoa ez izate hutsarekin.

PAP ereduak medikamentuen arteko guztizko interakzio kopuruan izan zuen eragina esanguratsua izan zen, eta nabarmenagoa izan zen erdi-mailako intentsitate interakzioetarako. Bibliografian ez da aurkitu konparaziozko azterlanik, tratamenduegokitzapenen bidez farmako-farmako interakzioen kopuruaren murrizketa ezagutzera eman duenik. Ziur asko, interakzio farmako-farmakoen kopurua murrizten gehien lagundu zuen faktorea, preskribatutako medikamentuen guztizko kopurua bera murriztea izan zen.

Azkenik, PAP ereduak MRCIe indizea murrizteko eraginkorra dela frogatu da. Pazientearen ospitaleratzean eta alta ematerako momentuaren arteko farmakoterapiaren konplexutasun mailaren aldaketa neurtu zen, non interbentzio taldean 5 puntuko jaitsiera egiaztatu zen. Aldiz, kontrol taldean, MRCIaren batezbestekoa igo egin zen. Medikamentuen arteko interakzioak neurtu zirenean bezela, indize hori gehien murrizten lagundu zuen faktorea preskribatutako medikamentuen guztizko kopurua murriztea izan zen. Orain arte, MRCI indizearekin lotutako gertaera kaltegarriak behaketa-ikerketetan aztertu izan dira, eta bertan, indize handiagoa duten pertsonen ospitaleratzeen tasa handiagoa eta tratamenduarekiko atxikidura maila murriztagoa dutela ikusi da(224). Hortaz, polimedikatutako pertsonen artean MRCI indizea sinplifikatzeak osasun-eraketak hobetzen dituen aztertzeko, interbentzio ikerketa berriak planteatu behar dira.

PAP ereduari esker, farmazialari klinikoa mediku geriatrek, erizainek eta gizarte-langileek osatzen duten diziplinarteko taldera batu da, non era bateratuan plan terapeutikoaren diseinua, ezarpena eta jarraipena egingo duten, pazientearengan eraketa espezifikoak lortzeko jomugarekin. Aurkeztutako ikerketa honetan, aplikatutako eredu berriak terapia nabarmen sinplifikatzen lagundu zuen, baita egokitzapen terapeutiko eskasaren adierazleak hobetzen ere.

5.4. PAP ereduak aldagai farmakoterapeutikoetan eta ospitaleko larrialdietara egindako bisitetan duen eragina, ospitaleko alta ondorenean

5.4.1. PAP ereduak ospitaleko alta jaso ondoren aldagai farmakoterapeutikoetan duen eragina

Ospitaleko alta jaso ondoren, hilabetera eta 3 hilabetetara aldagai farmakoterapeutikoak aztertu ziren berriro, emaitza desberdinak topatu zirelarik. STOPP Frail irizpideak egonkor mantendu ziren denborak aurrera egin ahala, bai kontrol-taldearentzat, bai interbentzio taldearentzat. Gertaera honek STOPP Frail irizpideak, bizitzaren amaieran desegokiak diren medikamentuen inguruan interbentzio bat burutzeko tresna baliagarri gisa finkatzen ditu, interbentzio honek denboran zehar izango duen eragina bermatuz. Hala, Belgikako herrialdean hil ziren pazienteen kohorte batean egindako atzera begirako azterlan batean, bizitzaren azken urtean STOPP Frail irizpidearen prebalentzia handia ikusi zuten, eta are handiagoa izan zen heriotza hurbiltzen zen einean(144). Horrela, gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pazienteengan interbentzio farmazeutikorik egin ezean, arrisku potentziala dago denbora igaro ahala PDP kopurua handitzeko.

STOPP Frail Irizpideekin gertatu zen bezala, PAP ereduaren bidez edozein larritasuneko farmakoen arteko interakzioetan lortu zen gutxitze efektua, denboran zehar ere mantendu zen. Farmakoen arteko elkarreraginak maiz lotu izan dira medikamentuen kontrako ondorioekin, askotan ospitaleratze berrien edo larrialdietara egindako bisiten sorburu izanez(59,212,225,226), hortaz, emaitza sendo bezela kontsidera daiteke PAPak interakzioen gutxitzean izan duen efektua.

Hala ere, ospitaleko altaren ondoren eta denborak aurrera egin ahala, medikamentu kronikoen kopuruak eta konplexutasun terapeutikoak era esanguratsuan gora egin zuten berriro, bai kontrol-taldean, bai interbentzio taldean ere, beti ere ospitaleratu aurreko mailetara iritsi gabe. Baliteke gorakada hori bizitzaren azken fasean dauden pertsona horiek lehen mailako arretarekin edo ospitaleratze-gertaera berriren batekin dituzten elkarrekintzekin lotuta egotea. Ikerketa honetan guztiz argi geratzen ez bada ere, STOPP Frail irizpideak egonkor mantendu badira eta batez ere prebentzio-

medikamentuei erreferentzia egiten badiete, medikamentu kopuruaren igoera gaixotasunaren kontrol sintomatikorako erabilitako medikamentuekin lotuta egon daitekeela uste da.

Teoria hau sendotu dezakeen beste arrazoi bat, pazieenteen jarraipena egin zen bitartean ARS eta DBI tresnen arabera karga antikolinergikoa eta lasaigarriaren handitzea izan zen, non bizitzaren amaieran sintomak maneiatzeko psikofarmakoak areagotzearekin lotuta egon zitekeen. Ohikoa da arreta aringarrian horrelako medikamentuak erabili behar izatea, besteak beste, mina, disnea, jariakinak eta antsietatea kontrolatzeko(227). Hala, zenbait azterlanek islatzen duten bezala(127,130), bizitzaren amaieran agindutako medikamentu antikolinergiko gehienak erabilera sintomatikoko medikamentuekin lotuta egon ziren, eta haien erabilera areagotu egin zen heriotza hurbildu ahala. Hala ere, aktibitate antikolinergikoa zuten medikamentuekiko esposizio handiagoa neke handiagoarekin, ahoko lehortasun handiagoarekin eta bizitzaren amaieran kontzentrazioa eta bizi-kalitatea okerrera egitearekin lotu zen. Ildo horretan ikertzen jarraitu beharra dago, batetik, bizitza amaieran karga antikolinergikoa sintomen eta funtzionaltasunaren okertzearen arrazoa den ala ez jakiteko, edota okerrera egiten ari diren pertsonen karga antikolinergiko altua duten medikamentu gehiago hartzeak konfort-egoera hori bermatzeko mesede egiten dien ala ez jakiteko.

Azken batean, PAP ereduaren eragina egonkor mantendu da denboran zehar STOPP Frail irizpideetarako, lehen edo bigarren mailako prebentzioan erabiltzen diren sendagaiekin erlazionatu ohi direnak, bai eta medikamentuen arteko interakzioen guztizko kopururako ere. Hala ere, karga antikolinergikoa eta lasaigarria denborak aurrera egin ahala areagotu egiten dela ikusi da, hortaz, etorkizunean bizitza amaieran farmako horien erabilerak sintomen kontrolean izan ditzazkeen eraginak aztertzea beharrezkoa izango da.

5.4.2. PAP ereduak ospitaleko larrialdietara egindako bisitetan duen eragina ospitaleko alta ondorenean

PAP ereduaren bizitza amaierako fasean ospitaleratutako pazientearen preskripzio medikoaren kalitatea hobetzeko eraginkorra izan dela jakitea garrantzitsua den bezala, eredu berri horrek osasuneko emaitza klinikoetan duen eragina kuantifikatzeak ere bere garrantzia du. Paziente bat ospitaletik bere etxera edo egoitzara igarotzea funtsezko unea da artatutako pertsonen osasunerako; izan ere, maila horretako arazo batek ondorio larriak ekar ditzake, hala nola, larrialdietarako bisita berriak, ospitaleratze berriak, beste osasun-gertaera kaltegarri batzuk eta baita heriotza ere(228–231). Halaber, azterketa ezberdinetan medikamentuei loturiko gertaera kaltegarriek motibatutako ospitaleratzeak % 5-20 bitartean zenbatetsi dira (232–234). Horregatik, PAP ereduak ospitaleko alta jaso ondoren larrialdi-zerbitzura itzultzeko izan zuen eragina ezagutzea, interes handikoa izan da.

Lortutako emaitzen arabera, interbentzio taldeko pertsonak neurri txikiagoan bisitatu zuten larrialdietako zerbitzua ospitaleko alta eman ondorengo lehen hilabeteetan, kontrol-taldearekin alderatuta (% 14,6 vs % 2,6). Emaitza horiek ezin izan ziren errepikatu segimendu-denbora igaro ahala. Era berean, azpimarratu behar dugu jarraipena egindako pazienteen % 37 ospitaleko alta jaso eta 12 hilabetera larrialdiz-zerbitzuetara itzuli zela, argi geldituz bizitza amaierako fasean dauden pertsonen osasun-gertakari kaltegarriak jasateko duten kalteberatasuna.

Tratamendu farmakoterapeutikoaren egokitzapenean oinarritutako beste interbentzio ikerketa batzuen emaitzek ez dute argi uzten larrialdietara egindako bisiten eta/edo ospitaleratzeen tasaren murrizketan duten eragina. Ospitale batean 80 urtetik gorako pertsonetan egindako azterlan batean, MAI tresnaren eta STOPP-START irizpideen optimizazioan oinarritutako interbentzio farmazeutikoa aplikatu ondoren, ez zen estatistikoki esanguratsua den emaitzarik aurkitu ospitalerako bisiten murrizketan, 12 hilabeteko jarraipenaren ostean(235). Hala ere, indize horien puntuazio altuak medikamentuei lotutako ospitaleratze kopuru handiagoarekin lotu ziren. Ospitaleko unitate geriatrikoetan egindako azterketa aleatorizatu eta kontrolatu batzuetan ere ez zuten emaitzak hobetzerik lortu, zehazki, larrialdietarako bisitak eta/edo

berospitaleratzeak neurtu zirenean(236–238). Horietako azterlan batean, batez beste 85 urteko adina zuen unitate geriatriko batean, non bizitza amaierako fasean pertsona asko egotea espero zen, 3 hilabeteko jarraipenaren ondoren larrialdietara egindako bisiten tasa % 39,2koa izan zen kontrol-taldearentzat eta % 28,7koa interbentzio taldearentzat. Kopuru horiek gure azterlanean jarraipen-aldi horretarako aurkitutakoak baino nabarmen handiagoak izan ziren(237).

Bestalde, ikertutako denbora tarte ezberdinetan larrialdietara egindako bisitak azal zituzketen faktoreak aztertu ziren. Horrela, adin oso aurreratua, hauskortasun larria (IF-VIG \geq 0,46 ebaketa-puntua) eta arrisku sozialaren (Gijon Balorazio $>$ 15 ebaketa-puntua) ezaugarriak betetzen zituzten pertsonak alta ondorenean larrialdizerbitzuetara itzultzeko arrisku-faktore bezela identifikatu ziren.

Jarraian egindako beste azterketa batean, alta jaso ondoren, ospitaleko larrialdietara itzultzeko denboran eragina izan zuten arrisku-faktore nagusiak ezagutarazi ziren. Berrito ere, adinez zaharragoak eta IF-VIG \geq 0,5 zutenak, eta baita min kronikoa pairatu eta bakarrik bizi zirenak ere, ospitale-itzulera goiztiarragoa izateko arrisku-faktore nagusiak izan ziren. Datu horiek bat datoz, neurri batean, \geq 70 urteko ospitaleratutako pazienteekin egindako azterlan batekin(239). Bertan, adinean aurrera egitea eta hauskortasun-indizea izan ziren ospitaleko alta jaso eta 90 egunera ospitaleratze bat izateko arrisku-faktore nagusiak. Sokoreli et al.(240)-ek bihotz-gutxiegitasun baten ondorioz ospitaleratutako adinekoekin egindako beste azterlan batean, hauskortasuna eta gizarte-euskarri kalteberatasuna, alta jaso eta lehen 30 egunetara ospitaleratze faktore arrisku bezela identifikatu zituzten.

Gure azterlaneko beste datu deigarri bat, 12. hilabeteko jarraipenean larrialdizerbitzuetarako bisitak eragin zituen aldagai nagusia, zehazki, IF-VIG \leq 0,46koa zuten pazienteen azpitaldean, kontrol-taldeko kide izatea izan zen. Honela, IF-VIG baxuago duten pertsonetan, ustez bizi-itxaropen luzeago izango dutenetan, PAP ereduak aplikatzeak ospitaleratze-maiztasunaren tasa murrizteko onura handiagoa ekar dezakeenaren hipotesia planteatu lezake.

Azken batean, bizitzaren amaierako fasean identifikatutako pertsonen ospitaleratzean zehar aplikatutako PAP ereduak, alta eman ondorengo lehen 30 egunetan

larrialdietara egindako bisiten tasa murriztu egin duela egiaztatu da, honela, ospitaletik etxerako trantsizioa hobetu dela agerian utziz. Hala ere, osasun-emaitzetan izandako hobekuntza horiek ezin izan dira denboran zehar mantendu. Ondorioz, ospitaleko arretaren eta lehen mailako arretaren artean PAP ereduak modu zeharkatuan eta integratuan aplikatzeak larrialdietarako bisitak edota ospitaleratzeak ekidin ahal izango dituela uste da.

5.5. PAP ereduaren aplikagarritasuna, erabilgarritasuna eta espero den inpaktua

Gero eta gehiago dira gaixotasun kroniko konplexuak izatetik, denbora pasa ahala, bizi-pronostiko mugatua eta aurreikusten zaila duten gaixotasun kroniko aurreratuetara eraldatzen direnak. Pertsona horien osasun-baliabideen erabilera gero eta handiagoa da, eta askotariko premiak, baloreak, lehenetsunak eta helburu terapeutikoak dituzten pazienteen profilak ikusten dira.

Ospitale Geriatriko bateko Eriondo Unitate batean bizitza amaierako fase egoeran dauden pertsonen detekzio goiztiarrerako tresna bat ezartzeak aukera eman du horietan guztietan arreta aringarria bermatzeko. Helburu nagusia, pertsonaren lehenetsunetan eta asistentzia-helburuetan oinarritutako arreta ematea, eta bizi-kalitatea eta sintomen kontrola hobetzea izan da. Nabarmentzekoa izan da pertsona horien ospitale barruko heriotza-tasa altua, batez ere bihotzeko gaixotasun kroniko aurreratuen eta gaixotasun neurologiko aurreratuen (IZB mota) ibilbiderako, honek ondorioz, paziente-profil horretarako baheketa-tresnak beranduegi iristen direla adierazi dezakelarik.

Bestalde, IF-VIG bidez neurtutako hauskortasun aurreratua hiperpolimedikazio-egoerarekin eta tratamendu farmakoterapeutikoaren egokitzapen eskasagoarekin lotu izanak, paziente kalteberena hautatzeko irizpideak ezartzen lagunduko du PAP eredu aplikatzerako garaian.

Bizitza amaierako fasean identifikatutako pertsonen ospitaleko egonaldian PAP eredu bat aplikatzeak nabarmen murriztu ditu medikamentu kronikoen kontsumoa eta haien konplexutasuna, STOPP Frail irizpideen kopurua, farmakoen arteko elkarrekintzak eta karga antikolinergiko eta lasaigarria, ospitaleratu aurreko egoerarekiko. Eredua aplikatzearen eragina egonkor mantendu da ospitaleko alta eman eta ondorengo lehen 3 hilabeteetan, batez ere STOPP Frail irizpideetan. Irizpide horiek prebentziorako medikamentuekin erlazionatu ohi dira, eta bizitzaren amaieraran arrisku-onura balantzea kaltegarria dutelako bereizten dira. Hala ere, karga antikolinergikoa eta lasaigarria areagotu egin da laginaren jarraipen-aldian, baita medikamentu kronikoen kopurua ere, eta heriotza hurbil egotearekin eta

medikamentu horiek bizitzaren amaieran gaixotasunaren kontrol sintomatikoa bermatzeko erabili beharrezkin loturik egon direla uste da.

PAP ereduak jaso duten pertsonetan, ospitaleko alta jaso eta lehen 30 egunetan larrialdietara egindako bisita-tasen murrizketak eragin zuzena izan du artatutako pertsonen osasunean, baita erabilitako osasun-baliabideen eraginkortasunean ere. Ospitaleko arretaren eta lehen mailako arretaren artean PAP ereduak modu zeharkatuan eta integratuan aplikatzeak, sahiestu daitezkeen larrialdietarako bisitak eta ospitaleratze berriak ekidin ditzakeela uste da. Honela, etorkizuneko ikerketa-ildoetako hipotesietako bat zentzu horretan bideratu behar dela iradokitzen da, baita bizitza amaierako fasean dauden pertsonen kontrol sintomatikoa eta bizi-kalitatea hobetzean ere.

Ikerketa honetan proposatutako PAP ereduak indartu eta balioetsi egin ditu 2016-2020 aldirako Euskadiko Zainketa Aringarrien Planean(241) hautemandako hobekuntza-arloak. Plan honetan, besteak beste, kasuak identifikatzea eta zaintzak garaiz hastea, prozesuak sistematizatzea, osasun-sistema eta sozialaren arteko koordinazioa bermatzea, profesionalen informazioa eta gaikuntzarako tresnak izatea, eta pazienteen eta zaintzaileen ahalduntzea sustatzea planteatzen zen. Arreta aringarriko eredu berriak asmatzera bideratutako ikerketek pertsonen osasunean zuzeneko ondorioak lortzen lagun dezakete, bai eta zerbitzu soziosanitarioen egitura egoki eta eraginkorra lortzen, bai EAEn zein Estatu mailan ere.

ONDORIOAK

CONCLUSIONES

6. ONDORIOAK

1. Bizitzaren azken fasean dagoen pazientearen profila, adin luzeko pertsona hauskor batena da, non gizarte-babesgabetasunerako arrisku handia, narriadura kognitibo eta funtzional larria, komorbilitate handia eta polimedikazioa izan ohi diren lotzen zaizkion ezaugarriak bereizgarrienak.
2. Bizitzaren amaierako fasean bi gaixotasun-ibilbide argi identifikatu dira, batetik hauskortasun aurreratua eta/edo dementziak eta beste gaixotasun neurologiko batzuk dituzten pazienteen taldea, eta bestetik gutxiegitasun organikoko gaixotasun aurreratua duten pazienteen taldea, non beraien komorbilitate, mendekotasun funtzional eta kognitiboaren ezaugarrietan ezberdintasun argiak bereizten diren.
3. Bihotz-gutxiegitasun kroniko aurreratua eta/edo garun-hodietako istripu motako gaixotasun neurologikoa duten pertsonen ospitale barruko heriotza-tasa oso altua izan da, hortaz, paziente-profil horrentzat bizitzaren amaieran arreta aringarria jasotzeko baheketa-tresnak beranduegi iristen direla agerian utzi da.
4. Hauskortasun aurreratua hiperpolimedikazio-egoerarekin eta farmakoterapiaren egokitzapen eskasarekin lotu da, eta kasu askotan, pertsona horien bizi-itxaropenean oinarrituta onura terapeutiko txikia duten prebentzio-medikamentuak metatuz arrisku egoerak sortu dira.
5. PAP eredu baten aplikazioak nabarmen murriztu ditu medikamentu kronikoen kontsumoa, bizitzaren amaieran desegokiak izan daitezkeen preskripzioen kopurua, farmakoen arteko interakzioak eta konplexutasun terapeutikoa, hortaz, gaixotasun kroniko aurreratua duten pazieenteetan eredu honen eraginkortasuna baliozkotzea ahalbidetu da.
6. Behin PAP eredua aplikatuta, STOPP Frail Irizpideen adierazleak eta farmakoen arteko interakzioak ospitaleko alta eman ondoren 3 hilabetez egonkor mantendu dira, honen ondorioz, medikamentuen iatrogeniari loturiko arriskua murriztu ahal izan da.

7. Ospitaleko altaren ondoren, eta denborak aurrera egin ahala, kontsumitutako medikamentu kronikoen batez besteko kopuruak, karga antikolinergiko eta lasaigarriak eta konplexutasun terapeutikoak okerrera egin dute berriro, emaitza hauek agerian utzi dutelarik asistentzia-maila desberdinen artean zainketen segimenduak izan lezakeen hobekuntza marjinean.
8. Hauskortasun aurreratua eta gizarte-kalteberatasuna izatea ospitaleko larrialdi-zerbitzuetara itzultzeko arrisku-faktore nagusiak izan dira, hortaz, pertsona zaugarri hauetan baliabide soziosanitarioak indartu behar direla agerian utzi da.
9. PAP ereduari esker, ospitale-alta jaso eta lehen hilabeteen larrialdietara egiten diren bisitak murriztu ahal izan dira, nahiz eta efektu honek ezin izan duen denborak aurrera egin ahala iraun. Hori dela eta, ospitale eta lehen mailako arretaren artean lankidetzarako sare berriak sortzeko beharra planteatzen da.

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFÍA

7. BIBLIOGRAFIA

1. Bongaarts J. Human population growth and the demographic transition. *Phil Trans R Soc B*. 2009;364(1532):2985–90.
2. United Nations. Department of Economic and Social Affairs, Population Division (2019). *World Population Prospects 2019. Highlights (ST/ESA/SER.A/423)*.
3. Instituto Nacional de Estadística. *Proyectos de población 2020-2070 [Internet]. Notas de prensa. Disponible en: https://www.ine.es/prensa/pp_2020_2070.pdf*
4. Eustat - Euskal Estatistika Erakundea. *La esperanzade vida de las mujeres vascas. Nota de prensa 09/08/2018 [Internet]. [citado 15 Mar 2021]. Disponible en: https://www.eustat.eus/elementos/ele0015400/la-esperanza-de-vida-de-las-mujeres-vascas-862-anos-es-la-mas-alta-de-toda-la-ue-28/not0015471_c.html*
5. Mitchell E, Walker R. Global ageing: Successes, challenges and opportunities. *Br J Hosp Med*. 2020 Feb 2;81(2):1–9.
6. Organización Mundial de la Salud. *Informe mundial sobre el envejecimiento y la salud [Internet]. [citado 4 Abr 2021]. Disponible en: <https://www.who.int/ageing/publications/world-report-2015/es/>*
7. World Health Organization. *The top 10 causes of death [Internet]. [citado 31 Mar 2021]. Disponible en: <https://www.who.int/news-room/fact-sheets/detail/the-top-10-causes-of-death>*
8. Instituto Nacional de Estadística. <https://www.ine.es/>.
9. EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. <https://www.eustat.eus/>.
10. Etkind SN, Bone AE, Gomes B, Lovell N, Evans CJ, Higginson IJ, et al. How many people will need palliative care in 2040? Past trends, future projections and implications for services. *BMC Med*. 2017;15(1):1–10.
11. Finucane AM, Bone AE, Etkind S, Carr D, Meade R, Munoz-Arroyo R, et al. How many people will need palliative care in Scotland by 2040? A mixed-method study of projected palliative care need and recommendations for service delivery. *BMJ Open*. 2021;11(2):e041317.
12. Sevilla-Sanchez D, Molist-Brunet N, Amblàs-Novellas J, Roura-Poch P, Espauella-Panicot J, Codina-Jané C. Adverse drug events in patients with advanced chronic conditions who have a prognosis of limited life expectancy at hospital admission. *Eur J Clin Pharmacol*. 2017;73(1):79–89.
13. Epping-Jordan JE, Pruitt SD, Bengoa R, Wagner EH. Improving the quality of health care for chronic conditions. *Qual Saf Heal Care*. 2004;13(4):299–305.
14. Organización Mundial de la Salud. *Fortalecimiento de los cuidados paliativos como parte del tratamiento integral a lo largo de la vida [Internet]. [citado 4 Abr 2021]. Disponible en: <https://apps.who.int/iris/handle/10665/170558>*
15. Gómez-Batiste X, Martínez-Muñoz M, Blay C, Amblàs J, Vila L, Costa X, et al. Identifying patients with chronic conditions in need of palliative care in the general population: development of the NECPAL tool and preliminary prevalence rates in Catalonia. *BMJ Support Palliat Care*. 2013;3(3):300–8.
16. Lynn J, Adamson DM. *Living Well at the End of Life: Adapting Health Care to Serious Chronic Illness in Old Age [Internet]. [citado 4 Abr 2021].*

- Disponibile en: https://www.rand.org/pubs/white_papers/WP137.html
17. Murray SA, Kendall M, Boyd K, Sheikh A. Illness trajectories and palliative care. *Br Med J*. 2005;330(7498):1007–11.
 18. Boyd K, Murray SA. Recognising and managing key transitions in end of life care. *BMJ*. 2010;341(7774):649–52.
 19. Brumley RD, Enguidanos S, Cherin DA. Effectiveness of a Home-Based Palliative Care Program for End-of-Life. *J Palliat Med*. 2003;6(5):715–24.
 20. Jayatunga W, Lewer D, Shand J, Sheringham J, Morris S, George J. Health and social care costs at the end of life: A matched analysis of linked patient records in East London. *Age Ageing*. 2019;49(1):82–7.
 21. Maetens A, Beernaert K, De Schreye R, Faes K, Annemans L, Pardon K, et al. Impact of palliative home care support on the quality and costs of care at the end of life: A population-level matched cohort study. *BMJ Open*. 2019;9(1):e025180.
 22. Rocque GB, Cleary JF. Palliative care reduces morbidity and mortality in cancer. *Nat Rev Clin Oncol*. 2013;10(2):80–9.
 23. Gómez-Batiste X, Turrillas P, Tebé C, Calsina-Berna A, Amblàs-Novellas J. NECPAL tool prognostication in advanced chronic illness: A rapid review and expert consensus. *BMJ Support Palliat Care*. 2020;Published Online First: 02 April 2020.
 24. Amblàs-Novellas J, Murray SA, Espauella J, Martori JC, Oller R, Martínez-Muñoz M, et al. Identifying patients with advanced chronic conditions for a progressive palliative care approach: a cross-sectional study of prognostic indicators related to end-of-life trajectories. *BMJ Open*. 2016;6(9):e012340.
 25. Gold Standard Framework - PIG - Proactive Identification Guidance Registration Form [Internet]. [citado 2 Abr 2021]. Disponible en: <https://www.goldstandardsframework.org.uk/PIG>
 26. Highet G, Crawford D, Murray SA, Boyd K. Development and evaluation of the supportive and palliative care indicators tool (SPICT): A mixed-methods study. *BMJ Support Palliat Care*. 2014;4(3):285–90.
 27. Thoonsen B, Groot M, Engels Y, Prins J, Verhagen S, Galesloot C. Early identification of and proactive palliative care for patients in general practice, incentive and methods of a randomized controlled trial. *BMC Fam Pract*. 2011;12(123):1–7.
 28. Gómez-Batiste X, Martínez-Muñoz M, Blay C, Amblàs J, Vila L, Costa X. Identificación de personas con enfermedades crónicas avanzadas y necesidad de atención paliativa en servicios sanitarios y sociales: elaboración del instrumento NECPAL CCOMS-ICO©. *Med Clin (Barc)*. 2013;140(6):241–5.
 29. Clegg A, Young J, Iliffe S, Rikkert MO, Rockwood K. Frailty in elderly people. *Lancet*. 2013 Mar 2;381(9868):752–62.
 30. Joseph B, Pandit V, Zangbar B, Kulvatunyou N, Hashmi A, Green DJ, et al. Superiority of frailty over age in predicting outcomes among geriatric trauma patients: A prospective analysis. *JAMA Surg*. 2014;149(8):766–72.
 31. Collard RM, Boter H, Schoevers RA, Oude Voshaar RC. Prevalence of frailty in community-dwelling older persons: A systematic review. *J Am Geriatr Soc*. 2012 Aug;60(8):1487–92.
 32. Fried LP, Tangen CM, Walston J, Newman AB, Hirsch C, Gottdiener J, et al.

- Frailty in older adults: Evidence for a phenotype. *Journals Gerontol - Ser A Biol Sci Med Sci*. 2001;56(3):146–57.
33. Rockwood K, Song X, Macknight C, Bergman H, Hogan DB, McDowell I, et al. A global clinical measure of fitness and frailty in elderly people. *CMAJ*. 2005;713(5):489–95.
 34. Cesari M, Gambassi G, Van Kan GA, Vellas B. The frailty phenotype and the frailty index: Different instruments for different purposes. *Age Ageing*. 2014;43(1):10–2.
 35. Rodríguez-Mañas L, Walston JD. Frailty, what are we talking about? Implications for the daily clinical practice. *Rev Esp Geriatr Gerontol*. 2017;52(4):179–81.
 36. Amblàs-Novellas J, Espauella J, Rexach L, Fontecha B, Inzitari M, Blay C. Frailty, progression and shared decision-making: A pragmatic framework for the challenge of clinical complexity at the end of life. 2015;6(2):189–94.
 37. Kojima G, Iliffe S, Walters K. Frailty index as a predictor of mortality: a systematic review and meta-analysis. *Age Ageing*. 2018;47(2):193–200.
 38. WHO Centre for Health Development Ageing and Health Technical Report. A glossary of terms for community health care and services for older persons [Internet]. [citado Abr 2 2021]. Disponible en: <https://apps.who.int/iris/handle/10665/68896>
 39. Masnoon N, Shakib S, Kalisch-Ellett L, Caughey GE. What is polypharmacy? A systematic review of definitions. *BMC Geriatr*. 2017;17(1):1–10.
 40. Taghy N, Cambon L, Cohen JM, Dussart C. Failure to reach a consensus in polypharmacy definition: An obstacle to measuring risks and impacts—results of a literature review. *Ther Clin Risk Manag*. 2020;16:57–73.
 41. Gnjidic D, Hilmer SN, Blyth FM, Naganathan V, Waite L, Seibel MJ, et al. Polypharmacy cutoff and outcomes: Five or more medicines were used to identify community-dwelling older men at risk of different adverse outcomes. *J Clin Epidemiol*. 2012;65(9):989–95.
 42. Narayan SW, Nishtala PS. Associations of Potentially Inappropriate Medicine Use with Fall-Related Hospitalisations and Primary Care Visits in Older New Zealanders: A Population-Level Study Using the Updated 2012 Beers Criteria. *Drugs - Real World Outcomes*. 2015;2(2):137–41.
 43. Rollason V, Vogt N. Reduction of polypharmacy in the elderly: A systematic review of the role of the pharmacist. *Drugs and Aging*. 2003;20(11):817–32.
 44. Cadogan CA, Ryan C, Hughes CM. Appropriate Polypharmacy and Medicine Safety: When Many is not Too Many. *Drug Saf*. 2016;39(2):109–16.
 45. Wastesson JW, Morin L, Tan ECK, Johnell K. An update on the clinical consequences of polypharmacy in older adults: a narrative review. *Expert Opin Drug Saf*. 2018;17(12):1185–96.
 46. Craftman ÅG, Johnell K, Fastbom J, Westerbotn M, von Strauss E. Time trends in 20 years of medication use in older adults: Findings from three elderly cohorts in Stockholm, Sweden. *Arch Gerontol Geriatr*. 2016;63:28–35.
 47. Kantor ED, Rehm CD, Haas JS, Chan AT, Giovannucci EL. Trends in prescription drug use among adults in the United States from 1999-2012. *JAMA*. 2015;314(17):1818–31.
 48. Hernández-Rodríguez MÁ, Sempere-Verdú E, Vicens-Caldentey C, González-

- Rubio F, Miguel-García F, Palop-Larrea V, et al. Evolution of polypharmacy in a spanish population (2005-2015): A database study. *Pharmacoepidemiol Drug Saf.* 2020;29(4):433–43.
49. Johnell K, Klarin I. The relationship between number of drugs and potential drug-drug interactions in the elderly: A study of over 600 000 elderly patients from the Swedish prescribed drug register. *Drug Saf.* 2007;30(10):911–8.
 50. Doan J, Zakrzewski-Jakubiak H, Roy J, Turgeon J, Tannenbaum C. Prevalencia y riesgo potencial de interacciones medicamentosas mediadas por el citocromo P450 en pacientes ancianos polimedcados hospitalizados. *Ann Pharmacother.* 2013;47(3):324–32.
 51. Dumbreck S, Flynn A, Nairn M, Wilson M, Treweek S, Mercer SW, et al. Drug-disease and drug-drug interactions: Systematic examination of recommendations in 12 UK national clinical guidelines. *BMJ.* 2015;350:h949.
 52. Lindblad CI, Hanlon JT, Gross CR, Sloane RJ, Pieper CF, Hajjar ER, et al. Clinically important drug-disease interactions and their prevalence in older adults. *Clin Ther.* 2006;28(8):1133–43.
 53. Cojutti P, Arnoldo L, Cattani G, Brusaferrò S, Pea F. Polytherapy and the risk of potentially inappropriate prescriptions (PIPs) among elderly and very elderly patients in three different settings (hospital , community , long-term care facilities) of the Friuli Venezia Giulia region , Italy : are the ver. 2016;25(9):1070–8.
 54. Galvin R, Moriarty F, Cousins G, Cahir C, Motterlini N, Bradley M, et al. Prevalence of potentially inappropriate prescribing and prescribing omissions in older Irish adults: Findings from the Irish Longitudinal Study on Ageing study (TILDA). *Eur J Clin Pharmacol.* 2014;70(5):599–606.
 55. Beers MH, Ouslander JG, Rollinger I, Reuben DB, Brooks J, Beck JC. Explicit Criteria for Determining Inappropriate Medication Use in Nursing Home Residents. *Arch Intern Med.* 1991;151(9):1825–32.
 56. Fick DM, Semla TP, Steinman M, Beizer J, Brandt N, Dombrowski R, et al. American Geriatrics Society 2019 Updated AGS Beers Criteria® for Potentially Inappropriate Medication Use in Older Adults. *J Am Geriatr Soc.* 2019;67(4):674–94.
 57. Gallagher P, Ryan C, Byrne S, Kennedy J, O'Mahony D. STOPP (Screening Tool of Older Person's Prescriptions) and START (Screening Tool to Alert doctors to Right Treatment). Consensus validation. *Int J Clin Pharmacol Ther.* 2008;46(2):72–83.
 58. O'mahony D, O'sullivan D, Byrne S, O'connor MN, Ryan C, Gallagher P. STOPP/START criteria for potentially inappropriate prescribing in older people: Version 2. *Age Ageing.* 2015;44(2):213–8.
 59. Pedrós C, Formiga F, Corbella X, Arnau JM. Adverse drug reactions leading to urgent hospital admission in an elderly population: Prevalence and main features. *Eur J Clin Pharmacol.* 2016;72(2):219–26.
 60. Pasina L, Brucato AL, Falcone C, Cucchi E, Bresciani A, Sottocorno M, et al. Medication non-adherence among elderly patients newly discharged and receiving polypharmacy. *Drugs and Aging.* 2014;31(4):283–9.
 61. Fried TR, O'Leary J, Towle V, Goldstein MK, Trentalange M, Martin DK. Health outcomes associated with polypharmacy in community-dwelling older

- adults: A systematic review. *J Am Geriatr Soc.* 2014;62(12):2261–72.
62. Laflamme L, Monárrez-Espino J, Johnell K, Elling B, Möller J. Type, number or both? A population-based matched case-control study on the risk of fall injuries among older people and number of medications beyond fall-inducing drugs. *PLoS One.* 2015;10(3):1–12.
 63. Kojima T, Akishita M, Nakamura T, Nomura K, Ogawa S, Iijima K, et al. Association of polypharmacy with fall risk among geriatric outpatients. *Geriatr Gerontol Int.* 2011;11(4):438–44.
 64. Dörks M, Herget-Rosenthal S, Schmiemann G, Hoffmann F. Polypharmacy and Renal Failure in Nursing Home Residents: Results of the Inappropriate Medication in Patients with Renal Insufficiency in Nursing Homes (IMREN) Study. *Drugs and Aging.* 2016;33(1):45–51.
 65. Chang YP, Huang SK, Tao P, Chien CW. A population-based study on the association between acute renal failure (ARF) and the duration of polypharmacy. *BMC Nephrol.* 2012;13(96):1–7.
